monte a comienzos del conflicto. Por el cauce bajo del Oria el día 19 cayó Usurbil y al día siguiente Orio, localidad que había sido evacuada y que fue controlada por una partida de falangistas que impidieron la voladura del puente de Orio. De esta manera el camino hacia Zarautz y Zumaia quedaba despejado ya que la partida de Barandalla controlaba la zona de Pagoeta. Las autoridades republicanas optaron por no defender Zarautz, donde solo había una fuerza de carabineros, y retirarse hasta Deba. Como ya hemos apuntado, se organizaron varios trenes con refugiados y milicianos con dirección a Zumaia. Antes de abandonar la ciudad costera de Zarautz un grupo de milicianos de la CNT incendió el ayuntamiento que quedó totalmente destruido.

Por su parte las autoridades republicanas de la provincia, tras acordar la evacuación de San Sebastián ante el avance de las tropas sublevadas, también habían tomado la decisión de trasladarse a Zumaia. Ya antes, las autoridades provinciales y las milicias del Frente Popular habían decidido establecer en Zumaia la Comisaría Provincial de Abastos, encargada de gestionar los recursos alimenticios necesarios para el sostenimiento, tanto de los soldados y milicianos en el frente, como de la población civil en retaguardia. La elección de Zumaia se debió a su relevancia estratégica, por contar con un puerto marítimo, y ser al mismo tiempo cruce ferroviario donde convergían las líneas de Donostia, Eibar o Zumarraga. El edificio de la antigua alhóndiga fue el elegido para servir de almacén a los víveres gestionados por la comisaría, que serían requisados -y saqueados- a la entrada de las tropas del general Mola en Zumaia.

A lo largo del mes de septiembre, la proximidad del frente fue acrecentando la presión sobre Zumaia. El 12 de septiembre, la comandancia del Ejército Vasco en Azpeitia ("Euzko-Gudaroztea - Buruzagitza") nombra delegado de la comandancia del puerto de Zumaia a Hilario Burgaña Belaustegui, con el consenso de todos los representantes políticos del ayuntamiento, siendo nombrados además diversos guardamarinas (Ander Esteibar, Justino Aizpurua, Tomás Urbietta, Eusebio Mendizabal, Rafael Manterola, Venancio Esteibar y Felipe Manterola). El puerto se convierte en el centro vital del abastecimiento de



ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Zumaiako Komisarian harrikatza eman ziezaioten, garraia zitzakeen tonen mugarekin, eta adierazi zuten “oraingoz ezinbestekoak dira 10 tona eta espero dugu hori guztia bihar herrira ekartzea beste bidaia batean”. Handik bi egunera, Elgoibarko horniduraren komisarioak bidali zuten bere ordezkari baimendua, Angel Arozena, 10 tona ikatzeko bidalketa eskatzera.

Gainera, irailaren 13tik 21era bitartean, kostaldeko herria izatez Gipuzkoa errepublikanoaren hiriburu bihurtu zen, izan ere, han ezarri baitzen Gipuzkoako Defentsa Batzordea, Gobernadore Zibilarekin eta Itsas Komandantziarekin batera. Erakunde hori, Gipuzkoan gerra deklaratu zenean probintziako aginte-istantziak ordeztu zituen, Donostian eratu zen 1936ko uztailaren 28an. Batzordea Miguel Amilibia diputatu sozialistak zuzentzen zuten, eta Errepublikari leial ziren alderdi guztietako ordezkariak eta UGT, ELA eta CNTko ordezkariak osatua zegoen. Defentsa Batzordea osatzen zutenen artean aipagarrienak Jesus Larrañaga buruzagi komunista, Telesforo Monzon abertzalea eta Guillermo Torrijos Donostiako zinegotzi sozialista ziren. Gerraren hasieran, gerrari zegozkion gai guztien (mili-ziak, armak, hornidurak, osasuna...) kudeaketa zentralizatzeke asmoz eratutako “gerra-komisarien” ondorengoa zen batzordea. Zumaia kostaldeko komisariaren barruan sartu zuten Zarautz, Deba eta Urolako beste herri batzuekin batera; hor, abertzaletasunaren eragin handiagoa-

las tropas en retirada en el frente gipuzkoano. El mismo 12 de septiembre llegó a Zumaia el vapor “Carmen”, fletado en Gijón con un cargamento de carbón. El 14 de septiembre, se personó un representante en nombre del Frente Popular de Osintxu, Soraluze, ante la Comisaría de Zumaia para que le fuese entregado carbón de piedra y galletas, con el límite de las toneladas que pudiera transportar, indicando que “ por el momento serán imprescindibles 10 toneladas y esperamos que mañana podamos traerlo al pueblo todo ello en otro viaje”. Dos días más tarde, es el comisario de abastos de Elgoibar el que envía a su representante autorizado, Ángel Arozena, a recabar el envío de 10 toneladas de carbón.

La localidad costera se convirtió además, entre el 13 y el 21 de septiembre, en la capital de hecho de la Gipuzkoa republicana al instalarse en ella la Junta de Defensa de la provincia (junto con el Gobernador Civil y la comandancia de Marina). Esta institución, que sustituyó a las instancias de poder provincial al declararse la guerra en Gipuzkoa, se constituyó en San Sebastián el 28 de julio de 1936. La Junta, presidida por el diputado socialista Miguel Amilibia, estaba formada por representantes de todos los partidos que se mantuvieron fieles a la República y por representantes de la UGT, STV y CNT. Entre los integrantes más destacados de la Junta de Defensa se contaban el dirigente comunista Jesús Larrañaga, el nacionalista Telesforo Monzón o el concejal socialista de San Sebastián Guillermo Torrijos. La junta era la sucesora de las “comisarías de



Arrangoletako zabaldura. Gerra zibilean eta gerraondan zehar destakamendu militarra egon zen tokia. / Fotografía del Ensanche de Arrangoleta. Durante la guerra civil y posguerra se ubicó el destacamento militar.

gatik, eratzeko atzerapena izan zen ezaugarri nagusia. Zumaian errepublikanoen pisu espezifiko nabari da, Union Republicanako Koldobika Ureta izendatu baitzuten lan-komisario.

Defentsa Batzordea Zumaian egon zenean, udalerekin ezarri zen, eta han bertan egin zen Gipuzkoako lurretako azken bilera. Manuel Chiapuso anarkistak, batzorde horretako kideak, honela gogoratzen du bilera hori bere memorietan:

Kide dezente falta ziren. Haien artean militarrek eta gobernadorea. Manuel Irujo izan zen giderra eskuetan zuena. Madrileko elkarrizketak azaldu zizkigun, Gobernuaren eta euskaldunen artekoak. Euskal Estatutua emana zegoen eta Parlamentuak berrestea soilik falta zen indarrean jartzeko. Denok ulertu genuen Euskal Herria beste fase politiko eta historiko batean sartzen zela. Beharbada emate berantiar honekin euskal herriak faxismoari aurre egiteko eta Espainia federalistako zutabe bat izateko beharrezko indarrak aterako zituen bere barren-barreketik, euskaldun guztiok justiziarekiko eta askatasunarekiko horrenbesteko maitasunagatik harrotzen ginenez. Ataka gaiztoan geunden. Eskatzen zitzaigun sakrifizioa une kritiko batean ordaintzen ziguten Estatutuarekin. Maila emango al genuen? Bilbo bazela gogoratu zen Madril. Zapaltzaile izatetik ez ziren soilik solidario bihurtu, nolabait agintea uzten ziguten. Une horretatik gure hizkuntza eta gure bihotza penintsulak onartutako errealtate historiko batean txertatu ziren. Beharbada orain geure bertigoaren aurka babestu behar genuen, agian, horrenbeste maitatzeagatik gure herria suntsitzera eramango gintuen bertigo³⁷.

Parte-hartzaile batzuek agerian jartzeaz gain Donostia husteko erabakiak "elementu jarraitzaileen artean sortutako izugarriko atsekabea eta etsipen handia", Batzordeak garrantziko neurri batzuk hartu zituen. Lehenengoa, Defentsa Batzordeak txartelak jaulkitzeko xedea zuen, eguneroko dirua ordezkatzeko asmoz, baina diru gutxi zegoenez, asmo hori albo batera uztea erabaki zuten. Gerra-egoera ikusita, eta Gipuzkoa okupatua izateko aukera zegoenez, Bizkaiko bankuek uko egin zioten Defentsa Batzordeak zirkulazioan jartzea pentsatzen zuen txartelei balioa emateari. Bestalde, Zumaian egin zen Batzordearen azken bilera, edo ziurtasunez dakigun azken behintzat; Gipuzkoan jasandako porrota ikusita, euskal gobernu bat eratzearen alde egin zen eta herria husteko arrazoitzat eman zituzten munizioen gabezia eta defendatzaileen adorea eskasa; horren harira Gerra ministeriotik jasotako oharrak jarraitu zituzten:

Plaza etsaien esku erortzea saihetsezina dela uste baduzu, saia zaitez armak eta garnizioa oso-osorik salbatzen, defentsa metodikoa egiteko, eta atera ezazu populazioa modu mailakatuan, ziurtasunez, eta ahalik eta motelenez Bizkairantz atzera eginez. Egunero bidaliko dira munizioak. Uste osoa izan dezagun etorkizuneko

guerra" que se habían creado al comienzo de la guerra, con objeto de centralizar la gestión de todo lo referido a las cuestiones bélicas (milicias, armas, abastecimientos, sanidad...). Zumaia había quedado integrada en la comisaría de la costa, junto con Zarautz y Deba y otros pueblos del Urola, donde por la mayor influencia del nacionalismo, la tónica dominante había sido la tardanza en su constitución. En Zumaia se aprecia el peso específico de los republicanos, al ser nombrado comisario de trabajo Koldobika Ureta, perteneciente a la Unión Republicana.

Durante la presencia en Zumaia la Junta de Defensa se asentó en el ayuntamiento, donde realizaría la última reunión en territorio gipuzkoano. El anarquista Manuel Chiapuso, miembro de esta junta, recuerda en sus memorias cómo fue esta reunión:

Faltaban bastantes miembros. Entre ellos los militares y el gobernador. La voz cantante la llevó Manuel Irujo. Nos explicó las conversaciones de Madrid entre el gobierno y los vascos. El Estatuto Vasco ya estaba concedido y sólo faltaba la ratificación del Parlamento para que entrara en vigor. Todos comprendimos que el País Vasco entraba en nueva fase política e histórica. Quizás con este otorgamiento tardó el pueblo vasco sacar de la entretela las fuerzas necesarias para combatir al fascismo y ser un puntal en la España federalista por el amor de la justicia y de la libertad de que tanto nos gargarizábamos todos los vascos. Estábamos en la estacada. El sacrificio que se nos pedía nos lo pagaban en un momento crítico con el Estatuto. ¿Estaríamos a la altura? Madrid se acordaba de la existencia de Bilbao. De opresores se volvían no ya solidarios, sino que nos dejaban un tanto las riendas. Desde ese instante nuestra lengua, como nuestro corazón, se incrustaban en una realidad histórica, aceptada por la península. Quizás ahora tendríamos que defendernos contra nuestro propio vértigo que nos llevaría, quizás, a destruir el país de tanto quererlo³⁷.

Además de hacerse patente, por parte de algunos asistentes, "el enorme disgusto y una gran desmoralización en los elementos adictos" causada por la decisión de evacuar San Sebastián, La Junta adoptó una serie de medidas de importancia. La primera de ellas fue el abandonar la pretensión de la Junta de Defensa de emitir vales con la intención de sustituir al dinero de curso corriente, debido a la escasez de este. Ante la situación bélica, y la posibilidad de que Gipuzkoa fuese ocupada, los bancos de Bizkaia se negaron a dar validez a los vales que pretendía poner en circulación la Junta de Defensa. Por otra parte en Zumaia se celebró la última reunión de la Junta, o al menos la última de la que tenemos constancia, en la que ante el fracaso experimentado en Gipuzkoa se abogaba por la constitución de un gobierno vasco y se justificaba la evacuación ante la falta de municiones y la escasa moral de los defensores, siguiendo igualmente las indicaciones que a este respecto había recibido del ministerio de la Guerra:

Si considera inevitable caída plaza en poder enemigo, procure salvar íntegramente armamento y guarnición para realizar defensa metódica y escalonando fuera población asegurando retirada lo más lenta posible en dirección Vizcaya. Diariamente

³⁷ CHIAPUSO, Manuel; Los anarquistas y la Guerra de Euzkadi. *La Comuna de San Sebastián*. Donostia, Txertoa, 2003, 281. or. / CHIAPUSO, Manuel; Los anarquistas y la Guerra de Euzkadi. *La Comuna de San Sebastián*, Donostia, Txertoa, 2003, p. 281.

garaipenetan, behin betiko ordaina hartzeko. Gora Errepublikak!

Gerra Ministerioko Estatu Nagusiko Buruak Gipuzkoako Komandante Militarri (1936ko irailak 12a).

Dagokigun kasuan, tropa errepublikanoen atzera egiteko prozesua irailaren 21ean amaitu zen, Zarautz, Getaria eta Zumaia herriak okupatu zituztenean. Egun bat lehenago, berehala eroriko zirela eta, Zumaia komisariak eskatu zion Garraio sailari "lau tonako kamioi batez hornitu zitzala, merkantziak eta mekanikoa garraiatu ahal izateko" portuko elementuak Saturrarana eta handik Gernikara eramateko. Borrokak dagoeneko ez ziren urrun samarreko albisteak, errealitate mehatxatzailea baizik. Herritarrak beren burua eta beraien familiak berehalako arriskutik babesteko prestatu ziren.

«Aldaban ere etorri zitzaizkigun etxea abisatzea gorriak eta zuriak bueno, gorriak zeudela Olamendin, Aldaban tirotea izango zala», gogoratzen du Angeles Arozenak, «ta gu tarten arrapatzen ginun nunbait eta goizeko bostak eztaikit ze ordu zan, amakin jun ginan gu beste baserri batea, Lopetegira, urrutiko zea batea, eta nik usten det izango ginela, bestiak umiak izango ziren, beste bi ahizpak, hiru ahizpa gea segido, beste bi ahizpak txikiak izango ziren, baina ni kontuatzan naiz nolakua zan; jata zikina bidian ta joan ginen amakin, amona eta aita geratu zian lehion koltxoia jarrita balak ez pasatzeagaitik ikullun».

te se enviarán municiones. Confiamos todos próximo triunfo que permita desquite definitivo. ¡Viva la República!

Jefe de Estado Mayor del Ministerio de la Guerra a Comandante Militar de Guipúzcoa (12 de septiembre de 1936).

El proceso de retirada de las tropas republicanas culminaría, para el caso que nos ocupa, cuando el día 21 de septiembre fueron ocupadas las localidades de Zarautz, Getaria y Zumaia. Un día antes, ante la inminencia de la caída, la comisaría de Zumaia había pedido a la sección de transportes la provisión de "un camión de cuatro toneladas para el transporte de mercancías con su mecánico", para llevar elementos del puerto a Saturrarán, y de allí a Gernika. Los combates ya no eran una noticia más o menos lejana, sino una realidad amenazante. Los vecinos se prepararon para defenderse y defender sus familias del inminente peligro.

“En Aldaba también nos vinieron a avisar los rojos y los blancos, que había rojos en Olamendi, que en Aldaba habría tirotea”, recuerda Ángeles Arozena “y a nosotros nos pillaba en medio y a las cinco de la mañana o no sé qué hora era, nos fuimos con la madre a otro caserío, a Lopetedi, a un esto lejano, y yo creo que seríamos, los demás serían críos, las otras dos hermanas, somos tres hermanas seguidas, las otras dos hermanas serían pequeñas, pero yo me doy cuenta de cómo era; el camino estaba sucio y fuimos con la madre, la abuela y el padre se quedaron con los colchones puestos en las ventanas de la cuadra para que no pasaran las balas”.



Ekitaldi erlijioso eta militarra, 1936ko irailaren 21ean Zumaia hartu zutenean. / Acto religioso y militar de la toma de Zumaia, el 21 de Septiembre de 1936.



Ekitaldi politiko eta militarra udaletxearen aurrean, 1936ko irailaren 21ean Zumaia hartu ondoren. / Acto político y militar a la entrada del ayuntamiento tras la toma de Zumaia, el 21 de septiembre de 1936.



Erreketekak Zumaiaiko portuan, 1936ko irailaren 21ean. / Requetés en el puerto de Zumaia, 21 de septiembre de 1936.



21 de septiembre de 1936, requetés en el cruce de Muniosoro Oikia. / Erreketekak Oikiako Muniosoroko bidegurutzean, 1936ko irailaren 21ean.



Erreketek Zestoan, 1936ko irailaren 21ean. Zumaian sartu ostean, Zestoa operazio-basetzat jarri zuten, eskualde osoa kontrolatzeko. / 21 de septiembre de 1936, requetés en Zestoa. Una vez tomada Zumaia, Zestoa fue utilizada como base de operaciones para controlar toda la zona.

Mola jeneralaren armadako lehenengo zutabeak José Iruretagoyena Solchaga koronela buru zutela etorri ziren; aurrez, uztailaren 18an, bere borondatez Iruñeko gobernu militarren aurrean aurkeztu ondoren, Gipuzkoako kostaldea erasotzeko ardura zuten zutabe-multzoaren agintea jaso zuen. Nafarroako Tertioko erreketek hartu zuten Zumaia, Iruretagoyena beraz gain, Cayuela eta Latorre buru zituztela. Gerran bizitako lehenengo irudietako bat izan zen hura eta, hamarkada asko igaro arren, zumaiar askok gogoan zuten oraindik:

Bai. Nola etorri zian. Gu lanian ari giñun eta Oikiatik goitik behera etorri hittuan karlistak. Haiek etorri zianian gure baserrian bi anai ixkutatu ein ittuan, beste anaia, Joxemai, hasieratik jun huan boluntario. Beste anai bat frankistak soldau eaman zien. Eta hura gerran kamiñero ibili huan. Oriamendin. Gerra garaian hiru zumaiar azaldu hittuan gure baserrira permisuakin-edo eta mendira jun hituan eskopetakin ehizea. Guk mendian txabola ginian, oiluena, eta gure ama zanak han zaben oilorik ederrenak hartu zitian haientzat. Gau hartan hauek Frantzira jutia pentsatu zien. Geo, uste diat bidian bi harrapatu eta batek ospa ein zula, baina ez zekit ondo³⁷.

Nik orduan hamabi urte nizkan, tropak sartu zianian, nazionalak deitzen zianak, gu neska koskorrak, soldau

Las primeras columnas de las tropas del general Mola vinieron comandadas por el coronel José Iruretagoyena Solchaga, que tras haberse presentado voluntariamente ante el gobierno militar de Pamplona el 18 de julio, había recibido el mando de la agrupación de columnas encargadas de atacar la costa de Gipuzkoa. Zumaia sería tomada por requetés pertenecientes al Tercio de Navarra, comandadas -además de por el propio Iruretagoyena- por Cayuela y Latorre. Fue aquella una de las primeras imágenes vívidas de la guerra que muchos zumaiarraz siguieron recordando muchas décadas después:

Sí. Como vinieron. Nosotros estábamos trabajando y los carlistas vinieron desde Oikia. Cuando vinieron, se escondieron dos hermanos en nuestro caserío, el otro hermano, Joxemai, se fue voluntario desde el inicio. Otro hermano lo llevaron soldado los franquistas. Y aquel anduvo de caminero en la guerra. En Oriamendi. Durante la guerra aparecieron tres zumaiarraz a nuestro caserío con permiso, y se fueron al monte a cazar con la escopeta. Nosotros teníamos una choza, para las gallinas, en el monte, y nuestra difunta madre cogió las mejores gallinas para ellos. Aquella noche pensaron ir a Francia. Después, creo que los atraparon en el camino y uno de ellos se escapó, pero no lo sé bien³⁷.

Yo entonces tenía doce años, cuando entraron las tropas, las que se llamaban nacionales, nosotras unas mozas, andá-

³⁸ Joxe Etxabe Udabe "Joxe Bittarte"ren testigantza / Testimonio de Joxe Etxabe Udabe "Joxe Bittarte".

tartian eta danian ibiltzen ginan. Hamen, matadei atzeko antxoia fabrikan, bakailuak ziben. Fabrikako nausiak tropak zetozela-ta ihes eingo zuten, nunbait, Frankistak oaindik etortzeko zeuden eta inor gabe geatu zan fabrika. Ateak irekita. Bakailo pila zeon eta jende dana bakailao bila jun ginan. Nik bi bakailao hartu nittun, pozik, etxera eamateko. Han zebilen Eustakio Karrakolok, hau Joxun laguna zan, esan zian: "Aizan, ba al dakin zer eingo denen? Hamendik asko hartuko diñau eta hoa etxera zaku bila. Etorri zakuakin eta bitartean nik gordeko ditiñat"³⁹.

Okupazioaren aurreko orduak biziak izan ziren. Portua ihes egiteko puntua bihurtu zen, ez soilik zumaiarrentzat, baita Gipuzkoako beste leku batzuetatik etorritako errefuxiatuentzat ere. Ebakuazioak gauez izan ziren, biztanle zibilak etengabe ateraz. Zumaiaiko portutik itsasontzi asko abiatu ziren armada errebeldearen zaintzatik ihesi gaueko iluntasunaren babesean.

bamos incluso entre los soldados. Aquí, en la fábrica de anchoas de detrás del matadero, había bacalaos. Los dueños de la fábrica huirían por que venían las tropas, y al parecer, los franquistas no habían llegado todavía y la fábrica se quedó sin nadie. Con las puertas abiertas. Había mucho bacalao y toda la gente en busca de bacalao. Yo cogí dos bacalaos, toda contenta, para llevármelos a casa. Eustakio "Karrakolo", amigo de Joxu, andaba por allí y me dijo: "Oye, ¿sabes lo que vas a hacer? Vamos a coger mucho de aquí y vete a casa a por sacos. Ven con los sacos y yo mientras los guardaré"³⁹.

Las horas anteriores a la ocupación habían sido febriles. El puerto sirvió como punto de escape para una masiva ocupación, no solo de zumariarras sino de refugiados procedentes de otros lugares de Gipuzkoa. Las evacuaciones se produjeron durante las noches, con una constante salida de población civil. Del puerto de Zumaia zarparían numerosas embarcaciones, huyendo de la vigilancia de la armada rebelde amparadas en las sombras de la noche.





Erreketek Zestoako bainuetxean, 1936ko irailaren 21ean, Zumaian sartu ostean. Base moduan erabili zuten. / 21 de septiembre de 1936, requetés en el balneario de Zestoa. Tras la toma de Zumaia, el balneario fue utilizado como base operativa.

³⁹ Irene Yeregui Saleguiuren testigantza / Testimonio de Irene Yeregui Salegui.

Tropa frankistak sartu aurretik Zumaia alde egindakoen zerrenda
Relación de huidos de Zumaia antes de la entrada de las tropas franquistas

Table with 3 columns listing names and family details of refugees from Zumaia before the arrival of Francoist troops. Includes names like Aguirre Aguirre, Narcisa; Arratibel Zubia, Esther; Manterola Aizpurua, María, etc.




ZUMAIA 1936-1945


Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo



Zumaiaiko zubi txikia lehortarazi zuten milizia errepublikanoek, matxinatutako tropen aurrerakada oztopatzeko asmoz. 1936ko irailaren 20an egin zuten leherketa. / Voladura del "puente pequeño" de Zumaia por las milicias republicanas, con intención de obstaculizar el avance de las tropas sublevadas. 20 de septiembre de 1936.



Zumaiaiko zubi txikiaren berreraikuntza. / Reconstrucción del "puente pequeño" de Zumaia.



“Zubi txikiaren” leherketaren aurrean, Altxamenduko Jarraitzaileek lurrin makinak erabili zituzten ibaia gurutzatzeko / Ante la voladura del “puente pequeño”, los sublevados juntan los vapores en la ría para pasar.

Atzera-egite guztietan oso ohikoa da zubiak dinamitz leherraraztea, etsaien tropei aurrera egitea zailtzeko. Hori bera gertatu zen Zumaian ere; horrela, Getariatik zetozen Frankoren tropei igarotzea atzeratu nahi zitzairen. Zumaian leherketan parte hartu izanaz salatu zuten Julian Antia portuko gidaria. Dinamitatzaileak atzeguardiako azken taldea izaten ziren. Horiak leherrarazi zuten Zumaia zubi txikia. Haietako gehienak Gallartako meatze-arrokoak eta Asturiaskoak ziren, eta ohituak zeuden dinamitarekin lan egiten. Zubia leherrarazi zutenean ez zen errepublikanorik, ez abertzalerik geratzen Zumaian. Dena den, matxinatuak tropak nahiko erraz sartu ziren herrian.

Hurrengo egunean Cayuelaren tropek Zumaia utzi eta Debarantz jo zuten; irailaren 22an okupatu zutenean, Mutriku erasotzeko asmoa zuten, baina errepublikanoen ontzidiko Jaime I, Cervantes eta Libertad gerraontzien bonbardaketek atzeratu egin zuten kostaldeko aurrera egitea. Dena den, urriaren 4an amaitu zuten Gipuzkoa okupatzen, Bizkaiko mugatik gertu dagoen Mutrikuko Gurutze Santuaren ermita hartu zutenean⁴⁰.

En toda retirada, es muy frecuente que se dinamiten los puentes para proceder a su voladura, con el fin de obstaculizar el avance de las tropas enemigas. Esto mismo ocurriría también en Zumaia, con ello se quería retrasar el paso de las tropas de Franco que venían de Getaria. En Zumaia fue acusado de tomar parte en la voladura el práctico portuario Julián Antia. Los dinamiteros solían situarse como el último grupo de la retaguardia. Estos fueron los que procedieron a la voladura del puente pequeño de Zumaia. La mayoría de ellos procedían de la cuenca minera de Gallarta y de Asturias, y estaban habituados en el manejo de la dinamita. Cuando volaron el puente no quedaban republicanos, ni nacionalistas en Zumaia.

Al día siguiente las tropas de Cayuela abandonan Zumaia y se dirigen a Deba que es ocupada el 22 de septiembre con la intención de atacar Mutriku, sin embargo el bombardeo de los buques de la escuadra republicana “Jaime I”, “Cervantes” y “Libertad” retrasan el avance por la costa que se completó el 4 de octubre con la ocupación de la ermita de Santa Cruz, en las inmediaciones de Mutriku en el límite entre Gipuzkoa y Bizkaia⁴⁰.

⁴⁰ BARRUSO, Pedro; “Verano y revolución. La Guerra Civil en Guipúzcoa”, *Gipuzkoa 1936*, webgune honetan eskura: <http://www.gipuzkoa1936.com/verano3.php>, 2017ko abuztuaren 30ean kontsultatua. / BARRUSO, Pedro; “Verano y revolución. La Guerra Civil en Guipúzcoa”, *Gipuzkoa 1936*, disponible en <http://www.gipuzkoa1936.com/verano3.php>, consultado el 30 de agosto de 2017.

3.2. BIZKAIRANTZ

Hemen Gipuzkoan tomak hasi zianean guk galdatzen gendun, eta oain zer?, bildurrez. Gero, Irun hartu zutenean, akabo. Gero Donostixa hartu zuten eta handik aurrera guk ospa. Hemen bi barko hartu giñuzen, Marco eta Delfina, eta jota, hemendik Ondarruraino jun ginan. Erreparazixora etorritako barkuak zian hauek. Ondarrutik Laredora jun ginan eta handik Bilbora. Bilbotik frentera. Zumaia, Ondarroa, Laredo eta Bilbo orduan. Bai. Zumaixan ebakuazixua etorri zanean, alondegixan tabako asko zeon eta dana partitu ein zan. Nahi zunak nahi zuna. Barkuetan, berriz, bakailao asko geratu zan eta almagazatu ein zan gero partitzeko. Gero, hauek sartu behar zutenian, gu Ondarrura⁴¹.

Donato Bidasorok gogoan ondo zuen moduan, zehaztu gabeko biztanle-kopuruak alde egin zuen herritik, itsaso eta lurrez, Bizkairantz eta Frantziarantz, tropa matxinatuak iristear zeudela eta; horrela, bat egin zuten aurreko hila-beteetan Zumaiatik igarotzen ikusi zituzten errefuxiatu-oldeekin. Jontxu Altzibarrek ere gogoan du nola frankistak sartu aurretik "jende askok ospa ein zian. Beste herrietan gertatu zen bezalaxe"⁴². Udaletxean kontserbatu diren garbiketa-txostenetan Zumaia "utzi zuten" pertsona moduan agertzen dira katalogatuta (frankistek herria konkistatu zutenean kanporatutakoetatik bereizteko; geroago hitz egingo dugu horiei buruz). Ez da posible, exodoaren baldintza bereziengatik, une hartan zehazki zenbat zumaiarrek ihes egin behar izan zuen jakitea, baina dena den, 272 pertsona ditugu katalogatuta. Gerraren ondorio kaltegarrien artean erbestea elementu garrantzitsua (eta, geroago ikusiko dugun moduan, une batzuetan baita errepresiorako bide ere) izan zela adierazten diguten zeharkako bitartekoak ditugu; izan ere, biztanle-erroldeetako datuak kontuan hartuta bada-kigu, Zumaiako biztanleen kopurua ia ez zela aldatu 1930 eta 1940 urteen artean. Gainera, horri gehitu behar zaio, lehenengo erbesteratze hori ez zela huste antolatua eta sistematikoa izan, baizik eta korrika eta presakako ihesa, Molaren tropak herria hartzeaz zeudelako eta errefuxiatuen beldurrak eragindakoa.

"Ez zekiagu zer egin. Erropa danak preparatuta eta ez zekiagu nora jo. Estazixora jo edo nora jo. Inork ez ziguk ezer esaten-eta. Nahi al dezue nirekin etorri?, nik. Eta haixek: Nora? Honela eta honela, motorrean. Goazen!!, haixek. Hura poza hartu zutena! Benito eta danak hartu, motorrian sartu eta Lekeitiora"⁴³.

Altxatako armadaren aurrerakadaren eta gerra-fronteko baldintza geografikoen ondorioz, errefuxiatuek helburu bakarra zuten: Bizkaia, Errepublikari leialak zirenen eskuetan jarraitzen zuena:

Zumaitik Lekeitiora jun gitxuan lehenbizi. Auguston-eta aitta familixakin eta gu. Ni orduan haserre nitxuan arreba-

3.2. HACIA BIZKAIA

Cuando empezaron aquí en Gipuzkoa a tomar los pueblos, nosotros nos preguntábamos con miedo: ¿y ahora qué? Después, cuando tomaron Irún, se acabó. Después tomaron Donostia, y a partir de entonces nos escapamos. Aquí tomamos dos barcos, Marco y Delfina, y desde aquí fuimos hasta Ondarroa. Eran barcos que habían traído para reparar. De Ondarroa fuimos a Laredo, y de allí a Bilbao. De Bilbao al frente. Entonces Zumaia, Ondarroa, Laredo y Bilbao. Sí. En Zumaia, cuando llegó la evacuación, había mucho tabaco en la alhóndiga y se repartió todo. El que quería, lo que quisiera. En cambio en los barcos quedó mucho bacalao, y se almacenó para luego repartirlo. Después, cuando estos iban a entrar, nosotros a Ondarroa. Para cuando volvisteis de Laredo a Bilbao el Gobierno Vasco...⁴¹.

Como bien recordaba Donato Bidasoro, un número indeterminado de habitantes abandonarían la villa ante la llegada de las tropas en dirección a Bizkaia y Francia por vía terrestre y marítima, uniéndose a las oleadas de refugiados que en los meses anteriores habían visto pasar por Zumaia. Jontxu Altzibar también recuerda cómo antes de la entrada de los franquistas "jende askok ospa ein zian. Beste herrietan gertatu zen bezalaxe"⁴². En los expedientes de depuración que se conservan en el ayuntamiento aparecen catalogados como personas que "abandonaron" Zumaia (para diferenciarlos de los expulsados tras la conquista de la villa por los franquistas, de los que luego hablaremos). No es posible, por las especiales condiciones del éxodo, cuantificar el número preciso de zumaiarres que tuvieron que huir en este momento, aunque en todo caso tenemos catalogados 272 personas. Si bien existen medios indirectos que nos permiten apuntar a que el exilio fue un elemento relevante entre las consecuencias negativas de la guerra -y, como veremos posteriormente, también en determinados momentos un medio de represión-, ya que sabemos la población de Zumaia permaneció casi estable entre 1930 y 1940 según los datos de los censos de población. Se une a esto, además, el hecho de que este primer exilio no se trató de una evacuación organizada y sistemática, sino de una huida precipitada ante el temor por la situación personal de los refugiados cuando las tropas de Mola estaban por ocupar la villa.

"No sabemos qué hacer. Todas las ropas preparadas y no sabemos a dónde ir. Ir a la estación o a donde. Porque nadie nos dice nada." "¿Queréis venir conmigo?" les dije yo. Y ellos: "¿A dónde?" Así y así, en motora. "¡¡Vamos!!", ellos. ¡Menuda alegría se llevaron! Cogier a Benito y a todos, meterlos en la motora y a Lekeitio"⁴³.

El propio avance del ejército sublevado y los condicionamientos geográficos del frente de guerra hicieron que, sin embargo, los refugiados se concentraran en un solo destino: Bizkaia, que seguía en manos de las fuerzas leales a la República:

Primero fuimos de Zumaia a Lekeitio. El padre de Augusto con la familia, y nosotros. Yo, entonces, estaba enfadado con

⁴¹ Donato Bidasoro Iraundegiren testigantza / Testimonio de Donato Bidasoro Iraundegi.

⁴² Jontxu Altzibar Eizagirren testigantza. / Testimonio de Jontxu Altzibar Eizagirre.

⁴³ Trini Bidasoro Blascoren testigantza. / Testimonio de Trini Bidasoro Blasco.

kin. Etxe aldean batzuetan izaten ittuk, ba, kontuak. Ezkondu berrixa nittuan eta haserreren bat nitxikan arrebakin. Ez nian hitz egiten. Bueno, hitz egin juxtuan kalia, baina beste ezer ez. Moilara jun nitxuan, herritik erten nahian. Txaletian nitxuan eta txaletian andria, honen ahizpa, anaixa eta ama zibeztian. Eta gure aitta itsasoan. Gizona itsasoan, eta nik: Oain zer ein behar det? Moila aldera jun eta, zer berri da hamen? Jendia baziaketa.

Esteban eta Auguston-eta aitta han zibeztian. Nere andria iloba zien hauek. Zer?, nik. Gu bagoaz, haixek. Nora?, nik. –Oain behinpehin Bizkai aldera, noabaitea ihesi. Bixar zetozik hauek. Gaur gabian edo bixar goizian sartuko ittuk, Donostixan ja sartu ittuk- eta.

–Noiz jun behar duzue?

–Goizeko hirurak baino lehen. Plemaa orduan dek eta alde ein behar diagu. Oain Bizkai aldera, gero ikusiko diagu nora. Handik Ameriketa-edo. Jo! Hura bai zala! Ni neure kabuz pentsatzen: Auskalo nora jun behar deken gero, Joxe Manuel!⁴⁴.

“Oain Bizkai aldera, gero ikusiko diagu nora”. Joxe Manuel Manterolak ihesean zihoala izandako pentsamendu horiek profetia bat ziruditen, neurri handi batean. Izan ere, haren kasuan, beste askorenean bezala, erbeste latz eta mingarriaren lehenengo etapa Bizkaikoa izan zen.

Motorra larrilari, honela-honela jun huan. Eta motor haundixa huan, e? Eskerrak itsaso ona zeon. Baina, Lekeitiora ailegatu eta ez ziguen laga desenbarkatzen. Txurrerua ere gurekin huan andregaixakin. Goizeko hiru t'erditan-edo ailegatu eta hangoak: Geldi! Geldi! Han moilan sare tartian laga giñuzten. Eon hortxe! Geldi! Goizeko zortzirak aldian gizon bat, oso kurioa, urdinez jantzita, 35-40 urtekoa, zeintzu ginan galdetu ziun. Arreba Maria, moilara erten eta honela eta honela leku bila ari ginala. Orduan gizon honen itsasoko pilotua zala esan zioan. Hura mobilizatu ein zutela, baina ama zaharra zeukala itxian eta konfiantzazko lagun bat behar zula hura zaintzeko. Mariak ahizpa ere ba zeukala. Eta hark, bueno, hura ere juteko. Biaje txiki bat zeukala eitoko eta segituan eingo zula buelta.

Diruak ahitzen ari zian bezela beste norabaitea jun behar eta nire andriak parienteak bazituzen Bilbon, Llano-nekuak, hara jo ginien. Jakin ginien non bizi zian eta arrebarena jun gitxuan. Hara! Oaintxe etorri dek kapitaina eta ni ere banatxiak zuekin. Hala, jun gaittuk Llanoneko horretara eta han, ea gu zeintzu ginan, eta, nola dian kontuak!, Llano hark Zumaira abixua pasatuta zian guri zerbait pasa ezker, hara, beaixen txaletera juteko. Kasualidadia! Han eon gitxuan egun batzuetan eta gero Bilbon zapatero lana bilatu ginien⁴⁵.

Gerra amaitu zen Zumaian, ia hasten ari zenean. Baina zumaiarrentzat, ondorioak hasi besterik ez ziren egin. Batzuentzat, gerra laster amaitu zen: gutxienez 20 zumaiar hil ziren gerrako euskal fronteko borroketan. Hauek dira haien izenak:

la hermana. Ya sabes como suelen ser las cosas en casa, a veces. Estaba recién casado y estaba enfadado con la hermana. No nos hablábamos. Bueno, hablarnos justo-justo en la calle, pero nada más. Me fui al muelle, quería salir del pueblo. Estaba en el chalet, y en el chalet estaban la mujer, su hermana, el hermano y la madre. Y nuestro padre en el mar. El hombre en el mar, y yo: “¿Qué voy a hacer ahora?” Me fui hacia el muelle y: “¿Alguna novedad aquí? Es que la gente ya se va.

El padre de Esteban y Augusto estaba allí. Mi mujer era sobrina de estos. “¿Qué?” les dije. “Nosotros nos vamos”, ellos. “¿A dónde?”, yo. “Ahora por lo menos hacia Bizkaia, a escapar a algún sitio. Estos llegan mañana. Entrarán esta noche o mañana por la mañana, por qué ya han entrado en Donostia.”

–“¿Cuándo os vais?”

–“Antes de las tres de la mañana. La pleamar es entonces y nos tenemos que marchar. Ahora hacia Bizkaia, después ya veremos a donde. De allí a América o... ¡Jo! ¡Aquello sí que era! Yo pensando para mí mismo: “¿A saber dónde vas, Joxe Manuel!”⁴⁴.

“Oain Bizkai aldera, gero ikusiko diagu nora”. Estos pensamientos de Joxe Manuel Manterola en su huida parecerían, en gran medida, tener el don de la profecía. En su caso, como ocurrió con otros muchos, el camino hacia un exilio duro y doloroso tendría su primera etapa en Bizkaia.

La motora justo justo, andaba así así. Y era una motora grande, ¡eh! Menos mal que había buena mar. Pero llegamos a Lekeitio y no nos dejaron desembarcar. El churrero y su novia también iban con nosotros. Llegamos hacia las tres y media de la madrugada y los de allí: “¡Alto! ¡Alto!” Nos dejaron allí en el muelle entre redes. “¡Quedaos ahí! ¡Quietos!” Hacia las ocho de la mañana un hombre, muy curioso, vestido de azul, de unos 35-40 años, nos preguntó quiénes éramos. Nuestra hermana María salió al muelle y le explicó que buscábamos sitio. Entonces ese hombre le dijo que era piloto de mar. Que lo había movilizado, pero que tenía una madre anciana en casa y necesitaba a alguien de confianza para cuidarla. María le dijo que también tenía una hermana. Y él le dijo, que bueno, que fuera ella también. Que tenía que hacer un pequeño viaje y que vendría en seguida.

En cuanto se nos acababa el dinero teníamos que ir a otro sitio, y como mi mujer tenía parientes en Bilbao, de los de Llano, fuimos allí. Supimos donde vivían y fuimos donde la hermana. “¡Huy! Acaba de venir el capitán, y yo también me voy con vosotros. Así, fuimos donde los de Llano, y allí, que quienes éramos nosotros y, ¡como son las cosas!, aquel Llano había mandado un aviso a Zumaia que si nos ocurría algo a nosotros que fuéramos a su chalet. ¡Qué casualidad! Allí estuvimos unos días y luego encontramos trabajo de zapatero en Bilbao⁴⁵.

La guerra había terminado en Zumaia, casi cuando estaba empezando. Pero sus consecuencias para la población no habían hecho sino empezar. Para algunos, la guerra terminaría pronto. Al menos 20 zumaiarres fallecieron en combate mientras la guerra se desarrollaba en el frente vasco, siendo sus nombres los siguientes:

⁴⁴ Joxe Manuel Manterola Aizpuruaren testigantza. / Testimonio de Joxe Manuel Manterola Aizpuru.

⁴⁵ Joxe Manuel Manterola Aizpuruaren testigantza. / Testimonio de Joxe Manuel Manterola Aizpuru.

Gerrako frontean borroketan hil ziren zumaiarrak **Relación de muertos en combate de Zumaia**

Aizpurua Aizpurua, José Luis. Durangoko gudan hilda 1936ko urriaren 4ean / Muerto en combate en el frente de Durango el 4 de octubre 1936.

Aizpurua Chapartegui, Manuel. Mungiako frontean hilda 1937ko maitzaren 12an / Fallece en el frente de Mungia el 12 de mayo de 1937.

Albizu Aizpurua Josu. Urkiolako frontean hilda / Fallece en el combate en el frente de Urkiola.

Arrizabalaga Olaizola Iñaki. Artxandako frontean hilda 1937ko maitzaren 7 an / Falleció en Artxanda el 7 de mayo de 1937.

Cearreta Urruzano Ramón. Frontean hilda 1937ko maitzaren 5ean / Fallece en combate el 29/05/1937.

Echave Michelena Pedro José. Legutioko batailan hil zen, Bilboko 2. Erregistro Zibilaren arabera, 1936ko abenduaren 1ean / Fallece en la Batalla de Villarreal según el Registro Civil nº 2 de Bilbao el 01/12/1936.

Egiño Araquistain Santiago. Eusko Gudarostean motor-gidari ibili zen; 1937ko martxoaren 12an, 35 urte zituela, Zornotzan lanean ari zela hil zen / 12 de marzo de 1937 falleció en acto de servicio en Zornotza a los 35 años, alistado en el Eusko Gudarostea como motorista.

Fernández de Arroyabe Eduardo. Asturiasko (Oviedo) frontean hil zen sukarren ondorioz, 1937ko otsai- laren 22an, 20 urte zituela / Fallecido en el frente de Asturias (Oviedo) el 22 de febrero de 1937 a consecuencia de fiebres, cuando tenía 20 años de edad .

Garate Lizarralde José María. Durangoko ospitalean hil zen, 1937ko otsailaren 24an, frontean jasotako zauriengatik / Fallecido en el hospital de Durango por heridas en el frente el 24/02/1937.

Trecu Egaña José Ignacio. Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen Amuategui batailoian. Muzketan hil zen, 1937ko apirilaren 22an / Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco formando en el batallón Amuategui. Muerto en Muzketa el 22 de abril de 1937.

Irigoyen Erquicia Antonio. Gerra garaian, Garraio sailean ibili zen eta gerora Itxarkundia batailoiko gudari izan zen. Brinkolan desagertua eta, beharbada, hila / Durante la guerra perteneció a la sección de transportes, y posteriormente como gudari en el batallón Itxarkundia. Desaparecido, y posiblemente fallecido, en Brinkola.

Jayo Beriguiristain José. Freneko fakturatzaila baimendua; errepresaliatua izan zen. Espetxetik irten zenean, suzko armaz hil zuten faroko bidean / Factor autorizado del ferrocarril, Fallecido cuando fue liberado de la cárcel por arma de fuego.

Echave Pedro José. 1920an Zumaian jaioa. Gerra Zibilean parte hartu zuen, gudari boluntarioa izan zen Eusko Gudarostean. Legutioko batailan hil zen / Nacido en 1920 en Zumaia. Falleció en la batalla de Villarreal. Gudari enterrado en Gernika.

Olaizola Echave José Martín. 19 urterekin Butroiko Gazteluaren aldamenen dagoen baserri batean lurperatu zuten / Enviado con 19 años al frente, murió en un bombardeo mientras se hallaba en el monte. Fue enterrado en un caserío situado en las cercanías del castillo de Butrón en Bizkaia.

Rodríguez Sala José. Gerra Zibilean ibilitako karabineroa. 1936ko abenduaren 2an hil zen / Carabinero que sirvió en la guerra civil. Falleció el 2 /12/1936.

Sagasti Aizpurua Sebastián. Bilboko Ospitale Zibilean hil zen gerrako zaurien ondorioz, 1937ko urtarrilaren 4an / Falleció en el Hospital Civil Bilbao el 1937/01/04 por lesiones de guerra.

Sanchez Aperribay Fermín. UGTko afiliatua. Boluntario ibili zen Gerra Zibilean, Gipuzkoako milizietan mobilizatuta. Frontean hil zen. / Afilado a la UGT. Tomó parte en la guerra civil como voluntario movilizado por Gipuzkoa formando en las milicias. Falleció en el frente.

Sarasqueta Ruiz Victor. Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen México batailoian. Fusilatu egin zuten Bilbon, 1938ko uztailaren 11n. / Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco dentro del batallón México. Fue fusilado en Bilbao el 11 de julio 1938.

Trecu Egaña José Ignacio. Muzketan hil zen, 1937ko apirilaren 22an / Fallecido en el frente de Muzketa el 22/04/1937.

Trecu Egaña Julián. Muzketan hil zen, 1937ko apirilaren 22an / Fallecido en el frente de Muzketa el 22/04/1937.

Uria Iparreguirre Tomas. Asturiaseko frontean hil zen 1937ko otsailaren 22an eta Gernikan lurperatu zuten / Fallece en el frente de Asturias el 22 /02/1937, enterrado en Gernika.

Zubia Echave José María. Gudaria, borrokan hil zen Sollube mendian, 1937ko maiatzaren 4an / Falleció en acción de guerra en el monte Sollube el 4 de mayo de 1937.

Gainerako gehienek, hurrengo urteetan, gerran zehar nahiz gerraoste hasieran, bizi izan zuten irabazleek abian jarritako politikaren gako bilakatu zen *errepresioa* hitzaren esanahia.

Para el resto, en los años siguientes, tanto durante la guerra como en la inmediata posguerra, muchos experimentarían lo que significa una palabra que entonces se convertiría en la clave de la política puesta en marcha por los vencedores: *la represión*.

3.3. LUBAKIAREN BESTE ALDETIK. ZUMAIARRAK ALDE NAZIONALEAN

Historia faltsutzen eta memoriari iruzur egiten ariko ginateke matxinatutako armadako lerroetan zumaiarrak ere izan zirela ezkutatuko bagenu. Kidetasunagatik, behartuta, interesagatik edo faktore horien guztien nahasketagatik sartuko ziren, baina, izatez, izan ziren. Iraganaren egiazko oroitzapena eta ulermena izateko, Zumaia gizartea, eta, oro har, euskal gizarte osoa osatzen zuten alderdi guztiak sartu beharra dauzkagu; izan ere, ikusi dugun moduan, aniztasun ideologiko handia zuen bere baitan eta, gainera, aniztasun hori intentsitate handiagoz azaleratuko zen dramatismo uneetan eta gerrak garrantzia hartu ahala.

Izatez, dagoeneko aipatu dugun moduan, Zumaia presentzia izan zuten aurreko hamarkadetan eta, noski, garai errepublikanoan, gerra hasitakoan matxinatuen alde egingo zuten indarrek, batez ere karlismoari lotutako taldeek; izan ere, Gipuzkoa osoan bezala, hemen ere karlismoak ezarpen handia izan zuen. Zumaia erretoea bera, Wenceslao Mayora, zenbait egilek ibilbide luzeko karlista beteranotzat identifikatzen dute; hain zuzen ere, Sanchez Erauskinek adierazten duen moduan, karlismoaren alde jarduteagatik saritua izan zen Mayora (“eliztarren buruan sartzeagatik sustraitutako bere sineste politiko sendoak”)⁴⁶ eta, horrela, Durangoko Andre Mariaren elizako erretoe izendatu zuten.

3.3. DESDE EL OTRO LADO DE LA TRINCHERA. ZUMAIARRAS EN EL “BANDO NACIONAL”

Estaríamos falseando la historia y engañando a la memoria si ocultáramos el hecho de que también hubo zumaiarras que, en el contexto de la guerra civil recién comenzada, se incorporaron, bien por afinidad, por obligación, por interés, o por una mezcla de todos esos factores, en las filas del ejército sublevado. El recuerdo y la comprensión veraces del pasado exigen que integremos todas las diversas facetas que conformaban una sociedad como la zumariara, y en conjunto la totalidad de la vasca, que como hemos visto presentaba una notable diversidad ideológica en su seno, diversidad que sin duda afloraría con mayor intensidad en unos momentos de dramatismo y la relevancia de una contienda bélica.

De hecho, como ya hemos señalado, en Zumaia también habían tenido una presencia en las décadas anteriores, y por supuesto durante el periodo republicano, fuerzas que tras el inicio de la guerra se decantarían por el bando de los sublevados, muy especialmente los grupos vinculados al carlismo, que fueron muy activos y con una notable implantación en toda la provincia de Gipuzkoa. El propio párroco de Zumaia, Wenceslao Mayora, es identificado por diversos autores como un veterano carlista con una larga actuación; de hecho, como indica Sánchez Erauskin, Mayora sería premiado por su actividad en favor del carlismo (por “inculcar en los feligreses sus arraigadas convicciones políticas”)⁴⁶ con una promoción a párroco de la iglesia de Santa María de Durango en Bizkaia.



Zumaiako errekteak. “Zumaiako horda gorri-separatistaren gatu izandakoak” Oherrezko Taldea. 1937 / Requetés de Zumaia. Cuadro de Honor de los “Ex cautivos de la horda Rojo-Separatista-Zumaya.” 1937.

⁴⁶ Sanchez Erauskin, Javier; “El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)”, Vasconia, 27 (1998), 242. or. / SANCHEZ ERAUSKIN, Javier; “El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)”, Vasconia, 27 (1998), p. 242.

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Horren adibide dira Gipuzkoako erreketen tertzioetan (Mola jeneralaren tropek Donostia hartzeaz bat eratu zirenak) izena eman zuten zumaiair boluntarioak. Zehazki esanda, hiru mila gipuzkoarretik gora izan ziren probintziako boluntarioek antolatutako hiru tertzioetan (Oriamendi, San Ignacio eta Zumalacárregui)⁴⁷, eta horien artean 36 boluntario zumaiair hauek aurkitu ditugu:

Un ejemplo de ello son los voluntarios zumaiarras que se afiliaron a los tercios de requetés guipuzcoanos que se organizaron prácticamente tras la toma de San Sebastián por las tropas del general Mola. Más de tres mil guipuzcoanos integrarían los tres tercios (Oriamendi, San Ignacio y Zumalacárregui) organizados con voluntarios de la provincia⁴⁷. Entre ellos hemos localizado los siguientes 36 voluntarios zumaiarras:

DEITURAK / APELLIDOS	IZENA / NOMBRE	JAIOTEGUNA / FECHA NACIMIENTO	GRADUAZIOA / GRADUACIÓN	TERTZIOA / DESTINO
Aizpuru Egaña	LUCIO	1918/12/13 - 13/12/1918	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 2.
Aizpurua Egaña	JOSÉ MARÍA	1918/06/16 - 16/06/1918	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 3.
Aizpurua Idiaquez	DOMINGO	1919/01/11 - 11/01/1919	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Alberdi Ibarra	JOSÉ JOAQUÍN	1918/04/02 - 02/04/1918	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Alberdi Ibarra	JOSÉ LUIS	1915/04/17 - 17/04/1915	Kaboa / Cabo	San Ignacio
Alvarez Rodrigo	LUIS	1914/05/11 - 11/05/1914	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Anduaga Pildain	URBANO	1911/01/01 - 01/01/1911	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Antia Azcoitia	JUAN MARÍA	1913/08/27 - 27/08/1913	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Apestegui Arrese	JOSÉ IGNACIO	1914/10/29 - 29/10/1914	Sarjentua / Sargento	San Ignacio 2.
Arana Aizpurua	JACINTO	1914/09/02 - 02/09/1914	Kaboa / Cabo	San Ignacio
Arana Albizuri	RUPERTO	1910/07/23 - 23/07/1910	Sarjentua / Sargento	San Ignacio 2.
Arano Aizpurua	SANTIAGO	1912/07/15 - 15/07/1912	Kaboa / Cabo	San Ignacio 2.
Arrieta Aguirrezabala	BENIGNO	1917/09/12 - 12/09/1917	Txapel gorria / Boina roja	Oriamendi
Azpillaga Zubia	JOSÉ MARÍA	1918/02/01 - 01/02/1918	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 2.
Cendoya Sorazu	JOSÉ MARÍA	1916/04/05 - 05/04/1916	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 2.
Cincunegui Arenas	GUILLERMO	1911/01/10 - 10/01/1911	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 2.
Echave Udabe	MANUEL	1917/08/06 - 06/08/1917	Txapel gorria / Boina roja	Oriamendi
Egaña Garmendia	MANUEL	1915/10/28 - 28/10/1915	Soldadua / Soldado	San Ignacio 3.
Egaña Guezalaga	JOSÉ MARÍA	1908/02/15 - 15/02/1908	Txapel gorria / Boina roja	Baleares gurutzantzia / Crucero Baleares
Egaña Uranga	JUAN	1908/02/10 - 10/02/1908	Txapel gorria / Boina roja	Oriamendi
Iraundegui Olaizola	JUAN CARLOS	1917/01/11 - 11/01/1917	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Lasquibar Aizpurua	MIGUEL	1913/08/28 - 28/08/1913	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Lizarralde Lizarralde	SEBASTIÁN	1912/01/20 - 20/01/1912	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
López Moreda	FELIPE	1918/12/12 - 12/12/1918	Soldadua / Soldado	Oriamendi 1.
Olaizola Azpeitia	MARCOS	1918/04/20 - 20/04/1918	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 3.
Olaizola Iturralde	JAVIER	1919/01/05 - 05/01/1919	Soldadua / Soldado	Oriamendi
Olaizola Iturralde	MANUEL	1905/01/25 - 25/01/1905	Kaboa / Cabo	Oriamendi 1.
Olaizola Segurola	IGNACIO	1917/08/12 - 12/08/1917	Kaboa / Cabo	San Ignacio
Osa Echeverria	PEDRO	1918/04/15 - 15/04/1918	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 4.
Otermin Iriarte	JUAN	1892/04/23 - 23/04/1982	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio
Priete Osa	JOSÉ MANUEL	1917/09/29 - 29/09/1917	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 2.
Urdangarín Juantorena	DIONISIO	1906/01/06 - 06/01/1906	Txapel gorria / Boina roja	San Ignacio 2.
Urdangarín Juantorena	SILVERIO	1929/11/10 - 10/11/1929	Tenientea / Teniente	San Ignacio
Cortaron el pelo a cero a las tres mujeres. Una era Jexuxa "Arrapa" y la otra la de Paxiego. Les raparon el pelo al cero y les hicieron pasear por la calle⁹⁸.

Después, si, esto lo recuerdo muy bien, a tres o cuatro mujeres les raparon el pelo al cero y les hicieron pasear por la calle, una era Jexuxa Manterola. Esas cosas no se olvidan nunca. Se quedan grabados en la cabeza. Y no recuerdo por que escaparon nuestro padre y nuestras dos tías. Después de que se fueran los rojos y entraran las tropas de Franco siguieron escondidos. No aparecieron hasta no se cuánto tiempo después⁹⁹.



Jexuxa Manterola, errepresaliatua izan zen emakumea bere ideologiagatik hilea moztu zioten. / Jesusa Manterola, mujer Zumaiarra que le cortaron el pelo por su ideología.

⁹⁸ Irene Yeregui Saleguiren testigantza / Testimonio de Irene Yeregui Salegui.

⁹⁹ Berna Aginagalde Olaizolaren testigantza / Testimonio de Berna Aginagalde Olaizola.

Ilea publikoan moztea bezain dramatikoa izan gabe, beste zumaiar asko parte hartzera behartu zituzten altxatuek gerran zehar lortutako garaipenen ospakizunetan eta, gerra irabazi ostean, urtez urte antolatu ziren oroitzapen ospakizun guztietan. Ekitaldi horietan bere kabuz ez agertzeak berekin zekartzan, kontrol sozial zorrotzeko giroa izanik, mota askotako errepresaliak.

Gero, Francok herri bat hartzen zun bakoitzean, txapel gorrixa jantzi eta Te Deum-a errezatzera, gerra irabaztenai zialako eskerrak emateko¹⁰⁰.

Falangistak uste det. Falangistak Maria Jexux Lisbonak oain denda daukan goixan eon zian eta gure izeko eta beste emakume batzuek erropak garbitzea eamaten zituen. Debalde, ez zixuen perro-txikirik ere ematen. Eta han falangista asko ezagutu zittun. Geo, Zumaiko bi emakume falangistak "Plato único"ko diru bila etortzen zian etxera. Guk erriala-edo ematen giñuzen. Eta hala zijuan gauza. Bonbardeoa zanian eta beaixek irabazten zuenian desfilea izaten zan. Hango bueltako kanpaiak, pinbili-panbala! eta hango katxaperua! Zumaiko emakume frankistak harro-harro margaritz jantzita ibiltzen zian. Danak diarka: Honelako herrixa harrapatu duela guriak!¹⁰¹.


Sin llegar al dramatismo personal del rapado público del pelo, otros muchos zumaiarras se vieron en la obligación de participar en las celebraciones de las sucesivas victorias de los sublevados, a lo largo de la guerra, y luego posteriormente a la victoria, en todas las conmemoraciones que año tras año se fueron organizando. La no aparición espontánea en estos actos llevaba consigo, en un ambiente de estricto control social, a represalias de diversa índole.

Más tarde, cada vez que Franco tomaba un pueblo, se ponían la boina roja y a rezar el Te Deum, para agradecer que estaban ganando la guerra¹⁰⁰.

Creo que falangistas. Los falangistas estuvieron encima de donde ahora tiene la tienda María Jexux Lisbona, y se llevaron a nuestra tía y a otras mujeres a limpiar la ropa. Gratis, no te daban ni una perra chica. Y allí conoció a muchos falangistas. Después, dos mujeres falangistas de Zumaia solían venir en busca de dinero para el "Plato único". Nosotros dábamos un real o algo así. Y así iba la cosa. Cuando había bombardeo y ganaban ellos, hacían desfile. Volteo de campanas, ¡pinbili-panbala! y cohetes por doquier. Las mujeres franquistas de Zumaia iban todo arrogantes vestidas de margarita. Todas gritando: ¡Que los nuestros han capturado tal pueblo!¹⁰¹.





Eskola Nazionalarentzako material didaktikoa. / Material didáctico para la Escuela Nacional.



Matxinatuen ideologia txertatzeko argitalpena / Publicación para inculcar la ideología de los sublevados.

¹⁰⁰ Jontxu Altzibar Eizagirren testigantza / Testimonio de Jontxu Altzibar Eizagirre.


¹⁰¹ Alizia Perez Etxaberen testigantza / Testimonio de Alizia Perez Etxabe.



1 - José María Aizpurua; 2 - Juan Olaizola Seguro; 3 - Fernando Rodríguez (+); 4 - Rafael del Pilar Zufia; 5 - Ezezaguna/desconocido; Albizu; 6 - Ángel María Curiel; 7 - Antonio Prieto Fernández; 8 - Ezezaguna/desconocido; "Lutxo" Olaizola; 9 - Fernando Antia; 10 - Javier del Pilar Zufia; 11 - Juan Albizu (+); 12 - José Luis Eizagirre; 13 - Ezezaguna/desconocido; Albizu; 14 - Jesús Mari Irureta; 15 - General Moscardó (+); 16 - Ignacio Osa (+); 17 - José Artetxe; 18 - M.M. Garate; 19 - Carmelo Eizagirre; 20 - Ángel Curiel Montero (+); 21 - Jesús Aizpurua; 22 - Antonio Eizagirre; 23 - José Miguel Antia (+); 24 - Antonio Etxabe; 25 - José Antonio Barigana; 26 - Manuel Regalada; 27 - Alejandro Orena.


Queda prohibido hablar euskera

Una exposición recrea y recuerda cómo en los años 40 y 50 se restringía la expresión de esta lengua y se multaba o castigaba por practicarla



AULAS Pupitres recreando un aula, con una pizarra en la que se lee el castigo por hablar "vascuence". IRUÑA/PRESS

Frankismo garaiko gela baten birsortzea. / Recreación de una aula de estudio en el franquismo.



Zumaiatik botata izan ziren Maristen Eskola. 1944. / Colegio Maristas de Zumaia. Expulsados en 1944.

Azkenik, umeak ere ez ziren kontrol eta errepresio ideologikoko egoera berritik kanpo geratu, nahiz eta zentzu doktrinatzailagoa zuen errepresioa baino. Sánchez Erauskinek dioten moduan: "lehen hezkuntzak nazionalismo espainiarra sartzen zuen buruan eta umeek formulen berbalismoan bildutako kontsigna nahaspila bat jasotzen zuten, segur aski umeen burura gutxi egokituta zeudenak. (...) Aberria eta erlijioa, Espainia eta eliza katolikoa, identifikatzea da etorkizuneko herritarren gogoa moldatzea eskuetan duen lehen hezkuntzaren leitmotiva¹⁰². Edo, hobeto esanda, estatu totalitario bateko etorkizuneko mendekoena. Zumaiaiko umeak ez ziren salbuespena izan:

Halako batian, etorri nitxan bazkeita, eta orduan bada-kizu jatorduko orduak zer izaten zian. Aitta tailerretik etxea etorri (eguerdiko hamabitan puntuan) eta danok mahaixan ikustea gustatzen zikon. Ni etorri nitxanian, berandu, eta aittak esan zian: Zer pasatzen da horren berandu etortzeko? Kastigatuta? Zeatik? Eta nik: Ez detelako "Historia de España" jakin. Aittak orduan izugarrizko zartada eman zixon mahaxai eta: Zer? "Historia de España" ez dezulako jakin kastigatuta?! Arratsaldian juten zeanian esan hau monjari: Me ha dicho mi padre que no quiere que yo aprenda la historia de España, que la verdadera historia de España me enseñará él. Jun nai arratsaldian, bate maliziarik gabe, eta esan dixot monjari: Hermana, me ha dicho mi padre que... Ah! Pues muy bien, monjak. Handik aurrera, falangista zikin haixek Historia de España esplikatzen hasitzen zianian, esaten zien: Albizu, salga usted fuera! Eta hantxe eoten nitxan kanpuan. Eta beste neskaai esaten omen zixuen: Esta niña sale fuera porque su padre no quiere que aprenda la historia de España, allá él, si quiere que su hija sea una ignorante...¹⁰³.

Finalmente, tampoco la infancia quedó fuera del nuevo ambiente de control y represión ideológica, aunque con un sentido más adoctrinador que represivo. Como señala Sánchez Erauskin: "la enseñanza primaria inculca un nacionalismo español donde el niño recibe un maremagnum de consignas envueltas en un verbalismo de fórmulas seguramente muy poco adaptadas a la mente infantil. (...) La identificación de patria y religión, de España e iglesia católica es el leit-motiv de una enseñanza primaria que tiene en sus manos el modelar la mente de los futuros ciudadanos"¹⁰². O, más bien, de los futuros súbditos de un estado totalitario. Los niños de Zumaia no fueron una excepción:


De pronto, vine a comer, y ya sabes cómo eran entonces las horas de las comidas. El padre venía del taller, a las doce del mediodía en punto, y le gustaba vernos a todos a la mesa. Cuando llegué yo, tarde, me dijo el padre: "¿Qué pasa para venir tan tarde? ¿Castigada? ¿Por qué? Y yo: "Por qué no sabía Historia de España" Entonces, el padre dio un gran golpe sobre la mesa y: "¿Cómo, castigada por que no sabías Historia de España? A la tarde, cuando vayas dile esto a la monja: 'Me ha dicho mi padre que no quiere que yo aprenda la historia de España, que la verdadera historia de España me enseñará él'." Fui a la tarde, sin ninguna malicia, y le dije a la monja: "Hermana, me ha dicho mi padre que..." "Ah! Pues muy bien", me dijo la monja. Desde entonces, cuando aquellos sucios falangistas empezaban a explicar Historia de España, me decían: "¡Albizu, salga usted fuera!" Y allí solía estar fuera. Y a las otras chicas les debían decir: "Esta niña sale fuera porque su padre no quiere que aprenda la historia de España, allá él, si quiere que su hija sea una ignorante..."¹⁰³.



Blanca Mendizabal Barreda gerra zibilaren ondorioz bidalita izandako maestra. / Blanca Mendizabal Barreda maestra depurada como consecuencia de la guerra civil.

¹⁰² SÁNCHEZ ERAUSKIN, Javier; "El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)", Vasconia, 27 (1998), or. 241. / SÁNCHEZ ERAUSKIN, Javier; "El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)", Vasconia, 27 (1998), p. 241.

¹⁰³ Lore Albizu Irigoienen testigantza. / Testimonio de Lore Albizu Irigoien.




Gerra osteko Zumaian, biztantelek bere bizitza berregiten. / Habitantes de Zumaia, después de la guerra rehaciendo su día a día.

Ondorioak (baina ez amaiera)

Conclusión. Que no final

5.



Ikerketa honetan zehar, irakurleari jakinarazten saiatu gara huts egindako estatu-kolpe hark zer suposatu zuen, izan ere, gerra zibil odoltsua izaten amaitu zuen. Eta, era berean, gerrak eta armen bidez erregimen diktatorial eta totalitario berri bat inposatzeak Zumaiaiko itsas herrian izandako ondorio tragikoak zehazten saiatu gara.

Gerra lehertzeak mugarría ezarri zuen zumaiarren bizitzan, familiarteko askok norabiderik gabe ihes egin zutela ikusi baitzuten, balak herriko kaleetara iritsi aurretik. Matxinatuen tropak sartzeak esan nahi zuen aldeetako batek bestea indarraren bidez menderatzea lortu zuela. Gure kasuan, Zumaia erreketek karlisten tropa ugari, falangisten troparen batek, eta Nafarroan altxatutako armadak berak hartu zuten. Ezagunen arteko mendeku pertsonalak izan ziren, konkistatutako lurraldea etsai politikoaren garbiketaren bidez segurtatzeko aitzakiarekin. Salaketak biderkatu egin ziren aurkaria ezabatzeko asmo argiarekin. Beraien burua Espainia berriaren eta benetakoaren babesletzat jotzen zutenek zioten egia eta probidentzia aldeko zituztela, eta, beraz, haren izenean egiten zuten edozein ekintza bidezkotzat hartzen zuten.

Atxiloketak, arpilatzeak eta fusilamenduak hasi ziren. Hasieran, armada erregular baten eta herriaren arteko borroka desorekatua zena, errepresio zabal eta orokortua bilakatu zen, maila moraleko gogoetetan gelditzen ez zena. Tropa frankistek aurkitutako Zumaian bi alde zeuden soilik: batetik, irabazle izango zirenen jarraitzaileak, eta bestetik, emakumeak, umeak eta adinekoak, ihes egindakoen edo Errepublikari leiala zen armadan izena emandakoen familiartekoak. Azken horiek gerra irabazteko itxaropenez ari ziren borrokan eta, zergatik ez aitortu, etorkizun justuagoa edo, gutxienez, askatasun demokratikoen erregimen batean herritarren borondatearen errespetuan oinarrituko zena lortzeko.

Aste gutxian, matxinatuek egindako noizbehinkako ekuzioetatik errepresio antolatu eta sistematizatura igaro ginen. Etsaiei buruz izan zezaketen datu esanguratsu oro artxibatzea erabaki zuten, datu pertsonalak (altuera, ilearen eta begien kolorea) eta haien bizitzari buruzko edozein motatako informazioa (kidetasun politikoak, zein alderdiko militante izan ziren edo zein zituzten gustuko, zein lekuetan ibiltzen ziren, ohiko eliztarrak ziren edo ez ziren mezara joaten...).

Horren ostean etorri ziren zigorrak. Izan zitekeen, besteak beste, zeure herritik kanporatzea, zure ondasunak konfiskatzea, askatasuna murriztea, kontzentrazio-esparruan eta espetxean sartzea, eta heriotz-zigorra jasotzea.

Dena den, gerraren amaierarekin ez zen guztia bukatu: okerrera iristear zegoen. Diktadura basatiak jarraitu zion; lehenengo urteetan gosete latzak lagunduta iritsi zena, gainera. Erdiratutako herri baten aurrean gaude, egunero bizirautea lortzeko zailtasunei gehitu behar baitzitzaizkien, hormigoizko lauza bat bailitzan, askatasunak, banakako enak nahiz kolektiboak, hertsatuko zituen lege-andana.

Historia bakarra dela esan ohi da, baina memoriak asko direla, izan ere, gertaerak bizi izandako edo gertaerak gogoratzen dituzten pertsona adina omen daude eta. Gaur egun ere, memoriak iraun egiten dute ankerkeria horietako bakoitza jasan zuten haiekin guztiekin, bizi

Durante esta investigación, hemos intentado trasladar al lector todo aquello que supuso el intento fallido del golpe de estado, que terminó derivando en una cruenta guerra civil. Y, del mismo modo, hemos tratado de determinar las consecuencias trágicas que la guerra y la imposición por las armas de un nuevo régimen dictatorial y totalitario tuvieron en la villa marítima de Zumaia.

El estallido de la guerra marcó un antes y un después entre sus vecinos, que vieron cómo muchos de sus familiares marchaban sin rumbo, antes de que las balas llegasen a sus calles. La entrada de las tropas sublevadas significaba que uno de los bandos había conseguido imponerse mediante la fuerza al otro. En este caso, Zumaia fue tomada por numerosas tropas del requeté carlista, algún que otro falangista, y el propio ejército sublevado en Navarra. Las venganzas personales se impusieron entre conocidos, con la excusa de asegurar el terreno conquistado mediante la depuración del rival político. Las denuncias se multiplicaron con una clara intención de eliminar al adversario. Los auto-denominados defensores de la nueva y verdadera España decían tener de su lado la verdad y la providencia, por lo que consideraban justificado cualquier acto que cometieran en su nombre.

Comenzaron los arrestos, saqueos y fusilamientos. Lo que comenzó siendo una lucha desigual entre un Ejército regular y un pueblo, derivó en una represión amplia y generalizada, que no paraba en consideraciones de orden moral. En la Zumaia que encontraron las tropas franquistas solo quedaban dos bandos: por un lado los seguidores de la causa vencedora, y por el otro, mujeres, niños y ancianos familiares de huidos o de alistados en el ejército leal a la República que se hallaban luchando con esperanza de ganar la guerra y, por qué no reconocerlo, por un futuro más justo o que, por lo menos, se basara en el respeto a la voluntad popular en un régimen de libertades democráticas.

A las pocas semanas, los ajusticiamientos esporádicos por parte de los facciosos dieron paso a una represión organizada y sistematizada. Donde se optó por archivar todo los datos de relevancia que podían tener sobre sus enemigos, desde datos personales (altura, color de pelo y ojos) hasta todo tipo de información sobre sus vida, afinidades políticas, partidos en los que militaron o con los que simpatizaron, sitios que frecuentaban, o incluso si eran feligreses habituales o no iban a misa.

Después de esto vinieron las diferentes penas; que podían ser desde la expulsión de su propio pueblo, la requisa de sus pertenencias, la restricción de libertad, o el ingreso en campos de concentración y cárceles, hasta la condena a pena de muerte.

A pesar de todo ello, no terminó todo con el fin de la guerra lo peor estaba por llegar. Le siguió una brutal dictadura que durante sus primeros años vino acompañada de una atroz hambre. Nos encontramos con un pueblo desgarrado al que a las dificultades de conseguir sobrevivir cada día se le sumaría, como una losa de hormigón, toda una batería de leyes que coaccionarán las libertades, tanto individuales como colectivas.

Suele decirse que la historia es única, pero que las memorias son múltiples, ya que hay tantas como personas vivieron y recuerdan los acontecimientos. Incluso hoy en día,

izan gabe ere, haietaz gogoratzen garen guztion buruetan. Memoria eta historia ez dira baztertzailleak, elkar osagarriak baizik. Ahalik eta memoria gehien berreskuratu beharra daukagu, ahalik eta historia osoena berreiraki ahal izan dezagun. Horretarako beharrezkoa da sufrimendura halabeharrez bideratuak zeuden gizon eta emakume horien ausardia gogoratzea: herriaren duintasunari eustearren, askatasuna, ohiturak, kultura eta hizkuntza mantendu baitzituzten. Orain guk haien memoria bizirik mantendu nahi dugu, urte ilun haietan jasandakoa ez ahazteko asmoz, eta espero dugu memoria lantzetik etorkizun hobea ereiteko tresnatzat balioko duen historia garatzera iritsiko garela.

las memorias perduran en la mente de todos aquellos que, sin haberlo vivido, nos acordamos de todos aquellos que sufrieron todas y cada una de estas atrocidades. Memoria e historia no son excluyentes, sino mutuamente complementarias. Necesitamos recuperar tantas memorias como sean posibles, a fin de que podamos reconstruir una historia lo más completa posible. Para ello es preciso que recordemos la valentía de estos hombres y mujeres que se vieron abocados al sufrimiento por mantener la dignidad de su pueblo, conservando sus libertades, costumbres, cultura e idioma. Ahora nosotros queremos mantener viva su memoria, con intención de no olvidar lo sufrido durante esos oscuros años, esperando que del cultivo de la memoria podamos llegar a elaborar una historia que sirva como herramienta para labrar un futuro mejor.

2016/10/25

Joseba Etnel (ZUMAIA)

Hemen bidaltzen dirkiat nere emartaren aitak Gueerra Zibilean pasatako historia neri berak kontatu taekoa:

- MATEO OLIDEN AIZPURUA (P. Oliden jaioa)
- MARIA CARRANAGA ARAKISTIA (E. Estee)
- Telmo kalekoak (gaur egun...)

Testigantzak

Testimonios

Gueerra denboran Zumaian detentatu (1936) eta Santonia'ko penalean eramana.

Santonia Afuntzuko zai zundela Italiano etoni eta berak Valentzia eramana fruentan Valentzia fruentan aurretik jarri eta prisionero bezela ZANPAK, TRINTXERAK t. c. eginez indar nazionalarekin, beren buruak beti amirkuan jarriaz.

Ternel'ko fronte gurtia pasa zuten ikara garrik otzak eta gosen pasiaz. Pirimotara inixi zirenean MAKIZ en Kontra Gueerra bukatu ondoren etxera etoni zen.

Etnen nahi guerra konturik aiatatu eta bere emarteak gutxiago, emarte bere 2 seme alaba rekin AKERTZA Baserian (Arroa Behan) egon zen, eskutetuta guerra garaian.

* Mateo - Zumaian ezeuna zen "MATEO GABARREROA"

Aizpurua, EDURNE



Ni gogoratzen naiz, etxetik atera ginenean, hor negarrez kamioi batean eta nire ama eta nire aita zortzi umerekin irten ginen euritan Zumaiatik. Etxera etorri ziren, txakurrak bezala (*nire etxekoei entzun diedanez*), eta esan ziguten “*joan behar zarete, fuera hemendik*”. Eta horrela, txakurrak bezala nazionalistak ginelako, ez zegoen beste arrazoirik. Nire anai zaharrena, hil zena, eta bestea, batzokian ibiltzen ziren, antzerkiak eta horrelako gauzak egiten. Horregatik nire amak esaten zuen berari iruditzen zitzaiola horregatik izango zela, guri kanpora bidaltzea, nire bi anaiak batzokian ibiltzen zirelako.

Amari galdetu nion “*nora goaz ama? nora goaz?*”, eta amak esaten zidan “*ez dakit maitea, ez dakit, ez dakit nora goazen*”. Gogoratzen naiz han denak txirri-murruka geundela, denak kamioian. (*falta*)—*ra* joan ginen, etxe handi batera. Eta han geundela, nire anaia, hil zena, Zumaiar batekin zegoen Gernikan, mendian. Eta mutil hori etorri zen nire anaia nola hil zen kontatzera. Ondoren, nire aita hartu eta bere semea ikustera eraman zuen. Nire aitak ikusi zuen hilda. Gernikako bonbardaketan ni nire anaiaren besoetan nengoen, eta egun batzuk pasata hil egin zen. Ni txikia nintzen, baina horretaz gogoratzen naiz, oso ondo gainera. Gure ama gaixotu zen, ia zoratuta.

Asturias bidean, bagoian gindoazela, guardia zibil batzuk etorri ziren eta nire aita eraman zuten. Horren ondorioz, zortzi semeak amarekin gelditu ginen, Asturiasetik Frantziara gindoazela. Bodega batean geundela, gogoratzen naiz gurekin zegoen pertsona bat itsasontziaren kubiartara igo zela, eta honek ikusi zuela beste itsasontzi batetik seinaleak egiten ari zirela gure itsasontzia botatzeko.

Egon ginen lekuetan ez ginen gaizki egon, (*MINUTO 3.55*). Gero, handik Kataluniara joan ginen bagoi batean, animaliak bezala. Gogoratzen naiz estazio batera iritsi ginela, ez dakit non, eta denok dutxatzera joan behar izan ginen, emakumeak, gizonak eta umeak denok batera. Xaboa beltza zen, horretaz gogoratzen naiz. Nire amari beti galdetu diot “*ama, zer xaboi zen hura?*”, eta berak esaten zidan “*ez dakit txikia zer den*”.

Dutxatu ondoren, bagoira joan ginen berriro, Kataluniarantz. Bertan, Casa Ulet-en egon ginen, etxe handi bat, berez itxita egon behar zuena. Han ezkurak kantitate handietan zeuden. Eta han geundela aitaren berriak izan genituen. Eusko Jaurlaritza edo horrelako bideren batetik, nire anaiak gure aita zein baldintzatan zegoen jakin zuen. Aita, mendiz mendi etorri zen gure bila, eta hortik aurrera ez zen gure albotik aldentu.

“Egin zenuten bidea Kataluniatik hona?”

Bai, hori da.

“Zer ikusten zenuten errepidean?”

Hildakoak. Dena hildakoak. Gure amak esaten zigun “*ez begiratu maiteak, ez begiratu. Begiratu aurrera*”. Gu oinez gindoazen, nire aita motxilarekin, nire ama nekatuta, eta gu, zortzi seme beraiekin ibiltzen. Zenbat kilometro egin genituen? Ez dizut

esango, baino asko. Zumarragara iritsi ginenean, guardia municipalak esan zigun *“Al Nazareto, a pasar la cuarentena”*. Eta ez zioten inori uzten guri gerturatzea. Behinik behin Zestoatik mediku bat etortzen zen, eta nire amari esaten zion *“zuek gaitza ekarri duzue, munduko ume garbienak etorri zarete”*. Eta hori egia da. Guardia municipalak aurrean genuela jaitsi ginen gure etxera, a la calle Carnicería nº9, como si fuéramos criminales. Jaitsi ginenean, gure etxean ez zegoen ezer, zahar zaharra zegoen. Gauza guztiak hartu eta balkoitik bota zituzten. Nire amak bere buruan zeukan bere gauzak non zeuden, zer gauza utzi zituen etxean. Nire lehengusu batek Balenciaga enpresan lan egiten zuen, eta hau gure etxera etorri zen eta nire aitari eta nire anaiari lana eskaini zien, eta hauek bertan hasi ziren lanean. Herriko jendeak ez zigun aurpegira begiratzen, ez zuten gurekin ibili nahi. Gero, eskolan, zigortu zidaten nire izena Edurne eta ez *“Maria Nieves”* zela esateagatik, eta kalabozora bidali zidaten.

“Bukatzeko, ari ginen Siriarren kontuekin, zuk haiek ikustean...?”

Negar egiten dut, pena ematen didate gu berdín ibili ginelako, itsasontzian geundenean ondora bota nahi zigutenean eta errepedean hildakoak besterik ez ikusten. Zer esaten didazu? Aldatuko al da? Ez dakit.

Albizu, MARGARI



Saraya, Batzokiko presidentea zen, baina gerra hasi zenean harrapatu egin zuten eta ihes egin zuen. Orduan, nire aitaren berririk ez genuen izan, irten egin zen eta ez genekien non zegoen. Baina gero Frantzian elkar bilatu ginen. Ez, Frantzian ez.

“Gero elkar ikusi zenuten Bizkaian?”

Bai, Bizkaian. Honek beldurtuta ihes egin zuen hemendik eta Batzokiko dokumentuak eta gauza guztiak ezkutatu behar izan zituen. Amak, bere ama zaharra zeukan etxean eta beldurtuta zegoen zer egingo ote zieten. Aurrena gure aita harrapatu zuten, eta gero gure aitona. Beste guztiak harrapatu ondoren, kamioira eraman zituzten.

“Aita joan zen eta hemen ama gelditu zen, zenbat seme-alabarekin?”

Hiru, nire bi anaiak Koldo eta Joxeba eta ni.

“Non bizi zineten hemen Zumaian?”

Alde zaharrean, San Juan Iturriaren aldamenean. Orduan, kale nagusia zen eta 14ean bizi ginen. Hara etorri ziren eta denei kanpora atera ziguten, eta gure amak ez zuen irten nahi izan. Guri, denoi, kanpora atera ziguten gure trastu eta gauza guztiekin, baina ama etxean gelditu zelako ez ziguten etxea errekisatu.

Denak atarian geundela kamioia etorri eta han sartu ginen. Baina, lehenengo zubi txikiraino eraman ziguten eta gauza guztiekin aldapa jaitsi egin behar izan genituen. Jendeak ikusten zigen eta batzuk negarrez zeuden bazekitelako nora gindoazen, baijan bete batzuk berriz alai zeuden merezi genuela pentsatzen zutelako. Gure aita elizmutila zen eta goizeko 6 t' erditan ematen zuen lehenengo meza. Egun hartan, pasatu zenean meza ematera, Maiatzaren 4ean, gure amari izugarritzko pena eman zion ez ziolako kasurik egin. Gure amak esaten zuen: *“nola leike? Apaizak ere ---FALTA--- nora Joan behar dugun berritan gaude eta”*.

“Apaiza?”

Bai.

Kamioi barruan geundela, gora begiratu eta amarekin Arritokietako kanta abestu genuen: *“Arritokietako Birjina ederra, agur ama maite, itsasoko izarra”*. Esan genion Ama Birjinari bere laguntza emateko berriz Zumaiara bueltatu ahal izateko.

“Baina, bidai hori nola izan zen Margari, kamioietan egin zenuten bidai hori?”

Ez naiz gogoratzen.

“Amak zer esan zizun?”

Kamioietan sartu eta Lekeitiora eraman ziguten. Han jaitsi eta gero oinez. Argazkiak atera zizkiguten, eta han ikusten zuten denok nola joaten ginen oinez, gure maletekin Foruetaraino.

“Eta lehenago, komentatzen ahal zuen amak Lekeition zer nolako tratua eman zizueten?”

Oso ona, oso ondo portatzen ziren denak. Horrela kontatzen zuen gure amak, behar genituen janak eta lotarako gauzak ematen zizkiguten. Ahal zuten guztia egin zuten.

“Handik Foruetara?”

Foruetara bai.

“Han erresidentzia batera edo?”

Bai, ikusten denez Gernikako zeara joan ginen. Han almatzen batera sartu gintuzten eta han egon behar izan ginen deitu arte. Janari ekartzen ziguten, janaria eta edariak, baina irten gabe egon behar ginen, barkua gure bila etorri arte.

“Forutik Bilbora joan zineten?”

Bai, Bilbora.

“Eta Bilbon non egon zineten?”

Ramblas de Uribitarte n° 3 3º, ez zait inoiz ahaztuko. Mediku baten etxean egon ginen eta oso ondo portatu zen gurekin. Han geundela, bonbardaketak hasi ziren eta tunel batera joan ginen. Han galdu nintzen, eta gure ama non nengoen jakin gabe. Dena bukatu zenean, *Ramblas de Uribitarte n°3 3º* non zegoen galdetu behar izan nuen.

“Hori betirako ikasi zenuen?”

Bai, ez zait inoiz ahaztuko.

“Han bonbardaketak gogorak izaten ziren?”

Bai, bai, bai.

“Nola egoten zineten tuneletan?”

Denak batera elkarri helduta beldurra kentzeko. Suertea eduki genuen bonbak ez zigutelako harrapatu.

“Handik ia, barkura joan beharra ez?”

Bai, baina lehengo ---FALTA--- era eraman ziguten, eta han egon ginen itsasontziaren zain. Janaria eta edariak eraman zizkiguten eta barkuan iritsi zenean irten ginen.

Barkua Santanderrera iritsi zen eta ez dakit nola joan ginen baina uste dut handik directo sartu ginela barkuan, “*La Habana*”.

“Barkuaren izena”

Bai. Han sartu ginen eta Santanderreraino eraman ziguten. Gero, aita ikusi genuen Santanderren, “*La Habanan*” sartzeko zain. Sartu ginen eta handik San Juan de Luzera.

“Nola izan zen bidai hori? Amak zer kontatzen zuen?”

Euskaraz hitz egiten genuen elkarrekin, baina horiek ez zuten ulertzen eta guk haiei ere ez. Gurekin Trintxerpekoak eta Karlistak zeuden, eta erdaldunak ziren. Amak esaten zien: “*nire seme-alabak ez dute ulertzen erdara, eta nik ere ez dakit asko*”. Haiek haserre ez zutelako ulertzen. Horrela San Juan de Luzera iritsi ginen arte.

“Zer harrera eman zizueten? Nola izan zen herrira iritsi zineten momentua? Eta nola egon zineten han bizitzen?”

Astoak eta mandoak zeuden tokira eraman ziguten, belar artean. Eusko Jaurlaritzak laguntza eskatu zuen eta etorri ziren eta handik atera ziguten. Nere bi anaiak San Juan de Luz-en gainean dagoen fuerte batera eraman zituzten, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako egindako fuertea. Ni txikia nintzelako ez nintzen joan, eta nire ama lanera irteten zenean, nire amaren lehen-gusuarekin uzten zidan. Nola esaten da “*maestra*”?

orr.

“Irakasle”

Irakaslea zen, eta gu baino lehenago bidaldi zuten Azpeitikan. Liburuak idazten zituen eta Azpeititik bidali zuten. Arudin zegoen, San Juan de Luz aldameneko herri batean, eta hara eraman ninduen berarekin.

“Eta nola gogoratzen duzu bizimodua han? Aita eta ama gogor lanean ez?”

Ondo bai, aita eta ama lanera joan ziren eta aita eraman zuen mezetara erretxina kentzera. Hiru gizon joan ziren, beste biak Getariarrak ziren. Mendian zeuden bitartean, txabola bat egin zuen egurrekin, eta ikusten denez han sartu ginen gure aitarekin. Amak esaten zuenez izugarrizko hotza egiten zuen, baina ez genuen behin ere ez katarro bat harrapatu. Aitak lana egiten zuen eta amak bazkaria prestatzen zuen, eta beste hiru haiei ere bazkaria prestatzen zien.

“Zuk ere Frantsesa ikasi zenuen?”

Bai, baina hor ez, eskolara joan nintzenean. Handik San Joan de Luzera jaitsi ginen eta gure ama neskame-morroji joan zen. *Madame Lanote*-ren etxera joan ginen, emakume mozkorra zen. Gure aitak lana aurkitu zuenean San Juan de Luzera jaitsi ginen. Baina, Bigarren Gerra Mundiala hasi zen, eta gure aita haiekin joan zen. Orduan jaitsi ginen behera eta han etxe batean egon ginen, eta handik joaten nintzen eskolara. Han ikasi nuen Frantsesa, eta hona etorri nintzenean erdara ahaztu nuen.

“Gerra bukatzean erabakia hartu behar izan zenuten, itzuli edo ez?”

Bai, hori da.

“Nola izan zen hori?”

Aitak Venezuela-ra joan nahi zuen, bonbardaketatik libre zegoelako eta gainera barkuan zeuden. Baina gure amak ez zuen joan nahi bere ama Zumaian bakarrik zegoelako. Azkenean, amak irabazi zuen eta Zumaiara etorri ginen.

“Baina nola egin zenuten bueltako bidea? Pirinioetatik, ez?”

Bai, Pirinioetatik, Iratiko basotik igo ginen zeara, nola da?.

“Jaka?”

Bai Jaka. Baina lehenengo, han goian zegoen etxe batean egon ginen, eta handik pasatu ginen Jakara. Han geundela almazen batera sartu gintuzten gaixorik geundela pentsatzen zutelako. Amak esaten zuen: *“hauek mandoentzako edukiko zituzten”*. Denak gelditu ginen gogortuta ezertarako ez genuelako balio. Handik Donostiara joan ginen.

“Donostiara Zumaiara iritsi aurretik?”

Bai, abokatu horrek baimena eskatu zuen eta bere etxera eraman zigun. Handik autobusera joan ginen gaeuz, inork ez ikusteko, eta gaeuz etorri ginen Zumaiara. Etxera sartu ginen eta aitak irteteko beldurra zuen. *“Sesión Femenina”*-koek ekartzen zizkiguten janaria eta gauzak, denoi ematen ziguten txartel bana eta harekin joaten ginen ogia emateko. Gure amak beldurra zuen eta ez zen irten nahi, gu bidaltzen gintuen janariaren bila.

Gero han, kolan geundela, Zumaiako emakume batzuek nongoak geunden galdetu zuten gu ikusita, eta esan zuten: *“Alajaina, hiltzera bidali baina gero harro etorri”*. Gu negarrez hasi ginen.

Arritokietako ospitalearen ondoan, ospitale txikia zegoen, eta han Lepra bezalako gaixotasun bat zuten pertsonak zeuden. Bigarren pisura eraman ziguten gaixotasunen bat geneukan ikusteko, medikuak etorri arte. Sano geundela ikusi zutenean, etxera eraman ziguten.

“Etxean amona zenuten?”

Bai, etxera sartu eta amona han zegoen, pozik gu han egoteagatik. Ez geneukan ezer ez.

“Etxeko gauzak?”

Dena kendu ziguten, gure amak ezkutuan eduki zuen “Santo Cristo” izan ezik. Amonak pentsatu zuen eramango zutela eta gona azpian ezkutatu zuen. Beste gainontzeko gauza guztiak eraman zituzten: izariak, ontziak, koadroak, eta abar. Gure amaren ilobak baserria zeukan eta arta-irina ekartzen zigun eta taloa egiten zizkigun. Gainera moakila egiten zigun, krema bat bezala.

“Herritarren artean zer gaizki zizueten?”

Ez, kalean geneuzkanak ez, baina beste plazara joaten baginen, han gaizki, eta ezkutuan eman behar zen ---FALTA---. Ez dakit, badakizuen merendero bat dagoela, oso ospetsua eta hara joaten ziren berdurak, arrautzak eta saltzea. Gero andreenak

etortzen ziren eta esaten ziguten: *“hauek etxera eraman baino lehen, pentsatzen dugu zuei falta gehiago egingo dizuetela”* eta uzten zizkiguten patata azala, eta horrelako gauzak. Guk ez genuen goserik pasa. Badakizu nola egiten genuen lo? Arkoi gainean botata eta koltxoia gainean botata, beroa emateko, izaririk ez geneukalako. Kale nagusian bizi ginen eta jaietan korporazioa etortzen zen, municipala, eta esaten zigun bandera Espainola jartzeko. Bandera jartzen genuen, baina joaten zenean berriz doblatu eta gordetzen genuen. Izkinan guardia zibilaren kuartela zegoen, eta abesten pasatzen ziren. Haiei ere, bandera jarri behar genien pasatzen ziren bakoitzean. Eskuarekin agurtzen zuten gainera.

“Eta zuek horrela jarri behar zineten?”

Ez, gu ez ginen jartzen. Beraiek banderari ongi etorria ematen zioten.

“Lehen esan didazu Margari, amak atzera begiratzen zuenean, bere historia guztia kontatzean, ez zeukala gorrotorik”

Ez, berak esaten zuen, nahiz eta guk oso gaizki pasa, denok berdin pasa izan behar genuela. Gainera, beti esaten zuen: *“Niri egindako gauzak min handia egin arren, ez esatea nik inori zerbait egin diodala”*.

ETA-koak etorri ziren eta kuarteletik irten eta harrapatzera joaten ziren, manifestazioak egiten. Gu beti beldurrarekin, gure neskak non egongo ziren pentsatuz. Baina beti aurkitzen zuten ezagunen bat bere etxeetara eramaten zutena.

“Berrogei urte pasa dira ia, baina gaur egun telebistan eta ikusten dituzunean Siriako errefuxiatuak, zer sentitzen duzu?”

Pena galanta. Gezurra diru, 40 urte pasatuta oraindik ere gauza hauek ikustea. Guk gauza berdina pasa genuen, eta nik negar egiten dut ikusten ditudanean ume horiek, guraso horiek irten nahian, batzuk barkuan etortzen ito egiten direla... Ez al da bakea etorriko? Bakoitza bere herrietan bizi nahi dute, baina bakerik ez dagoenez ihes egin behar dute.

“Zuek duela 40 urte ere horrela ibili zineten”

Bai, eta orain gogoratzean esaten dut gaixoak.

“Baina ama ez zen kexatzen”

Ez, okerragoak pasa zituelako. Horregatik, ez penarik, baina tristea da. Niri pena ikaragarria ematen dit. Ikaragarria.

Albizu Irigoien, LORE



Nere etxean oso pozik bizi nintzen, txikia izan arren dena ondo zihoala nekien. Kalean **FALTA----**, ez dakit ezagutzen duzuen, kukuzka eta soka-saltoan jolasten. Orduan ez zegoen beste gauzarik, eta horrelako gauzak egiten genituen.

Aitak ez zeukan kargu politikorik, baina Batzokian antzerkiak egiten zituen, antzerkian eta monologoak, eta familia guztia horretan ibiltzen zen. Dantzak eta horrelako gauzak egiten zituzten Batzokian, besterik ez. Gorroto handia zegoen Batzokian lan egiten zutenen aurka, hauek abertzaleak zirelako. Hemendik ihes egin zuten bost senidek, itsasora joan ziren, gu gerran geunden bitartean. Amak gaixo zegoenez etxean geratu behar zen, bertan medikua bisitatzen ziolako, baina aitak ez zuen behar zen ausardia izan berarekin baserrira bueltatzeko eta bere anaiekin Mundakara joan zen. Gainera aitona esaten zuen **--FALTA----** muturreraino joan zela agurtzera eta familia triste gelditu zela orduan. Gero etxera etorri ginen eta aitona-amonak bakar-bakarrik zeuden, baina gauzak aurrera joan ziren.

Hitzez edo eskutitez, amak bazekien beheko plazara joan behar zuela, guardiak horrela esan ziotelako. Orduan, plazara joan zen emakume guztiak bezala eta han izan zen esposamendua. Nire ama lan asko zeukan aitona eta amonarekin, gainera gu txikiak ginen. Gero, izeba etxera etorri zen (Margariren ama) eta hauei ere deitu zieten. Egun larriak izan ziren, irten baino lehenago.

Gogoratzen naiz, kamioi batzuetan joan ginela, denak zorabiatuta. Egun horretan euri asko egiten zuen. Meza entzun ondoren atera ziran denak Ama Birjinari abestera *“Arritokietako Birjina ederra, agur ama maite, itsasoko izarra, agur ama maite, itsasoko izarra”*.

“Horrela abesten zuten?”

Horrela abesten zuten bai. **---FALTA---** beti abestu zena, **--FALTA---** beti bai.

Ama deitu zutenean kuartelera joateko, amak esan zion agintzen zuenari:

- *Baina zenbat egunerako?*
- *Herritik kanpora irten behar zarete, herritik kanpora. (Guardia)*
- *Baina zenbat egunerako? Nik ez daukat dirurik kanpoan denbora asko egoteko.*
- *Nahi baduzu umeak hemen utzi eta zu joan.*
- *Nik zuei umeak utzi?*
- *Bai, joaten zaretenean, ez zaretelako gehiago etorriko.*
- *Ba nik joan behar baldin banaiz, nire umeak nirekin nahi ditut.*

“Hori berria da.”

Hori berria da bai, orain gogoratu naiz.

“Horrela erantzun zion amak?”

Horrela erantzun zion amak, kuartelekoei, bai.

Gero, Lekeitiora iritsi ginen, eta amak esaten zuen errepidea puskatuta zegoela eta goian *“la línea de fuego”* zegoela, eta kontatzen zuen nola tiroka ari ziren, baina momentu batean gelditu egin zirela gu pasatu arte. Guardiak, banan-banan gu hartu eta beste aldera pasatzen zigun, Lekeitioko bidera. Frankistak bazekiten emakumeak eta umeak zihoazela, eta *“perras”* beza-lako irainak esaten zituzten.

“Eta halako batean, Lekeitiora iritsi zineten.”

Bai, eta gero uste dut autobus bat hartu genuela, bai, ez naiz oso ondo gogoratzen. Baina gogoratzen naiz, Foruetara joan ginela. Gela luzeak, gogoan dauzkat. Han geundela, beste ama batzuk zeuden, bozgorailutik hildakoen izenak entzuten, ea haietako bat bere familiako zen jakiteko. Juan Jose izena esan zuten, eta nola frentean hil zen kontatu zuten, eta bere ama, nire amaren ondoan zegoen eta zerraldo erori zen.

Aita eta izeba gure bila etorri ziren, eta Bilbora eraman gintuzten. Bilbon, pisu batean egon ginen. Gero bonbardaketak hasi ziren Bilbon, eta tunel batera joan ginen. Handik, Mundakara joan ginen, han familia guztia zegoelako. Osaba gazteena (*Josu*) mendian zebilen eta denak hara joaten ziren guardiak menditik etortzen zirenean.

“Mundakan egiten zuten.”

Mundakan egiten zuten bai.

Nire anaia Mikel eta biok, beti joaten ginen osabari laguntzera frentera joaten zirenean. Elizako petralera igotzen zigun osabak beti eta jartzen zuen bere kaskoa eta kamioi batzuetara sartzen ziren. Muxu bana ematen zigun eta ikurrina jarri eta eusko gudaria abesten zuen. Egun batean, osaba joan zen, eta ez genuen berriro ikusi.

Gero, Mundakatik bidali gintuzten eta denak sakabanatu egin ginen. Suancesera joan ginen, amamaren anai bat mendian bizi zelako. Amak, guk hartu eta hara joan behar zela, barkuan irten baino lehen, esan zuen. Baina bide horretan...

“Trenean egin zenuten?”

Trenean hori da.

“Eta zer gertatu zen tren horretan?”

Tren horretan, gogoratzen dudana bakararra tunela da, eta nola hegazkinak pasatzen ziren. Baina lehenbizi, Gernikako bonbardaketa kontatu...

“Egia da, Gernikako bonbardaketa. Zer ikusi zenuten?”

Bai, hori ere mendi-zulo batetik ikusi genuen. Mendi-zulo batean sartu ginen, bokata hartu eta hara eraman eta hortik ikusi genituen Gernikan nola hegazkinak pasatzen ziren. Egun hartan, nire anai txikiaren sehaska erostera joan ziren, nire izeba eta aita Gernikara. Ez zuen lo egiten, eta sehaska erostera joan ziren.

Ribadesellara joan behar ginenean, denak sakabanatu ginen han tunel batean. Horretaz gogoratzen naiz, tunelak sua bezala botatzen zuelako. Ez dakit zenbat denbora egon ginen, tuneletik irten gabe, hegazkinak alde egin zuen arte. Orduan, tren mugitzen hasi zen, eta geunden denok gindoazen ere hiltzera.

“Trenari tiroka?”

Trenari tiroka bai. Han denak negarrez geunden, eta amak umeekin zihoazen. Ribadesellako kaira joan behar ginen, Frantziara joateko. Amak esan zuen ez zuela inoiz pentsatu noraino joango zen. Ribadesellako kairan, nire anai bigarrena galdu genuen, eta nire amak garrasi egin zuen. ~~—FALTA—~~ eta ikusi zuen zubian vietnamita izan behar zen bat, baina bera txinoa zela esaten zuen. Bere umea txino baten lepoan ikusi zuenean salto egin zuen beregana eta hartu egin zuen. Gero denak joan ginen itsasontzian.

“Anaia galdu baina azkenean aurkitu.”

Aurkitu bai, laster ikusi omen zuen amak. Gero, bodega zuloan geunden denak zorabiatuta.

“Itsasontzia barruan.”

Bai, bodegan. Amak esaten zuenez, hiru egun pasa genituen Burdeosko kaira joateko, eta itsasontzi batean, esan zigutela *“cambien de ruta”*. Atzera buelta eman genuen eta horrela hiru egun egon ginen.

“Barkuan hiru egun.”

Barkuan hiru egun ezer jan gabe, bonbekin ateratzen zen ura edaten genuela.

orr.

Han ogi luze bana eta sardina lata bat eman ziguten jateko. Oso gogorra izan zen, hiru egun jan gabe egon ginelako, gose pasa genuen bide horretan.

“Eta handik, nora joan zineten?”

Gero, handik, ez dakit. Amari beti esaten nion *“ama, zer izen da hori?”*. Nik *Boillon, Boillom* edo horrelako zerbait ulertzen nuen. Han kolonia txiki batean egon ginen, eta eskolara joaten ginen. Handik beherantz joan ginen, Suitzako frontieraraino. Gogoratzen naiz gaztelu handi batez ~~---falta---~~ zubi zeukan. Zubi hori ireki eta handik sartu ginen. Han ere, eskolara joan ginen, eta irakasle Frantsesa neukan. Honek esaten zigun: *“desgraciadas, como os ha traído la guerra hasta aquí”*. Gero amak, mahatsak eta sagarrak biltzen zituen. Ez dakit zenbat denbora egon ginen han.

Nire izebak, Frantzia zegoenak, bere anaiaren berriak jakin zituen eta guk non geunden jakin nahi zuen. Amarekin telefonoz hitz egin zuen eta haren bitartez gorantz etorri ginen.

Fronteara iritsi ginenean, inor ez zegoen gure zain eta gizon batek esan zion amari: *“eta zu nola zaude hemen?”*. Eta amak erantzun zion: *“ez dakit, telegrama bidali dut etxera, baiian ez da inor etorri, nire etxean hilda egongo dira denak.”* Gizonak dirua eman zion Zumaiara etortzeko.

“Hendaiatik?”

Hendaiatik bai. Aitona lehengusu bat agurtzera joan zen trenera, eta gu ikustean etxera saltoka etorri ginen. Baina zubira iritsi ginenean, txaperuek erdararaz esan zuten: *“vosotras no podéis entrar en el pueblo, tenéis que ir primero al hospital”*. Ospitale txiki bat zen, gaixo guztiak han zeuden. Txaperuak esan zuten: *“hay que ir ahí, porque podéis traer una enfermedad”*. Eta amak esan zuten: *“¿enfermedad estos niños? Si están...”* *“No, no, no, esto hay que ir ahí”* erantzun zion.

“Koarentenan jarri zintuzten?”

Koarentenan bai. Ajuria medikuak, gurea jakin zuenean, esan zuten: *“¿Cómo? Estos niños enseguida a casa”*. Etxera etorri ginenean, aitona eta amona bakarrik zeuden eta oraindik gogoratzen naiz, aitona zubi txikian zegoela besoak zabal-zabalik.

Orain bizi garen etxe hau hotela zen, Hotel Amaia, eta hemen gerrako kuartel italiarrak egon ziren eta aitona eta amonari gela bat kendu zieten. Aitonak esaten zigun: *“baina beldurrik gabe gela onena emango dizuet”*.

Aita kartzelan zegoen, eta kartzelako hainbat oroimen zituen; beti beldurtuta zeuden, norbait ateratzen zutenean tiro bat ematen ziotelako, beraz beti zalantzan zeuden hurrengo nor izango zen. Beldur asko pasa zuen kartzelan.

Gogoratzen naiz, etxera etorri zenean, lurrean egiten zuela lo. Gu harrিতa geunden nola ezin zuen ohean lo egin, baina kartzelan ohitu egin zen lurrean lo egitera.

Lehengusu batzuk ere, hotela zeukaten, Hotel Zumaia, eta han egon zen aita lanean. Gero, hemen, fabrika batean egon zen, antxoia fabrika batean. Ondoren Balenciagazko tailerrean hasi ziren anai guztiak lanean, mekaniko onak ziren eta.

Nire ama beste lagun batekin izkinatik pasa zenean, han eserita zeuden emakumeek esan zuten: *“Begiratu, horiek guztiak hiltzera bidali zituzten eta orain gu baino hobeto azaldu dira”*.

Ez zuten euskaraz hitz egiten uzten. Garai hartan, nire aitak esaten zidan lanetik etorri eta eskolatik etxera, denok batera bazkaltzeko. Gogoratzen naiz, egun batean berandu joan nintzela. Iritsi nintzanean, aitak esan zidan:

- *zer pasa da berandu etortzeko? (aita)*

- *zigortuta nengoen aita.*

- *Zigortuta? Zergatik?*

- *Historia de España ez dudalako jakin.*

- *Historia de España ez duzulako jakin? Bueno, gaur arratsaldean eskolara joaten zarenean, esaiezu moja haiei “ me ha dicho mi padre que no quiere que me enseñen la Historia de España, que la verdadera Historia de España me la enseñara él”.*

Eskolara joan nintzanean, esan nion guzti hori mojari eta berak erantzun zidan: *“ bueno, allá la cultura”*. Orain benetan esaten dizuet, ez zait inoiz ahaztuko lezio hori zer zen, Las Navas de Tolosa, eta pusketa bat esango dizuet: *“las navas de Tolosa, el desastre de Alarcos era como un terrible aviso que podía causar a los Almohades, entonces Don Rodrigo de no sé que se junto”*. Noski, hark gaztelera entzun zuenean, ez zuen ulertu, hau da antzina zen Abderraman edo.

“Musulmanen garaikoa?”

Bai, musulmanen garaikoa.

Batzuetan ateratzen zitzaion amorrua, baina gero esaten zuen: *“Gerra gehiago ez, eta ahaztu gorrotoa, gorrotorik ez”*. Hiru gauza horiek esaten zituen.

Aristondo Aizpurua, ANA eta Azpeitia Egaña, MIREN



AZPEITIA EGAÑA MIREN

Hauek Gernika bialituzten emendik, famili osua, anaiak antziala ta, bat zarrena laga, zaharrena laga zuten beaiantzat hartzeko, ta beste denak hor zian bomba zarran azpian bildurra earrakin , oi esateu gure gizonak, pasa zitula bildurra earrak, ortxe egon zian Gernikako Foruan aldamenian, esagutze aldezu aita, gaztia neria gaztiago data, horrek 10 urte izango, danak, arrebak gizonakin hoiek aita ta amakin, aurrian zituzten zeak anaiak ta senidek ta horregaitik bialituzten, eta bat zuen anai zarrenabeak soldaua hartzeko, eta gure etxian, guri etziguen eraman.

Arozena Larrañaga, ANGELES



Zumaia etorri zinan esan dezu soldaduak bazebiltzala?

-Bai bai.

Aldaban ere etorri zitzaizkigun etxea abisatzea gorriak eta zuriak bueno, gorriak zeudela Olamendik aldaba tiroteua izango zala, ta gu tarten arrapatzen ginun nunbait eta goizeko bostak eztakit ze ordu zan, amakin jun ginan gu beste baserri batea lope-tegira, urrutiko zea batea, eta nik usten det izango ginela, bestiak umiak izango ziren, beste bi ahizpak, hiru haizpa gea segido, beste bi ahizpak txikiak izango ziren, baina ni kontuatzan naiz nolakua zan, jata zikina bidian ta joan ginen amakin, amona eta aita geratu zian lehion koltxoia jarrita balak ez pasatzeagaitk ikulun, ikulua beran geundeken eta etxebizitza goran eta gelditu zian ikulun, gu jun ginan, jun ginan allatu ginan auntza eta allatu ginanian ba han etzirela bera etorri zirela han gelditu ginan, han bertan izebak, ordun eztakit zenbat eukiko zitun baino, 15 ume izan zitun, 15 edo 16, eta han txikiak eztakit ze edadetakok izango zitun, eta jun ginan oi baten 10 jarri eta kafia hartu ze kafe izango ote zan eta errosaiua errezzatu, umiak denak jolasen aik, naiko gu jolasen, ango amonak erritan, geldik eoteko eta errezzatzeko gorriak zirelata, guri ze importa zigun gorriak edo beltzak ta beintzat 10 lagun egon ginan ohi baten, gero etorri ginen, soldauak nola bageneuzkan etxen, bertan bertan, ze ite zuen babarruna ta amonak guri talok ite zizkigun, bekosuan puztu puztuk indakok eta, zea ite zigun, zea etorri gurekin jatea, esnia ere hartu denak esnia jan, danak bat egon ginan, soldauak eta guk dana bat azkenen umekin batea dana bat ta holaxe, holaxe juntzan.

Beobide Arburua, JOSEBA



1. Francorentzat kristaua

Besteik bizi zian ba ordun, zea Francon kapilan eondako kristua, bueno zuloako zea haber nola esateuen historitxia, bueno Zumaiko, Zuloagan museuan oso Kristo ederra dao, egiya da ederra da benetan, zuloan gustuakin egiinda eta zuloa polikromatua, nere aitak indakua Francisco Franco y Bahamonde ikusi zuen hori eta asko gustatzen zitzaion hori, el que ha hecho eso me tiene que hacer a mí otro, escultor ningun Cristo, aitak egin zuen baino, aitak izugarria zan Kristua egin da gero, zuan gustura ta ola, egin da gero ba eraman zuten Madrida, Madrida ori Francoren karrua zalako Francoren Pardia zelako, baina aitak ospa egin zuen, ez zuelako Francoren eskua izan nahi, eta ze gehio ba horixe eztatit .

2. Aitaren Kristoa

Ba bueno gero handikan bai bukatu zanen Francon doaia Kristori, Valles Caídosea juntzan ta han dao baino nere aita etzan behin ere sartu, ezitzaion gustatzen, han ikustea zein dan ona eta zein gaistua zein erauzi eta zein galdudan, ta etzan sartu, han Valle de los Caídos, han dao besteko mojiak dianak bestek eztatzen dute beste ezer baino gehiago, eskaparate bezela izugarria ezinda obia izan ee, han Valle de los Caídoseko zean aldarian pixkat ola altxatuta zea, tamaino natural da bi bi ee metro terdi o ola baino nere aita etzan behin ere sartu, Valle de los Caídos horrek izen handia eman dio klaro baino eskaparate bezela izugarria da atzetik sartu eta aurretik ikusi Kristo handi hura. baino eztatit nola guazen....

Bidasoro Blasco, TRINI



Errepublika garaiko Batzokia Zumaiian

Kontu haundirik ez. Akordatzen nauk euskeraz irakurtzen eta idazten ikasteko eskolak ematen zituela. Ni ez nittuan juden, baina bazekiat Jontxu Uranga eta Xanti zapateroneko Jontxu eta hauek danak juden ziala. Uste diat Iñaki Beobideren osabak ematen zula eskola. Ez nauk gogoratzen zeatik gu ez ginan juden. Souan lanian, hondartzan... ez zekiat. Antzerkiak ere eiten zitien. Albizutarrak- eta oso jatorrak hittuan, eta ikustera jende asko juden huan.

Gerra Garaia

Ikusi bauan karlista danak manifestaxioetan bandera espainolakin! Jesus! Jesus! Akordatze hutsakin gaixotu eiten nauk. Danak txapel gorrixakin... Eta gero gainera, elkar ikusi ezin... Gero, gerra ondoren, Franco Donostira etortzen zanean, hemengo abertzaliak, fitxatutakoak, paketia hartu eta Donostira juden hittuan, Ondarretako kartzelara. Beaixen bila etorri baino lehen, andar Donostira. Gure aitta ere kartzelara eraman zien behin. Gure aittak batela baten egarria izan zian beti eta, hala, egun batian etorri zikok Joxe Tximin eta esan zio: Hi, Getaixan bazeok Intxarkundia izeneko batela bat saltzeko. A, bai? Eta jun da gure aitta hori Getaira. Nik ez zekiat zer gertatu zitzakon gizajuari, pixkat edan-edo intzuan-edo, eta hango aguazilak detenitu eta eraman du Donostira kartzelara. Etorri da, orduan, Mikel kojua atejoka eta esan dit: Zuen aitta kartzelan dago! Gure aitta kartzelan dagola? Itxian falta diagu eta ez zekiat non dan, nik. Ba, lurren gainian eiten du lo eta koltxoi bat edo zeozer eramaiozue, Mikelek. Eta nik: Eramango ez zioat, pa! Hartu koltxoia buru gainian eta andar Donostiraino. Garai hartan, hondartzan, guk ez ginikien zeinekin hitz egiten gendun, zeinek zer ideia zeukan, zein zer zan, ezer ez. Guk gure lana ein eta kitto. Baina, gure aittakin famili batek konfiantza haundixa zikan eta haren papeleo dana hauen eskuetara ailagatu una aitta kartzelan zeon bitartian. Pero, si yo a este señor ya le conozco!, gizonak, yo me hago cargo de este señor, esan zian. Militarra huan. Hala, gabetik goizera gure aitta etxian presentatu huan. Ez den esan zer egin zuen zuen aittak kartzelara eramateko. Ezer ez, motel. Gora Euskadi askatuta!, diarra egin zulako Getaixan.

Hilabete bai. Ai, gauza hoixek ez dittuk ahaztutzen! Lehen esanda bezela, hondartzan gauza asko gordetzen ginien.

Hoixen tartian pistola bat. Hondartzara zenbait jende guardaespaldakin etortzen zanez, guk pentsatu ginien guardaespalda hoixetako batena izango zala. Hala, gure aitta hori kartzelan dala, batek esan zio: Usted no me conoce a mí? Gure aittak: No me acuerdo. Eta gizon honek: Pues yo ya me acuerdo de usted, que me guardaba una pistola en la playa. Ahora sí, ya me acuerdo –gure aitta horrek- creía que eras un guardaespaldas. Pues no, hark, yo era jefe de unos ladrones. Yo estoy en la carcel pero mis chicos están trabajando. Pentsa ezak gauzak nola dian.

Gose garaia

Guk soua ginien. Gero taloak eiteko irina erosi, moakila ein, hura jan eta aurrera. Artairina eiteko Malutonekoak makina bat asmatu zien eta ni haixen etxera juden niñuan artalea pasatzera moakila eiteko. Baina soua ez zeukanak gu baino okerrago. Ibili ein behar gora eta behera! Gero, racionamientoa ematen zien eta hilean behin ematen ziguten racionamiento hari beti beira egin behar. Zer erremixo! Gure aittak kainaberakin arrantzan ere eite zian.

Hor Itzunen ibiltzen uan. Lapa patatekin ere jaten ginien, pentsa zak, eta olarrua patatakin asko. Oain ez dek jaten, beharbada orduan asko jan gendulako. Orduan haitzian jende asko ibiltzen uan. Txoazkina, lapa, olarrua, andarika, maulixua, ixkira... Ibili beharko! Gaur egun dirua bazebilek, baina orduan ezer ez.

Egaña Etxabe, JUAN JONTXU



Gerra bukatu ta politika ta, ni gerra hasi zanian 4 urte nezkan ta gerrako kontua asko goatzen naiz, baino gosia, ama oso osoik jateko gosia oi pasa genun guk gosia eta 41, ori gainea zea egia da sobauak genezkala,ta bildurgarriya ta salbatu ginan muakilakin, muakila aituko zenun, muakiña da iriña egosita, eta errotan eskuzko errotan pasatze zan artan pasatzen zan garia artalia, artua errotan xexe izan beharrian pixkat koskorra, ta esniakin ona izango zan baina esneik etzeon ta urakin, alimento handia nola dakan artuak, hark salbatu bestela junda egongo giñan mundu honetakin, egosi eragin, ta moakiya, hark salbatu zigun moakilak, arrek salbatu zigun, bestela dudik gabe junda eongo ginan aspaldi, bildurgarizko urte txarrak pasa genituen, gosia, baserritan enbilletan zuhatzen, haiek baserria, baserritan taloua, esnia artua, ta han beste martxa bat ogiare bai ta dena, artua beaiek egindako artua ogia, ta haiek goseik ez haiek ta guk gosia kistona, 52koa etxen soldauta, racionamentua zeon artian, pentsauzu 52 en racionamendua zeon an, 19 jun nitxuan ta 20 urte egin nituen an, 2 abril jun ta 1 mayo 20, gosia, grazia soldadutzak daka hau jendia txarra zala esatezun baino guk jan genun gustoa gosiakin jan berko, sasoia galanta ta jatekoik ez lan eta lan hemen zeon, astilleron lan eta lana eta gosia, urte gogorrek pasaitugu, urte gorrek eztao sinisteikan, gaurko gaztiak ezta sinisten ere pake pakian baitaude, eztue sinisten ze pasatxeu.

Bakit nik gure amakin artua eukitze genun, erderaz esateana maiz, gure ama zakun sartu, Larrondon zeon errota bat eta bestia zeon txabola deitze zaiona Oikiñan, Oikina baino auztako ia miako kruzian ta an zeon beste artua zeatzekua errota, eta gure amak han gehiago ematezuela ta kargatu mutil kozkorra 12 urtekin ara jun kargauta ta etorri 6 irinekin 15kg 20 etzun eukiko enun emango ta nola eramango nun nik 6 km baino gehio eongoia ta 6 km igual eongoia jun eta etorri, eta pisu kargatuakin, jun kargauta ta etorri kargauta 15kg, 15 eukikoitu 20 etzan izango zeatik nola emangonik 6km diata, jun ta etorri, pisu handiakin jun kargauta ta etorri, hemen paula urruti hemendik, baina hura dobla baino geio ta hor baino gehio ematezuela ta hara, hara jun ber izatenun. Gorra gorra oso gazte denbora bildugarria, juistu gerra eta gerra ostia.

Frantzian gerra mundiala, Espaina etzan sartu emen 39 bukatu zen gerra ta Frantzian 41 hasi zen eta 45 bukatu zen. Frantzian ogi zuria zeon, gu soldadu jun hemen etzeon ogi zurik gosia bakarrik, olio litrua 20 euro eta 20 euro lortzeko haste osua egin-bearko lana. Estraperlua ta racionamentuan ematezuenakin gero sueldo de konsuma, eta racionamenduakin ateratzeakuakin, bajaranak nola esatek gehienak emateianai klase bajuai, baliak eta gauzak, denda jun ta baliak.... Kategoriak zian 1 2 3, bajuna kantidade gehio bajua bazinan mejora gehio pixkat-pixkat mejora gehio, gorra gorra bildurra pasadeu gazte denboran eta inbidia baserritarrena puffff----- eta familia baserritarran ere....

Etxabe Oliden, BARTOLO



Erreketek Oikiako apaiza eraman zuten; haren pistolaren anekdota

- Hamengo gerran hasieran, gu mutil koskorrak giñun. Kao, geo gerrak urtiak pasa zixkiñ...
- Bai.
- [...] gero. Baiña hasiera lehenotik eman ziñ.
- Bai, bai, bai.
- Hor, oan, goian, mendi horren gaiñian piñuak eta ikusten dittuk?
- Bai.
- Hor gaiñian naparrak azaldu hittun lehendabizi.
- Reketiak?
- Reketiak, lehendabizi, gu mutil koskorrak giñun.
- Eta hortik, e...
- Eta hamengo...
- Hortik [...]?
- Hortikan geo Oikiya etorri hittun, hortikan, tropatan, ta. Gero hortik...
- Eta hamen, batallarik eta izan zan hamen Oikiyan? Ez.
- E?
- Hemen, reketiak eta sartu zianian?
- Ez, ez.
- Gerrarik ez, ez? [...].
- Ez, ez, ez. Ez, ez. Kao, soldauak zean bezela, zeaka, haiek martxan zatoztinak gosiak eta. Oillatokittan ta in ziyen zeoze, aberiya, oillo batzuk harrapauta ta. Nik goguan zakat Oikiyako frontoian ordun zeon apaiza komandantiak, numero tresen parian, jata tirillak eta danak kendu zixkon ta, pistolakiñ apuntatzen eon zala, bertan hil behar zula ta. Ta ez ziyen bertan hill. Zumaira eaman ziyen zeak, hiru soldauk, bi alde banatatik ta beste bat atzetik. Karo, hori... Oikiyan ordun zeon apaiza.
- Eta apaiza zeaitik eraman zuen?

- Apaiza oiñez eaman ziyen... Zeatik?

- Ez, ez, zeatik.

- Beste koloreko zalako.

- Gorriya ez zan izango baiña, ez?

- Gorriya o... Ordun bi kolore bakarrik hittun. Oaiñ milla kolore zabek, baiño ordun...

- Alde edo kontra.

- Ordun gorriyak eta karlistak [uste det] izaten zuan ordun. Ta hori nola eaman zan [...] nik. Ta harek, [...] ta!, harek laga zun pistola, pistola bat zakan apaizak, altarian atzeko zean laga ziñ. Ta sankristauak enterrau in ziñ. Ta nik in nin billau. Ta nik euki niñ igual pistola, pistola, holako pistola txiki bat, haren pistola, euki nin igual hogeita hamar urtian gordeta.

- Gordeta.

- Itxian ez dakiyela. Iñoi esan gabe, neu, neu bakarrik. Hori lehengo baserri zaharrian, ganbarako habe haundi batian. Ordun holako habe haundiyak hittun, biga haundiyak. Haietako baten gañian eukitzen niñ pistola hori, bere kargadoria kargauta, ta balak [...] euki nin, ta. Geo ez zekit nola dan... Etxia bota gendunian, han beheko basarri zaharra bota gendunian, nei akordau o. Kao, han eukitzen ninian ez nion kasoik in, ta. Ordun [...] seguru asko hor enterrau ingo huan hua, pistola hua, baiño. [...] gustatu iten zeai eukitzia [...] oaiñ.

- Eta Oikiyako apaizana zan hori.

- Ba, bai. Oikiyako apaizana.

- Ta nola enteratu ziñan zu bertan enterratuta zeola, edo sakristauak ezkutau in zula?

- Sankristaukiñ administradoria eo, sankristauakin... Kao, gu mutil koskorrak belarriyak zorrotzak genduzkan ordun, ta eozer gauza jaso iten giñun. Ta ni enterau eo. Ba, haiek konbersaziyua eukiko zuen baten batekiñ harek, ta...

Etxabe Udabe, JOXE



Gerra Zumaiara etorri zenean

Bai. Nola etorri zian. Gu lanian ari giñun eta Oikiatik goitik behera etorri hittuan karlistak. Haiek etorri zianian gure baserrian bi anai ixkutatu ein ittuan, beste anaia, Joxemai, hasieratik jun huan boluntario. Beste anai bat frankistak soldau eaman zien. Eta hura gerran kamiñero ibili huan. Oriamendin. Gerra garaian hiru zumaiar azaldu hittuan gure baserrira permisuakin-edo eta mendira jun hituan eskopetakin ehizea. Guk mendian txabola ginian, oiluena, eta gure ama zanak han zaben oilorik ederrenak hartu zitian haientzat. Gau hartan hauek Frantzira jutia pentsatu zien. Geo, uste diat bidian bi harrapatu eta batek ospa ein zula, baina ez zekit ondo.

Zumaiatik bidaliak izan zerenekoak

Bittartetik hamar lagun-edo. Hiru arreba, anaiak lau, zazpi, ezkondata zeona, zortzi, aitta eta hama... hamarbat lagun edo. Kamioian, Hemen Larrondoko Xalegik eaman gatzibiden Ondarruraino.

Zumaiatik Jende asko, kamioi asko...Zumaiar emakume karlista bat gu ikustea jun huan. Gu ikustea... parrez egon huan guri begira.

Nola EGIN ZUTEN BIDEA

Ondarrutik Lekeittiora oinez joan zineten,. Kamiñua dana puskatuta zian. Geo, ez nauk ondo akordatzen, uste diat zumaiar bat zeola gure zai. Lekeittiora ailegatu eta Gernikara automobiletan. Forura. Han pasatu giñun denboraldia. Praileak zibian orduan.

Foruan ezer gutxi egiten genuen. Goizian jaiki eta ogi bila oinez jutun giñun Gernika. Ogia triangulukoa izaten huan eta ez zekit zenbat balio zun. Perro haundia edo.

Gernikako bonbardaketaz gogoratzen dena

Akordatuko ez nauk, ba! Kontatu ezak, ba. Gu mendian arbola tartian giñun...Han bazuan baserri bat "amerikanuena" deitzen ziuena, ganau talde haundia zian. Haren atzeko aldian dana piñuteia zian eta gu piñu kozkorren bila juanak giñun.

Han gebela, aurrena abioi bat hasi huan bueltaka. Bueltak eman eta bueltak eman. Ni bildurtuta, hau ez dabilela ondo, honek badula zeoze, eta: Goazen etxea eta goazen etxea, hasi niñun. Geo abioi mordoska azaldu huan goian. Dedio! Piñutei dana erre zien gu etxea etorri giñanean! Jo ta dana ametrailau ein zien! Han jendia zeolakuan-edo. Hurrengo egunian jun giñun piñutei hura nola zeon ikustea. Ja ta dana erreta, txikitua zian. Eskerrak etorri giñan, esan zien. Bai, oain akordau?, nik.

Bonben danbatekuak aitu, eta sua ikusi ere bai. Gaueko zortziretan oaindikan ere sua haundia zian han. Gu geben tokitik eer-ki ikusten huan sua. Nik ez zekit ordun... Loiolako kuartela zian han, eta, hura nola puskau ez zuenedo... Saseta eta hoiek danak

honuzkaldian zaben eta hoiak danak osoik geau hittun. Pikardia haundia ein zien.

Gernika bonbardatu ondoren Foruan bertan gelditu al zineten?

Han beste bi egun ein eta Bilbora jun giñun. Han konbento batean eon giñun, egun bat-edo, eta handikan Somorrostroa. Etxe zahar batian eon giñun.

Bilbo hartu zuten arte egon Gbertan gelditzea erabaki zuten

Bai. Gerra galdu eta geo Somorrostroik Zumaira etorri giñun. Han Somorrostron karlistak ba hittun, naparrak-edo ez zekit zer zian, eta, jo, aber zeatikan herritik bialduak izan giñan gu. Esplikatu zitxion gure aittak-eta, arrebak-eta. Joño! hark, danok alde batekuak izan bagiña, ez zala gerrick izango, esan zin. Beak lagundu ziun eguna argitu baino lehen, goizeko bostetan, mendia pasatzen. Gu zuluak gaxaben eta hark lagundu ziun.

Denbora luzean ibili al zineten mendian. Ez mendi hura pasa eta herri txiki batea jun giñun. Han kamioia jarri zien gu Zumaira ekartzeko. Dirua ere han kanbiatu zien. Gure aitta zanak ez zekit zenbat diru kanbiatu zun. Bueno, azkenean Zumaiara iritsi zineten. Bai. Gu Zumaira aileatu giñun eta orduan gure anaia zaharra frankistak soldau eaman zien. Lanak eitea.

Gorostola Iribar, MARIA LUISA eta VITTORI



VITOREN GOROSTOLA IRIBAR

Zumaian Kalle San Telmon jaioa nintzen 1936an, gure familia betidanik Zumaiarra izan zen. Gure Ama Luisa Iribar Garate Getarin jaio zen baina ezkondu eta zumaiara etorri zien bizitzera. Gure Aita Fortunato Gorostola Etxabe zen bera zumaian jaioa. Guere aita itsasoko gestioak egiten zituen horregatik asko iblitzten zan Pasaia donosti eta antzeko portuetan. Ama Baserritarra zan 9 urtekin atera zen, ordea beti egin zuen lana interina bezela donostiako hotel batera joan zen lana egitera.

Nola Irtisi zen gerra zumaira?

Amak askotan komentatzen zigun nola gerra garaian Tolosako jendea etortzen zen. Guerraren ondoren herriko asko bota egin zituzten horien artean gure izaeko. Gure izeko eta bere senarra Sota y Aznarrekin egiten zuten lana. Berairntzako izarieka eta mantak egiten zituzten. Gure familia betidanik nazionalista izan ziren eta hori garesti ordaindu behar izan zuten guerra garaian. Gure familian beti esan izan zen apeztegiterrak izan zirela zerran horien arduradunak. Berengatik familia asko zumaitik bota egin zituzten. Gure ama ordea zumaian gelditzea lortu zuen, gure aitea beti heri zegoelako, estomagotik sufritzen zuen eta. Beraz udaleko botere berria ezarri zenean gure ama kuartelera eraman zuten beste hiru emakume edatuekin batera (Calle Santelmoko tximininekuekin ta bestia Rosario "Chata", hirugarrena ez naiz gogoratzen zein zen).

Beraz, gure ama emakume oso fuertea zen, bizitzak erakutsita. Orduan kuartelera joan zenian, Mehatxatu egin zioten; ez baldin bazera ixiltzen herritikan bota egongo zaitugu. Gure amak orduan zera esan zion; Kuadro horrek ez du neregatik hitz egingo (Francoren kuadroa seinalatu zuen bitartean) Zuek Santa Maria esaten badezue, nik Ave Maria esango dizuet. Orduan udaletxeok ixilik egoteko esan zioten.

Orduan gure amak asko sufritu zuen. Gero aita gerrara eraman nahi uten frankistek Caminero Moduan. Ta Txapero Tximbi Ayuntamientoetik etorri zen aitari abixatzeko, Aita detenitu egin zuten, orduan amak herrian laguntza eskatu zun gure aita libratu ahal izateko, baita lortu ere. Donostitik zertifikatuak eta antzekoak lortu zituen. Horretarako mediku ezberdinetaras joan zen bere enfermedaderen inguruko informeak lortzeko. Guzti hau 1936ko irailaren 21etik haurra gertatu zitzaion gure familiari. Dena oso azkar gertatzen ari zen eta... Pesetaikan ez zuten, 9 ume izan zituen eta gainera gaixo. Gure familiari falta zitzaiona aita gerrara eramatea zen...

Gure Aita eta karmelo Unanuenea kontatuko dizut. Carmelo Unanuek zea 5 litro esne, Semola tapica eta antzekoak hartu behar zitun. Carmelo Unanuek ez zion hori guztia eman nahi eta udeletxetik bota zuen meatxatuz berrio gerturatzen bazen ostikoka botako zuela. Ordun, gure aita donostira joan zen medikuen zertifikatu bila bertan behar zuen guztia lortzeko asmoarekin. Baita eman ere orduan gure anaia joaten zen egunero zertifikatua eskuan zuelarik behar zitunak lortzera.

Gure eman egin behar izaten zituen koltxoiak, bizimodua irabazi ahal izateko. Baina ez ama bakrik baita amaren aizpak eta amona zana ere.

Errekisaren garaian, Petra Aperribai zan, Zumaiarra bera. Haren semeak eta ere aurrean zian, falangista bat edo sekretariaua (ez nago oso ziur) Periko izenarekin gerturatu zitzaionean. Gizon hori Petrana gerturatu eta esan zion; Petra, zea juanitok zer dazka emen lagata... zer etxe edo ditu emen lagata? Petra tente jarri eta zea batean esan zion: Gure juenito zer dazkan? Berean berekin eta dazkan lekuan ondo ximurtuak.

Gure anaia Carlos Gorostola gerra garaian 16 urte zituen, Bilboko familiarengana jun zan. Bertan zegolarik gerra han harrapatu zion. Orduan Guipuzkoara joan orde z joan zan Santanderra, gerratikan ihesi. Berarekin batera kuadrilla handi bat juan ziran Iparralderaino, naiz eta ez jakin ze herritan. Bertara iritsi zirenean pabelloi haundi batzutara etaman zituzten, Larri gorritan jarri ondo ondo garbitu eta indizio batzuk eman zizkieten. Gero bi urte oso egon ginen inolako notizirik gabe. Eta derrepente ia egunero karta bat iristen hasi zitzigun bere berriekin. Baina Mundu gerra Iritsi baino lehen Frantzia utzi egin zuen.

Gure Familia Zumaiatik bota egin zuten, beste zumaiarekin batera. Baina batez ere izeko eta amarren anaiz bota zituzten. Besteak hemen gelditu ginen. Gelditu ginenen artean bizimodua ez zen erreza izan betirako markatuak izan ginen ideologiaerengatik. Gurekin lan Egindako bati gertatutako kontatuko dizut. Jexusa emakume maja eta salerosa zan, fabrikan elkarrekin egiten genuen lan. Ba Jexusa eta Triniri hilea moztu egin zieten eta herriari buelta ematean behartu ere. Gure amari ere multa bat jarri zioten 1940ko uztailaren 20n ta honela zioen;

En el Uso de Atribuciones que me han sido conferidas, he acordado en imponerle a usted una multa de 150 Pesetas por falta de colaboración al Glorioso Movimiento. A Maria Iribar Garate.

Gure izeko Eulalia ordea Emakume abertzale batzako Kidea zen eta horregatik gerra garaian zumaiatik bidali egin zuten.

Eguneroko oso zaila zen, familia galtzailea ginen. Gure familian 7 ume ginen, Aita gaixo eta ama Debara joan behar izaten zuen lanera. Gerra ostean errazionamendua etorri zen eta berarekin batera gosea. Gure aizpa neskame zegona ez dakit nola baina beti lortzen zuen errazio pixkat haundiagoa. Gero gainera diruikan ez zegon eta guk joaten ginean errazionamentu bila batena eskatzen genuen. Banatzaileak erre egiten zuren gurekin eta esaten ziguten errazioek denak batera eraman behar genitula, guk dirua genuen heinean eramango genula esan nion. Gu zortea izan genuen, goserik ez genuen pasatzen ama baserritan lenean ibiltzan zan eta diruarekin ordaindu orde generoarekin ordaintzen zioten. Gainera horretaz aparte ere koltxoiak egiten zituen eta hura beste diru sarrera bat zen.

Eskolan ibil nintzenean, Hermana Justa eta Hermana Carmen izan nituen eta... euskeraz hitz egiten bagenu, eskuak zabal zabalik jartzen zizkiguten eta bagenekigun zer zetorren.

Gure amaren etxean beti era normalean hitz egiten zen politikaz. Horregatik beti egiten ziren gure amaren etxean "tertulia politikoak" egiten ziren.

MARIA LUISA GOROSTOLA IRIBAR

Ni 1925ean jaio nintzan zumaian, orduan denak etxian jaiotzen ginen. Izatez bederatzi anai arreba ian zitun amak baina zazpi izan ginan. Gerra baino lehen, gu ondo bizitzen ginan, kalean jolasean beti. Eskola junda, asko ikasi ez baino ibli ginen bertan, beintzat atzera ta aurrera.

Gerra aurreko zumaiaz gauza oso gutxiz gogoratzen naiz. Zumaia herri txikia zen, alderdi ezberdinak zauden; Errepublikarrak, Abertzaleak, Sozialistak... gogoratzen naiz hauek etxez etxe ibiltzen zirela botuen bila. Gutxi gogoratzen naiz urte horien inguruan. Gu umeak besterik ez ginan ta sokasaltoan jolasean ibiltzen ginen ta jai egunetan trena nola etortzen zen ikustera urbiltzen ginen.

Ama Justo-Enera joaten zan lanean, gerra Zumaiara etorri zenean, amak zera esan zidan; Hor egon hai jarrita, estankoan bertan dagoen bankuan exerita eta agian baton bat etorriko den Donostitikan edo... baina ez zen inor etorri.

Beranduago gure donostiko izeko bat etorri zen, bere familia bizkaialdera joan eta gurera etorri zen. Egun hura oso tristea izan zan, jendia etorri eta etorri, donstiatik, tolosatik. Askok ez zuten ezer ekartzen.

Yeregineko Ofizina lan egiten zuen eta bertan *Radillo* haundi bat zuten. Gerra garaian gure aitaren ohe azpian ezkutatzea erabaki zuten. Aita, beti gaixo egoten zenez, hura salbatu in zan. Beste batzutan itxasotik eotritako itsasuntziren batean ekarritako bakailua lehortua gordetzen genuen Aitaren Bizkar atzean. Bazekitenez jaixzegoela ez zioeten inoiz begiratzen.

Gerra ondoren mojetan ibili ginan, monjak gurekin gaizki portatu ziren. Gure izekok eta kontaktzen zituen, erderaz hitzen bat egiten bazuen, anillo batzuek jartzen omen zizkuen kastigotzat. Gogoratzen nahiz gerra denboran nola herriko batzuei kaxkamotz utzi zieten eta gu hura ikusi nahian egoten ginen.

Bizimodua aurrera ateratzeko, antxoak burua kentza joaten ginen, diruaren truke. Eta beranduago zumaia eta mehagas tartean aurkitzen ziren baserrietar joaten ginen arto lokotxak biltzera. Artueri gaineko kentzen genion, esaten zuten artuearen azalarekin arrantza egiteko oso ona zela. Baina horiek lortzen ikaragarritzko hotza pasatzen genuen.

Gure Amamak eta gure izekok bankuan dirua zeken, gerrarekin egin zieten diru dan inkautatu. Beraiek calle Riverako Banco Guipuzkoanon zuten dirua sartuta, Nekez urte askoren ondoren bueltatu zieten errekiatutako diru hori.

Faxistak zumaira sartu egin zirenean, kalean espainako imnoa entzuten bagenuen geldi gelditan geratu behar ginen hura bukatu arte. Gure Anaia Carlos, urteak eman zituen gerraren ondorioz kanpoan, gure ama egunero karteroarengana juten zan galdetzeko ia eskutizik iritxi zen edo ez. Korreoa jasotzen zen sarrera haundira joaten zen eta ¿Hay Carta? Baina erantzuna beti ezezkoa zen, horrela eguneroa. Baina egunbatian karta iritsi zen eta denak pozez jarri ziren. Alemanak frantzia aldera sartu zirenean, ordun itzuli ziren Zumaia aldera. Itzuli zenean Ferrolera eraman zuten, bertan harri tartetan egon zan kartzelan ta hor fastidiatu zan.

Gure Anaia Carlos, aurrena bizkaiara joan zen. Bertan gerrak harrapatu zuen orduan Arenasetik ihesi atera zen Frantzia aldera ez daki bizkaitik edo Santandertik. Frantzian libre ibili zan lan ezberdinak burutzen, beren artean piñuak botatzen eta horrelako lanak egiten bizimodua irabazteko. Baina Naziak frantziara sartu zirenean itzultzea erabaki zuen. Beren lengusuak (Donostiarra zena) ordea ez ziren etorri eta haiek kanpo de Concentracion batean egon ziren.

Gure amak multa asko izan zituen diktadura zehar baina batez ere lehennego urteetaan. Berarekin batera, beste lau emakume eraman zituzten. Gure ama danetan hitz egiten egon zan, nere amari momentu horretan ez zitzaion ezer inporta. Lau ander eraman zituzte eta inorrek ez zekien erderaz. Guere amak ondo zekien erderaz, eskola ez zekan baina erderaz egiten zun a las mil maravillas, eta bera jefa kuartelera eraman zituztenean. Amarekin eraman zituztenak, Tximineneko Erramuna bat, Joakina bestea eta Rosario Txata. Orduan beldurraz bizi ginan baina etxdetako ateak guztiak herrikoentzat irekiata.

Iruretagoyena Illaramendi, KARMEN



Aurrerago, gerra pasa ostean, arazoak izan zituen lana bilatzeko?

Ez, bera arotza zen eta hemen Beduan barkuak egiten zituen, eta bera baserrikoa zen ere, beraz ez, gainera ume-umetatik Beduan ezagutu nuen. Zumaiatik hara joaten zan bizikletan.

Ba al dakizu isunik jarri zioten edo?

Ez dakit ezer, badakit soldadutzako anaiena eta kuarteletik pasa behar zela derrigorrez.

Beste familiarren bat izan dezute?

Ez, bueno amaren aldetik baina hori Zestoakoa da, eta amak esaten zuen, bera Aizarnakoa zen, eta etxera joan zitzaiola bila eta gehiago ez zela bueltatu. Alicanten edo hil zuten eta arrasto gehiagorik ez dut. Bizi zen baserri batean oraindik Jaungoikoa ere ez dena sekula iritsi, Granada errekan, eta handik eraman zuten. Gero etxean geratuko ziren beste bi arreba, ze falta dira hemen, haiek baserriak utziko zituzten.

Gero arazoak izan zituzten baserrira bueltatzeko?

Ez, karo baserrian arreba zaharrena gelditu zen eta aitita ere bizi zen, orduan hor geldituko zen ze nik aitita ezagutu nuen. Orduan aitita eta alaba zaharrena geratu ziren, ezkontuta eta bi ume zituen.

Nola izena du baserriak?

Baxakalte, San Miguel auzoan.

Gero batzuetan egiten zuten gudarien familiakoei, ba urtero joaten ziren elikagaien bila ba pixkat zigor bezala badakizu, kentzen zizkioten animaliak edo...?

Ez dakit ezer.

Orduan ez zen asko hitz egin zuen etxean?

Ez, esan dezuna ba igual beldurrarengatik. Gero 66 urterekin hil zen eta pixkat aurrerago beldurra gutxiago zen, berqz bueno ba igual gehiago hitz egingo zuen. Ni joan nintzen nire aitaren lehengusu baten hileta batera Donostira, eta lehengusuak esaten zuen " ene haiek kontatzen zituzten istorioak baina beraiek umeak" eta kasurik ez zietela egiten, orain kontatuz gero...eta hori komentatzen zidan aitaren lehengusu horrek baina umetan kontu hoiek ez dituzu nahi jakin, eta gero jada berandu.

Linazisoro Azkue, ABELIN eta Garate Elosua, ANAMARI



ABELIN LINAZISORO AZKUE

1942an jaioa zumaiaiko herrian. Gure aita Abeliño Linazisoro Areta (1910 ean jaio Zumaian), ta gure ama Irene Azkue Egaña (1911an jaioa Zumaia). Beren ezkontza eguna 1936ko irailean jarri zuten, baina gerra piztearen ondorioz 1940ean ezkondu ziren Zumaian. Nere anai zaharra 1941ean jaio zen Zumaian, Juanito Linazisoro Azkue, eta gero ni jaio nintzen. Ni jaio eta bi urtetara, gure aita hil egin zen bertan eman zioten tiro baten ondorioz. Aguantatzen, aguantatzen egon zen eta azkenean hil egin zen.

Gure familia kalekoa zen, gure aita lehendabizi botikario laguntzaile izan zen, gero drogeri bat ireki zinan berak, gerra bainio lehen. Gure amak, neskame bezala lan egin zuen dirua aurreratzeko ezkondu ahal izateko.

1936an

Gerra piztu zanian, hemen lenendikan 1934ean eskubiko jendiak karlistak eta asko mobilizatu ziren bi urtetan zehar. Beraz gerra piztu zenean, hauek hartu eta hortxe Palacio de Ubillos zegoen tokian, han beian sartu zituzten prisionero. Hau udalaren eta errepublikaren alde azaldutako alderdiekin batera egin zuten, hauek guztiak kontrolpean izateko. Udaletxeak beldur bat zeukean ordea; milizianoen etorrerarekin, Ubillos jauregian espetxeratuak afusilatuak izango ziren beldur zuten. Orduan PNVko bi, hauek gartzetik atera, eta konfidantzazko zumaiarren etxeetan sartu zituzten beren bizitza kontserbatzeko. Bi horiek nere osabak ziren, bata Antonio Esteibar eta bestea Fermin Azkue.

Kontua da gero, Erreketeak Zumaiara iritsi zirenean, kriston xoua egin zutela, espetxean egondako hauek bere Errekete jantziak atera ziren eta emakumeak Margaritaz. Tropak kostatik etorri zirenean, egun bat edo egon ziran. Lehenago, zituzten armak deskargatu eta zumaiaiko elizan sartu zituzten baita gartzela bezala erabilia izan zen Ubillos Jauregian. Azkenean, beren junta de gerra Behekoo plazako etxea haundi batean jarri zuten. Honen buru gartzelean egondako erreketak hauek jarri zituztelarik. Beraiek izan ziren erabaki zutenak zeintzuk izan behar ziren alkate. Guzti hau gure amak kontatua zigin.

Gerra piztu zanian, ama eta aita nobiua zian eta honen dendan zebilen. Ama dendan dagola, falangista bat, etorrotzan huan bizarra mozteko xaflen bila... Gure amak konfiantzan galdetu zion, gizona gudari bezala alde eginda zuenez, orduna honek esan zion konfidantza osoan bera ez zela falangista, bera ere abertzalea zala. Goñi apellidoa ziñan. Goñi honek bere familia guztia Iruñan zeukan eta gerrako lehenengo egunetan bere familia osoa afusilatu egin zuten. Orduan ori jakinda korrika batean falangistengana joan zen apuntatzea bere bizitza salbatzeko. Era honetan falangista bezala Iruñatikan, Irun arte gerran ibili zen Zumaira etorri arte. Zumaian iristean bertan gelditzea erabaki zuen. Era berean Goñi honek esan zion gure amari; laster etorriko zaizu baten bat denda kentzea. Abisu hau jasota gure amak dendako guza garestienak hartu eta bere etxean ezkutatzea erabaki zuen. Amaren etxearen atzean baratza bat zegoen eta bertako txabola batean ezkutatu zituen baliozko gauza guztiak (koloniak eta gauza garesti guztiak). Gauza da aitaren kuadrilako bat etorri zela (Lehenago aitarekin burrukak izan zituena) esanez; *Bar-kauzan, baina neri agindu egin didate eta ez daki zer...* Hau honela gure ama ezer gabe gelditu zala.

Gure aita bitartean gerran zebilen, gudarietan sargento bezala. Botikaria izandua zan, Gurutze Gorriko zeakin ibili huan hura. Gerra galdu zanean, ba prisionero hartu zinenan, Bilbon bertan. Garai horretarako Zumaiian bizilagunak fusilatzeke zerrendak eginak zituzten. Batzuk herrian zeudenak eta afusilatu behar zituztenak eta bestea gudari joandakoen izenen lista. Bigarren lista horretan lehen zebilena gure aita zen. Gure aitari orduan pena de muertekin Lugora eraman zioten. Ordurako gure aitak aldakan bala bat zuen sartua eta nahiko eskaxa zegoenez Lugon urez betetako zienaga batean sartu zuten. Urगतिक bertan oso gaizki ibili zen, lurtean urakin ta etzan ezin... Afusilatu baino lehen ospitalera eraman zuten, badakizu afusilatu baino lehen osasuna euki behar den. Ospitalera eraman, eta kasualidadez, hemen Ibañaberrietako apaiz bat ospitalea jun zan bertan baten bat ikustera; Baina Abeliño, zer egiten dek hemen? Baina gizona esan iezaioi parrokoari Catolico Apostolico Romano zertifikatua egiteko.

Orduan aitak gure amari karta eskatu zion hori eskatzera, amak karta hartu eta parrokoarengana joan zan zertifikatua eskatzera. Parrokoa gure ama bizitzen zan etxearen goian bizi zan eta betidanik ezagutzen zitun aita eta ama. Parrokoaren erantzuna; *baina nola zatoz zu hau eskatzea! Gorriakin jun eta nik ez dakat zertan hau zuri emateko inolako intentziorik*. Beraz eskakizuna ukatu egin zion. Orduan Periko Uranga falangisten buruarengana joatea erabaki zuen. Periko Uranga gartzelean egondakoan eta Ubillos jauregian ezkutaturiko eskuindar horietako bat izan zen. Beren idatziaren ondorioz pena de muertetik libratzea lortu zuen. Beste batean gure aita modu txarrean trabajadoretan zegoenean, Zaragozan, Zumaiako teniente bat ikusi zuen bazterrean zegoela pikatxo batekin era txarrean lanean. Honek esan zion botikariari zertifikatu bat eska ziezaiola esanez nola bere laguntzaile bezela ibili zen. Hori lortzen baduzu nik Gurutze Gorrian sartuko dizut. Gure amama Otaño botikarioarengana joan zen goizeko 9etan eta honek ez zuen 12ak arte atenditu. 12 etan itxi egin behar zuela esan eta atenditu gabe gure amona botikatik bota zuen. Orduan Periko Uranga izan zen botikara joan zena eta gure amonari zertifikatua lortu ziona Gurutze Gorrian lan egiteko. Hori bukatu eta 1944ean hil egin zen.

Aita Zaragozan batalloietan zegoela, amaren bisita izan zuen. Orduan nahiko eskax aurkitu zuen gure aita, lartzela zenaren sala batean egon ziren eta elkarri muxu ematea utzi zioten.

Gure Aita Gerran

Lehenengo Zumaia utzita PNVko kuadrila bateki Bilbo aldera joan zian. Bertan San Andres batalloian hartu zuen parte. Gernikako bonbardeoa tokatu zenean gure aita, bere batalloierekin Gernika inguruko mendi batean zegoen. Bertatik ikusi zuen nola zetozen, itxasoraino joan ziren eta nola eman uten buelta. Haurrena bat pasatu zala kontatzen zuen, visto bueno ematea eta atzetikan beste guztiak etorri zirela ta bonbardatzen hasi ziala. Beraien batalloian mutil gernikar bat zeukaten, Herria txikitzen ikusi zuenean zoratu egin zela. Bere honetik aterata zegoenez, pastillak eman zizkion gure aitak hura lasaitzeko asmoarekin... Oso-oso gaizki pasa zuen. Bonbardaketa bukatu bezain laister Gernikara jeitsi ziran laguntzea. Aitak esaten zuen Gernika oraindik bero bero zegoela eta haragi erre usaia zegoela, kaliak pinportekin globoak bezala eginda. Besteak beste andre baten gorputz erdia ikusi zuela arbol baten kontra pegatuta.

Garaipena ospatzeko Zumaiian egindako Festa

Gudaldi bat irabazio ondoren, Zumaiako mandatarari frankistak desagabioko egun bat ospatzea erabaki zuten. Hura gertatu eta urrengo egunean, desagrabio ekitaldia egin nahi zuten. Orduan bandoa jo herrian. Orduan aukera eman zuten herrian jendea jantzitzeko; erreketez edo falangistaz eta Amayako Plazara juteko, han desagrabioa egingo zalako. Bertan estenatoki haundi bat jarria zegoen erdia erdian Arritokietako Amabirgina jarria zegola, bere ondoan Junta de Guerrako eta herriko apaiza denak zeudela. Kontua da, herri guztia azaldu zela baino inor ez zela erreketez jantzi.

Erreketee oso izen txarra zuten Zumaiian, gauza asko egin zituzten gerrako lehen egunetan; euskeran kontra, Arritokietako Amabirgina erreztatzen ari ziren hiru amonei multa jarri zieten, jendiari hilia zerora moztu... txerrikeri pila egin zituzten. Lapurreta gehienak beraiek egin zituzten, gudari joandakoen eta bidalitakoen etxetara sartu eta ahal zuten guztia lapurtu zuten. Guzti horiek herrira bueltatu zirenean ezer gabe aurkitu ziren. Falangista eta erreketeen erropak batzoki azpian zegoen lokal batean banatzen egon ziren eta jendeak falangistana aukeratu zuen. Momentu horretan Periko Uranga falangista, momentu horretan Zumaiako abertzalei eskerrak eman zien beren bizitza salbatzeagatik orduan liskarra sortu zen Junta de Guerrako buruarekin. Momentu horretan mokoka hasi baitziren. Azkenean tira bira horre jendea alde egiteko aprobe txatu zuen.

ANA MARI GARATE ELOSUA

1945an Jaioa Zumaiako herrian, Pedro Garate Taberri 1903an Deban jaioa. Ama Joakin Elosua zubimendi 1910an Zumaiian jaioan. 1931 ean zumaiian ezkondu ziren San Valentin egunean (otsailak 14ean).

Nere gurasoak, aita herrementari bezala egiten zuen lan, oso gazte etorri zen Zumaira Debatikan. Hemen neska ezagutu eta segitun ezkondu zen. Gure ama, etxeko andrea zen, baina aita gartzelan egon zanian, gerra bukatu eta gero, ta bi umerekin zeozertan lanean hasi beharrean izan zuen. Gure ama Zumaiatik bidalia izan zen guerra garaian eta itzuli zenean zeozertan lanean hasi behar eta arrai saltzen hasi zen, mutriku, ondorr eta inguruko herrietan.

AZKEN ZATIA

Ama orduan gero, batailloietatik bueltatu zenean?

Amari bixita egin zion Zaragoza eta nahiko eskaxa bilatu zuen, kartzela bezalako sala handi batean eta elkarri muxuka utzi zula ematen du. Esan ziola bikotiak banaka banaka eta han bixita bat ere ez zan. Baina gertatu zitzaion nahiz eta gero Gurutze Gorrian egon, ba berriro txarrera egin ziola gaitzak eta orduan oso gaixki bilatu eta pentsatu zutela bidaltzea hona. Ordurako bere anai zaharrena oraindikan gerran zegoen eta ia frentea pasatu behar izan zuen Zaragozara joateko eta anaia jasotzea jun

orr.

zan, abixua pasatu zuelako batenbat joateko etxera eramateko. Beldurra zeukaten han hilko ote zen eta ez zuten nahi Gurutze Gorrian hiltzea beren aldekorikan eta ekarri egin zuten bai. Ekarri zuten eta segituan sartu zuten Donostiako klinika batean, eta bueno han beintzat, probisional beintzat, pixkat ondo ipini zuten eta halaxe iraun zuen urte batzuetan.

Eta gero etxera ekarri zuten edo?

Donostiako klinikan pixkat ondo jarri zenean, etxera etorri eta 1940an ezkondu zen. 1941ean nire anaia jaio zen eta 1944ean hil zen bera.

Etxean beti kontaktu izan dizkizute gerrako gauzak?

Bai, bai.

Inongo beldurrik gabe?

Beldurra gu hasten ginenean pixkat altu hitz egiten, ba gure atzean karlista bat bizi zen, beste etxe bat zegoen eta han karlistak bizi ziren, eta orduan nire ama joaten zan segituan eta. itxi egiten zuen sukaldeko leihoa, inork aitzeko beldurraz. Aitzen genun irratia, Londres edo Paris edo eta baxu-baxu ipintzen genun badazpada ere.

Orduan irratia bazenuten etxean?.

Gure aita zenak dendako dirutik aparte, beak nola herri praktikantea zen , hor nola zebilen ikasita gauza asko, indizio merkeak ematen zituen, kobratzen zuen zeeze, eta baita argazkiak ere ateratzen zituen. Eta orduan indizioak, argazkiak eta dendako negozioakin poliki bizi ziren.

Eta periodikoa etxean bazenuten? Normalean egoten zan edo ez?

Periodikoa gure dendan bai, gurre aitaren ohitura zen, gure amak irakurri nahi izaten zuen periodikoa.

Ze irakurtzen zuen, badakizu?

El Diario Vasco bazegoen han eta bestea La Voz de España, baina La Voz de España gerokoa izango da, Diario Vasco gerra garaikoa izango da. Diario Vasco ere gerora, bai hala uste diat.

Ama ere PNV-koa zen?

Bai.

Berak zeukan ideologia zer zen gizonagatikan?

Begira hemen datu bat emango dizut, amaren aita.

Elbarritua joan zen bere gurasoekin?

Bai, jakin zutelako listan zeudela. Patxi Barrendero nola ibiltzen zen udaletxean, "ni enauk barrendero bakarrik, ni jefe de bomberos ere bai e" esaten omentzion. Sua zegoen bakoitzean mangerak ipini eta...Kontuz harekin, lista ikusi egin zuen ixkuta-tuta omen zegoela, baina ikusi egin zuela. Eta ikusi zuen Juana Areta Garate, Juan Linazasoro eta Azkue.

Eta joan ziren hirurak Bilbora?

Bai, trenez. Bilbon familia zeukaten, han bat marinan zegoen, eta gerra piztu zenean Ingalaterran zegoen, Beatles-ekoak diren hirian, Liverpool-en harrapatu zion gerrak, eta beste bi seme, bat Bergaran zegoen eta bestea ??? eta haiek gudari joan ziren. Baina Bilbora joan ziren familiarengana eta haiek joan ziren, bere ahizpa ere hemen Bilbon bizi zen eta anai bat ere bai. Bai aitaren aldetik eta bai amaren aldetik Bilbora joan ziren bizitzera. Modu txarrean ibili beharrean, trena hartu eta Bilbora,eta bila joan zirenean inor ez.

Gero zer egin zuten ba, Bilbotikan?

Haiek Bilbon egon ziren denbora guztian.

Gerra egon zenean ere bai?

Bai, haiek zeuden gure amaren ahizparen etxean. Gure osaba Joxe Manuel-ek ume baten mentalidadea zeukan, atzeratua zen eta elbarria, ez zen oso umore handikoa eta oso argia zen baina pixkat umea. Gosaria egiten zuela, kafesnea sopakin eta katilua eskuan zeukala, eta ari zela jaten goizean eta hasi da bonbardaketa. Ta ez tandem indarrak, katilua eraman. "Zerri zikin hoiek ez erre egingo ez ta ni gosaldu gabe nagoela".

Eta orduan bueltatu ziren berriro?

Bai. Gerra bukatu zenean etxea dena ustuta zegoen.

Manterola Amas, MARIA JESUS “BIXI”



ABERTZALE IZATEAGAITIK

Gerra garaian, ni Santanderren eraman zieniann, garaje handi baten sartu ziguten horren beste jende Zumaitik jendiai bialita, kamio zahar batian, Kosme Iraundegi ta zer zian ba, veterano nacionalista, ta gero zer da ta Santanderren emakume bat etorri eta eraman ingo ziala, y a dónde le vais a llevar, a mi casa que hay sitio, ta eraman in zien, ta ni near batian, oandik gogon dakat, ta gure ama pena nei mantentzeko, y no mujer cuando mandan a otro sitio no es estar aquí, efectivamente handik Frantzira, orduan ekarri zien, emakumia bi hoi nitun emakume batekin, zenbat gauza, zenbat gauza.

Ta zenbat denbora? dexente, dexente hori esaneko eztakit, hori bai eztakitela, Frantzian oso gustoa eonginan, egunero etortze zian diruakin, ezen faltik ez, eta gizon bat etortze zan zuri zuri, gure aman zan jefa, ama zan neria, eta gero izeko Jexuxa eta Maria Luiixa hiru emakume ta umiak gu lau, eta zean ezta Joxune eta Javier eztakit izango zan, 6 ta Miren beintzat bai 7, 7 ume, ta bakizu Frantzian etxe txiki badia ba, ba aitakoi etxe bateman ziguten.

FRANTZIATIK GAITZA EKARRI ZUTELAKOAN HOSPITALERA

Neska eztet ulertzen.

Oi ene orduan ere ez genuen diru faltik, gu an eztakit gure ama artista zan horretan, Frantzira jun ginna Santanderretik, Santanderretik Frantzira biali ziguten, ta Frantzian egon ginan, gero Frantzian gizon bat bageneukan, frantsezez ta gure amak frantsezez ikasi zuen, eta egunero egunero diruakin etortze zan, frantsezeko...., gero etorri ginan Zumaira, ta gaitza ekarri genu-la, hemengo hospitala merezi dutela, emengo hospitala bada ba rit.... emen atzian, ta hara sartu ziguten, eta ginan hiru umekin, gure aita zaharrena eta neu zaharrena, eta gero esagutukozue Jexuxa nola daka arraindegia zean, Josune Sasiain, ori da nere lengusu propiua, ba horren ama ere gurekin zan ta neska hori ere bai, guria kartzelan, ta handik etorri ginanian jun ginan hospital orreta, ta meikua da Karmelo ta Zumaian ta juntzaku bisitatzea hospitalea , y qué hacéis aquí, que nos han mandado aquí, que han traído algo, quién os ha dicho eso, zulo o no se nos han dicho y estamos aquí con ganas de ir a casa con toda la ropa, bueno bueno qué niños tan majos, haced el favor de marcharos a casa. ta etxea biali ziguten. ta biali in ziguten.

Frantzian oso gustoa eon gina ee baino gero honea etorri ginanian gustoko etxian, ba egiyak dia, zenbat gauza, dana hoiiek goguan dazkat ee, egiya da ta, baino ya pasó.

IRRATIA ENTZUTEN ZUTELAKO, ETXEA MIATZERA

Neska eztet ulertzen

Danetik, gure izabak intzun buelta mundu osotik, Juan Sebastian Elkano, ta ekarrizun radiua, ta gauza asko ekarri zun handika, suge bat ere komentziarte bati, elefante hori ere bai, gauza asko, horregaitik etortze zian ba gure etxea erregistratzea, radio primitik entzuten genuen hemen ze pasatzen zan, eta batenbat bageneukan alkahuete bat bezela, ta gu aitzen gauian lehio denak itxita, ganban tanpoi bat genekan hemen azpian bezela, ta aitze zanian martxa, bidez bidez lotu zian, gure amonak ... espider 7000, olindesetik etotzen zian erregistratzea ta etzuen billatzen ai. bat bazan....

Manterola Galdona, ERRAMUN



CANARIAS ONTZIAREN TOPO EGIN ZUTENEOKA

Ta orduan erten genun gu baiona..... barku merkantia zan, denbora gogorra zan, denbora handia zan oso handia, ta gu bagentozen.... gu ezgenigun zein zan, hura zetorren, barkua bat eztakit alemana.... hura zetorren armakin pasaira..... hori gurekin borroka egiten aizan bitartian.... bermeora eraman zun handik etxea jun ginan bilbora gu ta danak su.

ZER ITRASONTZITAN IBILI ZEN LANEAN

Lehendabizi nabarran, ta nabarran eztakit ze ta aldein nin gipuzkoa, ta joxemari...mutil gogorra, venezuelan beintzat, hark esan zian baino nik enun nai zeatikan hondoa junberbadu anaian embarkaziuak nahioet bat.....ta ...hortxen.

MUTILA EZTA ULERTZEN

Bai, ni orduan gipuzkoan neon orduan, ta nei ze itezian, bat tobar barakaldokua, bestia bastida barakaldokua, elordi bermeotarra, Sanz pasaitarra, telegrafiten izena eztakit nungua danik, eztakit.. eta urruna zu ta zu danak sartu ginan berrehun... ta gero estruktura sizkala...

CANARIAS ONTZIAK ERASO EGIN ZIEN MOMENTUA

Canarias tiroka hasi zan momentu hura nola gogoratzen duzu nolakua izan zan?

Txarra, txarra lehenengo bun bun, atzeko kañoia gipuzkoako atzeko kañoia...., txarra jose Egaña Ondarrutar hori, hori aurreko kañoiam zeon, ta bestia..... ba, horrek tirua eman zion, kaño osua bota 10 eko... kañoia 10 zea... Canalesi zea in zion, guarddia marina bat puentina jo zun nik hori ikusi nun.... libre laga ta jun kanarias.... ta gero tapauta zeon, ba gero handikan aurea ba...

Zuk nabarra nola ondoratu zan ikusi zenun?

Ez enun ikusi, zeatikan gu lehenbizi etorri ginan bilbora damesis eskoltatzera, dames enun ikusi re in, ta gure gana etorri zan, ta nabarra oso atzetik izango zan, zeatikan gurekin borrokan ain zan bitarten etzan entzuten... bizkaira hartu ta bermeora eman zuten barku hori, ententitzen lehor hori, kanarias ta enitun ikusi ta gero laga intzigun guri, ta ordun esan zigun comandantiak Don Manuel Galdos donostiarrak, ya que nos hemos salvado ahora vamos a ir al Barco, ta olaxe jun ginan.

"GIPUZKOA" SALBATU ETA "NABARRA" HONDORATU ZENEOKA

Lehenengo dames enun ikusi zeba gu zeoze aurretik atera ginan, zeba damesis gualdea goizaldea atera zan, ta hau konpondu zan hirurak ta laurden, laurak arratsaldeko , ordu txikia bazkaldu ta listo geuden ta hau sortu zan , baina gero zeon nabarra 20 salbatu zian.

NOLA HONDORATU ZUTEN “BALEARES”

Ramon

Bota,

Baldosetan handik urte batea ze gertatu zan?.

Ba gu mediterranean genbilen ta irten genun gabez, lapajetatik ee, ta alberdian topatu...ta pasa zian, guk orixe uste genun, ta orduan goizeko 2 eo zian, ta destruktoria gure, antekera, hoiek eztakit...baleares, guk bota genun libretatikan, 24 kañonazo bota...balearesei, handik urte batea ee, hau izan zan 38.

GUDAKO ISTORIOAK GUTXI KONTATUTAKOAK**Gero Ramon, historia hauek danak zenbat bider kontatu izan behar dituzu?**

Askotan ez, ez oaintxe.

Gerra ondoren, zenbat bider tokatu zaizu, batalla hauek denak kontatzea.

Ez gutxi, enituen kontatzen, bisimodu diferentiaz aigea, itsasua ta lanea ta dan orrelaxe, bai an ibili gea beti gogua, hau hil dala bestia hil dala, danak aitu, hau jose Egaña kasualidadez gertau da oain, ta getaiarrak nekian zian han hemen gipuzkoa, manuel egiguren, ez Arangune, bestia joxearrak zin janio , ta danak hil zian, danak hil, eztakit ba zenbat bizi zian, beintzat navarra, superviviente navarra ni bakarri nauk 49 ginan navarra, gero bakizu zein porttau zan ondo, Don manuel Calderon, debarra.... ta guk Baleares ondua jo genunian, donbostian hondarretan zeunden 20 hoiek navarrakuak, fusilau in nahi zituela,ta eztakit ze bakit zek, keba.. neuk dakat entzunda, entzunda dakat, Frankona jun ziala, hoiek ezin ziala hil hoiek gerra bazuen goran zekela gerra igual igual, libre laga zuen hondarretan, libre laga zituen hondarretatik,, enrique Manterolata, libre laga, ta dannak hil zian ta neu bakar bakarrikan.

GERRA ITSASOAN MENDIAN BAINO NAHIAGO**Gero Ramon, historia hauek danak zenbat bider kontatu izan behar dituzu?**

Bestea ba, oain itsasoa berriro jungo nitzake ee, berrize itsasoa bali... zeatikan mendia eztet nahi, hotza ta euria ta elurra ta... itsasua re gogorra izangoa, bai gogorra da, intzazu kontu, almirantia bezela zure igual igual bera, han eztao destentziua, generala atzian dao, baina han danak barruan, diferentzia hortxe dao itsasua, dana barrua ta listo.

Osa Arrizabalaga, ADORA



GERRA GARAIAN ESKOLA BATETIK BESTERA ALDATZEKO ARRAZOIA

Mojetan gabiltzan, mojetan nebilen, normala.

Zenbat urtekin hasi zinan?,

Gaztetan 3-4 urtetan, gero gure osaba joxe mari juntzan gerra piztutakon bilbora, eskolan hasi ginanian, gerrako gauzak gauza tristiak dia gauza txarrak eta tristiak, ezta gauzak esatekuak, ta don jaire abituak kendu bazizkioen, zilarrez jantzita jendiak emandako erropakin, esate zuen, en Bilbao, erderaz jakin ez, en Bilabaoestan comiendo ratas olako kontuk esaten, ta umian gauzak etxea etorri ta amai esai, ama esan digue osaba joxemarita arratoiak jaten daudela,

(amak) zer?? hori ikastea eskola jute zeatela.

Klaro gure izeko gremio igualekua zan, maestra blanca mendizabal eta orduan itzegin zuten maestra horrekin blanca horrekin eta eztakit papelakin o papelik gabe, eskola batetik atera eta beste batera sartu ninduten halaxe egin ninduen ee, klaro berez bere reglamentuak kongregasioko reglamentuak ere hala agintzen du baina hala zan oso emakume, zea zan gainea ere, gainea ere esaten zuen...

GERRA GARAIAN IZEBAL HERRITIK BOTA NAHI

Eta 6 an osaba junzarian, ba soltero zeon, ala jun zian eta gero bi arreba solterak, izeba maria makuluakin ibiltzezan, hiru urtekin eroi ta anka puskatu, etzizaion anka desarrollatu, elgoibarren konpontzen zion hezurak, han eztakut ze botones de fuego anka hori desarrolatzia, aítak esate zian, elizara jun ta juegua galdu bihar zuzentzeko, juego gabe gelditu behar, tristia zala belauniko jarrigabe, halaxe, bere anka txiki horrekin bizi izan zan, ta zea zan, hura makuluakim ta gero izeba tibillero zan eta ardigaixua zan etan oihan meikua etxea ekarri ta hantxe burrukan bialdu in nahi herriko alkatika ta hantxe burrukan ta nire hantxe ta alaxe geau zian izekak, eta bueno etorri zan ba gero, erre kontu tristiak, gure aitare atera zuen hoitik ordu txikitan, ta kamillerotzako ere eman zuen eta ene zenbat near near ta near, ta gerra gauza tristia da, gerra ahalbaldin bada ez, burrukik gabe konpondu behar dira guazak.

GERRAOSTEKO ERRAZIONAMENDUA; ARTOA ETXEAN EHOTZEN ZUTEN.

NESKA EZTET ULERTZEN

Bai guk nola egiten genun artua ta garia etxian ba ekartze genun bageneukan zea txiki bat errota txiki bat ganbaran hementxe hau ganbara zan, kaletik ere etortze zan artaliakin igotzea, baino karo iriña bezela etzun iten baino dena txikituezkeo urakin egosita ere goxuak ta guk artairiñakin ta talua izategenitun denbora pilla, ta moldatzen gina.

Artua ta nola ereite zan akordatze alzina?

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Errotan, Bai larrondoa jun, ura berdu erreka ura hartu ta tak tak, ikusten zan artalia nola eroritzen zan tak tak eta tak, poliki poliki artalia nola eroritzen zan, iriña iteko. Lasaora ere jutenginan astuakin, astuakin lasaora ere, eta ira ere bai, eta. baino lehorte bazan etzan larrondon iten, iriñik etzeon, ta horrela ibiltze ginan, gerrako kontuak.

Patatik ere ez ta, boniato, boniato, oainre ikusiet iñoiz denda batea, panaderia ematenenun ogia erretze zan panaderia han erretzezan goxua geatze zan jateko... boniato, eta olaxe bizi izan ginan.

SENARRA GUDARI

Ezkondu zenbatekin inzinaten?

28 urte, bostian in ta 7 an ezkondu,

Ta nola esagutu zinaten

Ba esango izut gizona ere asko pasatakua zan, lehen esan detena, gerra jaiki zanian,

Bere gurasuakin bilbora jun zian, famili dana, eta bilbon kalia zijuala ba gerra, eztakit nola eongozan frentia, 15 urterekin ta beak esatezuna 15 urtekin 25 urtekin zan bezelakua zala, ta kalia hartu eta mendira eraman guadari aldea, eta gero eskoira sartu zianian, kartzela sartu basaurin, gero 13 hilabete pasa kartzelan beak esateu entre eskubiakin entre ezkerakin, 7 urte, 7 urte entre kartzela soldadutza batekin eta soldadutza besteakin, danak pasatzeituela esan, urteik onenak eta haber zenbat pasatutakuakin enbat klasetakua eta gero etzeon denbora ezer ikasteko ta ez...

Osa Arrizabalaga, ANGEL eta XANTI



FAMILIEN EGOERA

Gu gerra denboan, guri gertatu zaigu gerra denboran, nola artian arrapatu etzigun edadia, baino mobilizaziokua bakizu, gurian 16 urtekuak eta aldein intzuen askok, ta familian geatu zian gurasokin bakarrik, gure kalia ezta handia baino gure kalian zenbat hil zian, ...Xoxoko Josemari, Teodoron semia... Jose Mari hauekin hil zan gero, Pedro Joxe. Geatu zian familiak, pentsazu ze intzuen gero, aurtzaila, pentsazu nolako bihotz gogorrekuak gean ee, hauek bazekien Bilbo aldiak jendiak jateko gutxi zekala oaindikan e, gaixkio izategaitik hartu inzuen, oseake nere gizona jun intzan andria umiakun utzita etxian, egun batian autobusa bete beteta biali zuen, bere umiakun ta, Zumaitikan inguru gehiena, gainea eguraldi txarra zan egun hartan, akordatzen naiz otsaila zan, ta klaro ara allatu zianian haiek ba asko Lekeitiotikan badao herri txiki asko, kostan ta toki oietan ta altzuen tokitan ta Gernika bonbardeau zutenian Udave, Udave zuek, zein bizi dia, bakarria bizi da Maritxu bakarrik, bakarrik bizia, hoiiek beaiek 9 senide o ola zian, eta ama aita ferrokari itezuen lana eta karo aita han geauta, ta ama biali zuen 9 umekin, eta Gernika bonbardeau zutenian, ama bere umekin kumun batean libratu homen zian salbatu kumun baten sartuta. Txindurriko iraunka bakizue Gernikako bonbardeuan bonba batek...

Zumaiarrak area bialtze zituen gizonak gudari zirelako o...

Bestela ere bai, gudari izan gabe ere, bueno gudaria bueno dana jun zialako gorriakin jun zialako, nola janariakin gaixki zeude. Hauek jun da gosiakin a ver errenditzen zian edo.

GERRA GARAIAN, BATZUK HERRITIK BIDALI NAHI; BESTEAK EZKUTATUA

Ama juntzalako izekok bi arrebak ta bat errena, bat nola bastoiakin, makuluakin ibiltze zan, bialdu in nahi zituen, eta gure izeko maria bere makulua guzti udaletxea jun ta alkate Axenxio, makulua jasota re ezta zuek nahi bazue ere, gu ez gea jun lehandabizi gure gainetik pasa berko zue gu jun ber bagea, nere andria etzekua anai zaharrena juntzalako, denak bialdu nahi zituen, nere aita gaixua, aita handik ta emendik gogua in ta etzian jum, gure anai zaharrena, lagunak kuadrillakin jun zian, ta guria gogo handik ez ta aita re nahi ez jutia, eta txabola belarra eukitze genun lekuan, zenbat... Jexux re bai 3 izate gina, ta bildurrez hauek sartu zianian, zea hartu ta eraman... Ta gero soldadu sartzeko denbora iritsi zianian, ezioen deitzen, ta gero Zumaiko batek bi seme soldadu zezkana, denuntziatu in zun udaletxia, guria a ver zeatik ez, apuntau gabe zeola, guria etzan kulpa ee, etzioen deitzen ta, deitu gabe nola jungo zan ba, ta gero bakar bakarrik Ferrolea bialdu zuten, bakarrik juntza, suerti eukizuen mendia jun beharrian, ferrola.

EZTIT IRIKITZEN

ERRAZIONAMENDUA; AZALIK GABEKO LARANJAK SALGAI

Ogia ogia, boniato bea, ogia, arizti... beste nola izenazuen tortak eo nola izenazuen, amoniako... gure taberna albo jute zian, ta jun itsasoa or frantsesak... haiek ogia erosi hartu ogia... eta ogik rasionamendua eta ogik ogik, boniatua ta nola izangozan

ba, ba behin aitu aldezu, narajak azala kenduda, iñoiz ez ahaldezu ori iñoiz aitu?. Jode, ba, tenporada bat izan zan naranjak saltze zituen baino azala kenduta, nola azal horrekin eiten zuen polbora, ta naranjak etortze zian gorri hori kenduta, azala kenduta, baino alare gutxi emate ziguen, bestela dena jango genun guk gustoa.

Ta nola jute izan zan generua kanpotik etortze zan? Dendetan, dendetan.

Baino dendeta juteko kartilla bat edo eraman behar zan ?

Bueno izate zian gauza batzuk, kola zeudenen hartzeko esatezan, dendan etzan izaten, kola handian taka taka denai berdintasuna. Baserritan...

ERRAZIONAMENDU GARAIAN, BABAK MARMITEAN EZKUTATUTA

...Plazan baba ez, ta marmitan erdian... ta azpikaldian tapa ta goran tapa ta goian esnia ta azpian baba eta txaperuak zubian alto eman, ta astuai erregistratzen zer dakarkien danai beira, ta babarrunezkoi kendu ta marmita azpian erdian baba gutxigorabera ta gainen esnia, ta hau kostau zitzaiten sinistia baino ezta gezurra, karmioien armazoa in, ta armazoian erdin tubua, tubuan gariz bete ta hola ekartze omen zuen Naparrutik ta garijana.

GOSE GARAIAN ARRANTZA GUTXI

Arrantzatik ere jendia salbatuko zan.

Bueno, baino ez ordun etzan bakarra, gutxi gero mailan hasi zianian, ori geroa izanzan emen gerra hasi zanian arrantzakin txalupak zian, 3 edo 4, ta orduan etzan, gainea puertua etzan ona bastante peligrasua, ta arrantzatikan gutxi familia arrantzatik gutxi Zumaian, gainea zapatari asko, lapatan re ez larbatan re ez, jan itezan baino. Oain hainbeste debekau ditue, pisua ta olarruta eztaikit zenbat lapa ekarri behar diela.

Hoi bestia olarrue, Zumaia...?

Bai, zarauztarrei burla zumaiarrek olarrua patatakin, guri iruitze zitzaigun olarrua zala gauza txarra, gero fama etorri zan olarruana, ta oain elebo...

ITSASOTIK EGITEN ZEN KONTRABANDOA

...Kontrabandua esan dezuna or pikotekua...pikoteraino nola itsasoa zeraman ta batian nola bisita izango zan itsasoa re barian izan berko zun, hartu probamentua, kajak hartu pikotera eman baserria, kontrabandua badek ba, han gurdia kargatu altxurreira nola ekartze zuen, eske gerra ondoren emen tallerretan materiala falta izate zan gauzak iteko ta... rodamentua beintzat asko, hor kostan eztaikit esagutze zuen itsaspe, ba hor bazeuden bere puntuak, hor sartu deskargatu ta gurdian iriak in hartu ta gora.

Ta gu... arrantzan ere bai, arrantzan ere bai, guk ez genekan or pateikan, gure indarrak bestela gastatzen zia, ta ezgenun... gu biziginan tokitikan oso.... kontrabandua ta asko, gu ez ginan enteaten gero enteaten ginan, kontrabanduakin nola izan zian ta. Gero auzua salatu ta zea tiroteua ortikan, pasatze zala, salatu harrapatu ta...

Osa Elosua, AKELINO eta Osa Arrizabalaga, XANTI



ZUMAIATIK FRANTZIARA; EGINDAKO BIDEA

Espulsatu ere inzigue... Bai, a ver kontatu hori. Espulsatu, aita ta bi anai arreba zaharrenak, aitari jun zitzaien lanea, bakizu aita juntzan trintxerak itea, ta seme alaba zaharrenak eman zun fama, aita zaitzeko, ta gero beste.. nagusi hasi zanian, hemengo karlistak, ama lau umekin, sei ginan, biali zituzte... amakin hor junginan. espulsauta

Ta nola, trenen, oinez?

Ez emen Zumaian gabiolazkua etzauan, bat bazeon tres hermanos futbolistas, kamiona bat , argin ta aurrian luzugo zan, auskalo nundik nora, han kamioi artan embarkau zigun, kamioi hartan, txiki txikia zan gainea, ta Debaiño eraman zigun, ta Deban bagenun kosteando kosteando, Mutriku ta Ondarrun barrura, Lekeitio arte jun ginan-

Oñez??

Bai, ta Ondarruan, zubia zeon puskauta, ta errekan han zeuden gudariak, lagundu zigun batetik bestea pasatzen-

Txalupetan??

Ezz, eskuakin. Eskuakin batetik beste aldea. ta handikan, Lekeitioko gainea, Ta Lekeition... ogi beltza eman zigun, ta jana ez, ta eztakit zenbat egun egongo ginen, ta azkeneako beltza re ona, arrapatzen gero ogia, gosia re bagenendun, handik jun ginan Amorebieta, han eztakin zenbat egun eongo ginen, Amorebietatikan Getxoa oo, Arrionazeta lehenbizi... Aleman batekin txaleta batian, banbuk eta intxaurra, babak, amak geldikan eee. Han eon ginan beste egun batzuk, ta handikan horrea, ... Roko, Parientia, parientia baginan, zeoze bai-

Ta alkarrekin ordua--

Ezzz, honen, izeko ta osaba bat. Danen gosua, danen gosua, honen anaia ere bai, anai zaharrena ere bai, hantxe zeon honen anai zaharrena, ta han eon ginan, eztakit zenbat denbora eon ginan, ta gero ta aurreago beste,... ta han egoninan ta gero ta geio, gero ta urrego ta Portugaletea pasa ginan, ta Portugaletea pasa ginan ta, handikan ordo.....ta Santanderrea, nola jun ginan re enaiz akordatzen, trenen jungo ginan seguruasko, karbonerua edo badaek pa, lehorretikan ikatza hartze zuena eo. Ta Santanderrea.

Zumaiko asko jun ahal zian?

Bai, famili dexente.

Expulsauta?

Bai expulsauta, guke artian genun zea abioia, ta gure aita zan gauza, eztautik etzeon ta ondo... Si aunque sea camillero, ta gure amak, gizajo honek, gerra irabaztia...zai bazaudete.... Ta Santanderren eon ginan, ziritan teatrotan ta, eskailetan ta pasilluetan ta lo, oaindik akordatze naiz, handikan puertoa jun ginan, ta han barkua barkok zeuden, eta han hartu ta Frantzira jun ginan.

Han denbora asko, 3 hilabete, Santoñano, Santoñan ere bai, Santoñan re famili dana, hori hemen aizpak eta, Santoñan re eztakit zenbat denbora eonginan: Ta gero Santoñatikan Santanderrea. Santanderretik barkua montau ta Frantzira.

FRANTZIRA IRISTEAN, GOSEAREN GOSEZ, JAN ETA JAN

Tan han re gosia, gosia esango zut, han puertian desembarkau genunian, menbrillua ta gazta ta hori jatekua, ta gosiakin jan da jan ta dena bota nindun, jan da bakik 8 eo 9 urteta mekauden, menbrillua ta gazta... ta gero gero botaka

Porta Gonzalez, MIREN KRISTIN



Gure osaba Akelino Osa Elosua zen. 1930 jaioa, herritiko bota zutenean 7 urte besterik ez zituen. Zumaiatik bota zutenean Durangoraino oinez joan beharrean aurkitu zirten. Durangora iritsi zenean bertan eman zioten ogi beltzaz gogoratzen zen. Inoiz ez zuela horrelako ogirik ikusi komentatu zigun. Naiz ta gosia izan oso txarra zegoela kontatzen zuen. Bitartean Durango deuzela, bera ama Gernika aldea joan zen feria eguna zela aprobetxatuz. Egun horretan ordea bonbardaketa pairiatzea tokatu zitzaion, zortea izan zuen eta bizirik atera zen. Durangotik Santanderrea joan ziren, autobusez edo... Berarekin batera bere lau anai joan ziren. Santanderren ez ziren 3 edo 4 egun baino gehio egon. Barkua erorri zen arte, orduan Frantzia aldera eramango ziena.

Gero handikan barkuz Frantzira eramana zituzten, bertan ogi tsuria jateko aukera izan zuten berriro. Ikaragarrizko antsiarekin jaten hasi zen momentu horretan ze gaixo jarri zen. Frantzian 4 edo 5 urte pasa zituzten. Frantzian egon zirenean ospital batean alojatuak izan ziren lehenengo egunetan. Zumaira itzuli zirenean beren etxea ezin izan zuten bueltatu eta aitonaaren etxean egon behar izan zuten, beren etxea galdu izan zelako.

Sasiain, JOSUNE



Frankistak iritsi zirenean, gure ama eta aita atzerrira joan behar izan ziren nazionalistak ginelako eta frankistak beti gure atzetik ibiltzen zirelako. Gorroto handia zeukaten, baina nik ez dut behin ere inoren kontra egin. Bakoitza berak nahi duen bezalakoa da, behar den gauza bakarria errespetua da, besterik ez.

Denak joan ziren, alde batetik, nire ama bi koinatuekin, eta beste aldetik, beste koinatu bat ere bai, liburuan idatzi dagoena: Ines Sasiain. Izeba Pepa, izeba Maria Luisa eta nire ama hirurak joan ziren bere umeekin, eta esaten zuten, kamioi zahar batean eraman ziguten eta euria ari zenez busti-busti iritsi ginen Bilbora. Gero, Bilbotik Lekeitiora eraman ziguten eta hor ahal izan bezala gelditu ginen. Gero, egun batzuk pasata, bombardaketa izan zen Bilbon, eta hemengo jende ere hil zen.

Egun bat edo bi pasata itsasontzi batean Frantziara joan ginen eta han oso ondo hartu gintuzten. Txalet handi bat zen eta hango jende ezagutzen genuen beraz, ez zeuden gaizki esanak ezta gorrotorik ere. Orain baino gehiago joaten ziren gazteak elizara, eta guk denok elizara joan ginen, eta jendeak esaten zuen: *"Pues esos no son malos, porque van a la iglesia"*. Denbora pasata, berriz hona bueltatu ginen.

Nik uste dut hori dena gorrotoa zela, elkarren gorrotoa, ez dago beste arrazoirik, zer irabazi genuen ba? Borrokan ibiltzea, besterik ez. Ondo gogoratzen naiz gero etorri zen miseriaz, joan den urtean hil zen nire lagun batekin esaten nuen: *"Guk pasa ditugun miseriak, ez direla beraiantzat etorri"*. Miseria handia pasa genuen. Hamaika urterekin hasi nintzen lanean, eta harrezkero lanean jarraitu dut. Estreningun hasi nintzen lanean antxoia fabrikari, gero, hamazazpi urterekin edo Ortizera joan nintzen lanera, eta gero Pepitarekin (*gure aldamenean bizi zena*) hasi nintzen zerbitzatzen Eibarren Txominenean. Hortik aurrera beti lanean, batean edo bestean, baina beti pozik, dirua ekartzeagatik pozik.

(FALTA) Guardia Zibilak beti gure atzetik zeuden abertzaleak ginelako eta gure amari ile moztu zioten Triniarekin. Estrenin-gura eraman zituzten Consuelo eta Carmen Ligorionekoa, soldatuek Hotel Amaian utzi zuten zikina garbitzera, komunak eta abar garbitzera behartu zituzten. Gero, nire amaren bila etorri ziren bi guardia zibil edo bi eskolta, eta esan zioten: *"¿Jesusa Manterola?"*, eta amak: *"Si"*, eta erantzun zioten: *"va a venir usted con nosotros"*. Horrela, joan zen eta Venantzio barberuak esan zion: *"Jesusa ilea moztu behar dugu"* eta guardia zibilek esan zuten: *"hable usted en cristiano porque no le entiendo lo que usted dice"*, eta amak esan zuen: *"mutil moztu ezak, moztu nahi badu moztu ezak"*. Ilea moztu zioten, eta jendea barre egiteko plazari bi buelta ematera behartu zioten. Una venganza, porque horrekin ez zuten ezer irabazten. Harrezkero, Jesusa Arrapa deitzen zioten.

"Zergatik izen hori?"

Nik uste dut hile moztu ziotelako izango zela, rapenekoia beti, nire bizitzan, rapenekoak ezagutu ditut, bengantzatik. Gero soldatuak, abertzaleei deitu zioten, hauek zikina garbitzera joateko. Gerra pasa ondoren ere, miseria handia pasa genuen inork ez zuelako lanik ematen.

“Amari multa jarri zioten?”

Multa jarri zioten.

“Nola da hori? Kontaiguzu.”

Eskaraz deitu zidan, niri bai etxean bai kalean Josune deitu didate beti. Nik ez dut behin ere ez Maria Jesus entzun, nortasun-agirian izan ezik. Orain Miren Josune deitzen didate, nortasun-agirian eta dena. Periko Trueba, juezak, amari 50 pezetako multa jarri zion balkoitik Josune deitzeagatik. Gure etxean ez zegoen dirurik, beraz, ama zor-asuneko denda batera jaitsi zen eta haiek abertzaleak zirenez, baina dirurik ez zuenez ez zuen ordaindu. Urteak pasa zirenean Zestoara joan nintzen neskame bezala, eta nire nagusia Perikoren semea zen: Jesus Trueba. Hori dela eta, bere aita etxera etortzen zenean, bokadilo bat pres-tatu behar nion ardoarekin. Larunbat batean, etxera bueltatzean, nire amak galdetu zidan zein zen nire nagusia, eta erantzutean amak esan zidan: *“kabroi zikina, hori da balkoitik deitzeagatik multa eman zidana eta orain zuk bokadiloa ematen diozu”*. Astelehenean, lanera joan nintzenean, Perikori galdetu nion ea nire ama ezagutzen zuen eta baietz esan zidan, handik aurrera ez zen berriro etorri. Bere semeak galdetu zidan, zergatik bere aita ez zen etortzen eta nik gertatu zena kontatu nion. Ez nuen Periko berriro ikusi, nahiz eta bere seme-alabekin tratu ona izan.

Nik ez dut behin ere gauza txarrik egin, haiek errespetatu ditut eta nik errespetatzea nahi dut, ez daukat inongo gorrotorik ez irainik. Sasoi batean ni baino gehiago ziren, baina orain haien pare naiz.

Nire ama emakume gogorra zen, oso gogorra. Ederrak pasa zituen, 80 urte egin zituenean esan zidan: *“hau den pena daukadana Josune, 80 urte, beste gauza batean pentsatu egin behar dut”*, eta nik zer pentsatu behar zuen galdetu nion eta erantzun zidan: *“orain ezerean faltarik ez, eta egin beharrak”*.

Gure aitak ez zuen hitz egiten gerrari buruz, amak bai, honek berean jarraitzen zuen.

Uranga Linazisoro, ALBERTO



Orduan ba al dakik zer sufrimentu gendukan guk! Itxoin, itxoin. Reketeak sartu zireneko...

Zer akordatzen haiz?

Eon, eon! Etxetikan kanpoa bialdu baino lehen akordatzen al hax gure aittatta jaixetan mezeta jun eta Beheko Plazako Ze-laieneko etxearen bueltan nola eoten zian Zumaiko rekete buruak, mutil gaztiak. Jakin gure aittatta zer zan eta haixek zirikatzen: Joxe Manuel! Republikano! Esan gora republika! Eta hark: Gora Republika! Republika hemen! Ez zuek! Zuek muskiroso zikin hoixek ez dakizue ezer-eta! Hartu die, eta sartu die barroa. Hor Beheko Plazako itxian, behian. Zer da-ta, itxian aittatta falta eta gure lñaki eta Manolo Itturri jun hittuan bila. Aittattak ezer ez zula ein, ama ere oso disgustauta zeola eta etxea bialtzeko. Atea due. Beste jai batian berriz ere meza nausira jun dek eta bueltan eon zizkok danak zai. Hamen republikanua! Gaur ein behar zizku honei kristonak! Hasi ittuk toreatzen eta bestiak republikanua zala, Jesukristo ere republikanua zala eta hura aurrian juten zala, baina gaur soldauak hiltzea bialdu eta militarrek atzian gelditzen diala. Gure nausixa ere republikanua dek eta ni ere republikanua!

Eta langile bati egunero kafe konpletua hartzeko dirua eman behar zitzakola. Sartu die barroa, jo ixkie orduak, eta... etorri dek gure aitta Zestuatik. Gu danok nearrez. Mutilak jun eta jun eiten hittuan bila, baina... -Ez dakizu zer pasatze dan lñaxio. -Zer pasatze da, ba? -Aitta detenituta do egun guztixan. -Zer! Nun! -Etxe hartan. -Etorri neekin!, lñaki eta Manolo. Jun dek okoiloa, hartu dik sega, hartu ittik itaixak, itai bana eman lñakii eta Manolo, gu txikiak gittuan, eta taka-taka jun dek etxe hartaino. Han zebenak hura zaintzen, danak zumaiarrak: Hi! Olazar segakin zetorrek!! ¿Qué estás diciendo?, Jefiak, Ese es capaz de pasarnos con la siega a todos! ¡Saca, sácale al viejo. Gixajua egun guztixan jan gabe eduki zien. Bi mutil koskorrai bizkarretik heldu eta etxea. Eta gure amak esan ziu: Aitta, itxian emango izut nahi dezun guztixa, baina gehixo ez zea jungo Zumaira. Urtian behin jauna etxea ekarri eta Bonbilotik erten gabe. Aittata hil nahi zien. Segakin- eta bueltatu zianian, atzetikan militar bat etorri huan, joleko atia jo dik, eta: La señora de la casa? O el señor? Erten dik gure amak eta esan ziu: Señora, ¿el viejo es su padre? -Si. -Mire, le voy a pedir un favor. Yo soy militar. Mi padre era republicano y le mataron los nacionales, yo le digo que, no sé que tienen lo jóvenes requetes de Zumaia, pero dentro de muy poco le van a matar. Por favor, no le deje salir. Orduan etorri gure ama sukaldea, eta: Aitta! Ez zazu gehixo erten! Hau eta hau esan dit militar horrek. Nik kalea ez dakatela ertentzeik? Ez, aitta. Nik ekarriko izut egunero kuartillo ardua, egunik faltatu gabe. Kuartilo hartatik basoka bat ardo jai egunian osaba Juanek edaten zian. Gure aittatta Zumaira gehixo ez huan jun.

Urbietta Albizu, CLARA



URTEREKIN GERRA HASI ETA BILBORA

Ta eskolan zenbat urterarte ibili zinan?

Ba 12kin gerrak harrapatu zian ta, esan genun etorri giñaneako ya, 13 eo beste urtebete eo.

GERRA GARAIAN, GOSE HANDIA

Ta gozeik pasa zenuten?

Bai.

Gurasok itezuen lan?

Ez. Eztakit.

Gosia etzeon ta, racionamentua zeon, ta etzan allatzen asko ta, arrosa ta garbantzuak.

Garbantzuak, jaietan ezta igandetan eo ezta?

Ez, igual.

Egun normaletan ere bai?

Gosaitan esne arrosa, ori gero zea batian eongina ta, enplan bageneukan baino lotako lekuik ez eta komedore batzuta juteginan ta gosaitan arrosa emateziguen ta eguerditan arrosa o garbantzuk, afairik etzan izaten.

Eta ordun lo itezenuen ta lo ta bizimodu normala lagunuen etxian, ta bazkaldu..

KLaro beaiantzat re etzekenta neikua, eta etzuen...

Bizimodu gogorra.

Bai.

Urbieta Zinkunegi, FAUSTINO



GERRA GARAIKO GOSATEA

Esagutu zenun zuk gerra garaia.

Bai, bai nik 12 urte nazkan.

Ta nola akordatze zea gerra garai hartaz?

Gosia, gosia ordun ezgenun pasatzen, tomatia ta bakailua ta holakok pasatze zituzten barkutatik, deskargatu ta... Fabrika hartan, mataderuako artan, ta handikan ta, ni listua nitxualako, neu baino listuagok bai bazian, barrotek hartu ta... al bada etxea, ta lau o bost zea, bakailua bakailua, bakailu handixak.

Barkutikan hartze zituen.

Eramateko esate zizuen gora, fabrika ba, barkua deskargatzeko, earki deskargaukoitugu, nik bat ekartzenun ta txa...20

Danak eongo zintaten arentxe sai sai, eta.

Nei pare honeta allatu nitxaneako.....

Hau Txinbi zea zan no? Linterneruakin eote zana,

Bai, Txinbi.

Eta gerra garaian emen Zumaian gerraik izan zan? Emen bonbak eta sartu zien?

Bai, tropak bai, bonbak bota zituen, ta herrin bertan emen etzian gertu lehertu, hor oain etxen hor zaudek.....

Militarrak ta eontzian, ezta?

Bai, bestia gero han justo patxeruan. Pulboko aurrekoko eskailerak bazian... .lehengo moila zaharrear kaxeta bahuan.

Hura kenduta dao aspaldi.

Bai.

GORRI ETA NAZIONALISTEN INGURUKOAK

Ezta regitin sartu zianian ta, zuriztak ta hortzeuden ta, hoiek danak irezi intzuen, ta hemen gorriak zeudenak baita... jun-txuan, Karmengo okuiluan eonitxuan. Zea eztaikit... eta.

Ixkutatuta?

Ixkutauta.

Zure etxea sartu zitzaizkizuen?

Bai gorriak, beiar earra kendu ziguten guri behi pinto bat.

Behia kendu zizuen?

Hantxe larru handikua erositakua gainea, pinta earra re, baina nazionalistak ta gorriak ta, hemen zaudela, nazionalistak gorrian pasadizua sartuta, nazionalistak bertan zeuden ba, nazionalistak ite zan, hi hau ta hau itxugiro zan, junda handik heldu zien behia, bestela zis zist, ta eskuleruek egarria edukiko zuan, bestela mendira hobia,

Ta ze nahi zenun esan? Behiak gorriak kendu zizueta ta nazionalista gorrian behia kendu ta berriro ekarri zizueta?

Bai, bai, inguruko behi danak hartu ta eramate zizuen gorrik, ta nazionalista ondo zeuden han ta, hi hau ta hau, ta dirua soltau zute, ta haiek...

Ta gorriei kendu ta berriz ekarri in zizuen etxea.

Jode, gero hemen sartu zuenian, kaiolan Zarauztikan eo ba... deskargau itezuen baino tratorik ez, zea eongoa ba tratoreik, astuakin, amarratu, astuakin ekarri zituen. Astua ekarri ta libre laga. Zarauzko alkatian astua taz gu, zun ofizinan bakarrikan, itezun.... astua zeken ta, txiki zuri bat.

Ta ze euki zenuen zuek etxian Zarauzko alkatian astua?

Bai.

Zuen etxian al zan Zumaian, Zumaira kañoiak ta ekartzeko, materialakin etorri ahal zan, Zarauzko alkatian astua?

Asto hoi bakarrik ez, beste mila asto re bai.

ERRAZIONAMENDUKO JAKIAK

Goseik pasa zenuten zuek gerra denboan, Faustino?

Nik ez, guk geu ginazkan ganauak. Gurasuak txarria ta re hiltze zuten, gosia gosia nik ez.

Razionamendua ta esagutu zenun?

Jode, ogia zea botata itezun.

Auskalo zekin indakua.

Arrautzakin...

BONIATUA PATATAREN ORDEZ

Ba ze esaten ai nitzan ya ahaztu zait...

Boniatua.

Boniatua, ekarri olagarrua ta, gure ama zanak. Olarrua zeon, olagarrua patatakin, kriston olagarru punttuan ekarri zun, ama zuk gatza eman bearrian azukria botaiozu joder. Ez hau zurituta joder, probatu indet ta, hau gosua zio, nere aita zanak tailerrian ibili lanen jardutzen, ta hark esan du, hare paxkue, ezz.... hori ezer.... Ameriketako patata.... erreta jaten

Boniatua, a mi me gustaba.

Boniatua laben sartu ta, batzuk ixkutatu bestela.

Ta rasionamentuko jana hartze zenuen?

Ogia.

Ogia bakarrik izate zan rasionamentun o gauza gehio?

Ez, oliua ta.

Ta ze izate zenuen, kartilla bat eo?

Bai, kartilla rasionamentukua, rasionamentuko kartilla, ta beste askoren berri ez genun..., hemen elorrigan hoietan berriz, makila batekin jute zian, ta makila horri zenbat ogi eman, kutxiluakin markak ateratze zizkioen, ta markak, ta handikan izate zian honenbesteko ogi honenbeste patu behar dek ta baldin bazan dirua patzeko ez baldin bakan re lapurtuta jungo zan.

FALANGISTAK ARTOA ERKISATZERA

Eta esan dezu etxen ganadua edukitze zenutela.

orr.

Bai, guk.

Behiak ta?

Txarriak, 3 eo 4 behi edukitze genitun guk etxian, ta denak etxeako ee.

Esnetakok?

Esnia etxian, etxian....

Behiak esnetako behiak?

Bai, bai.

10 anai-arreba zian.

10 zinaten, nunbaitetik atera ber zan.

Artua ta ite genunian, falangistan zeudenian parian, gutxi arrapatze ziguen, redios, earki espabilatze ginan, artua.

Artua ite zenuen?

Artua, baba ta dana,

Garia ere bai?

Ez, garia zenentzako Francori... ta artua zuritu ta.... eraman oaintxe zekatu zeatu, aletu dana, ta zeakotan sartu, tranpainerua eraman ta nola eotezan, bastuik ez, belaronduan, belarra ortikan zakua sartu, iskutatzeke, errekisatzen ibiltze zian ta, guri etziguen beitzat arrapatu.

Errekisatzea sarritan etortze zian?

Falangistak, puff por dios.

Yeregui Salegui, IRENE



ERREPUBLIKA GARAIKO BIZIPENAK

...Republikan badazka zeak, zea batzuk, republika, osea ke eman ziotenian zea nazionalistai, zea konpondu zienian botuetan sartu zianian, nola da zea eman zien autonomnia eo estatutua o zoeze eman zien. Nik ordun eukiko nitun 7 urte o olako bat, ta akordatze naiz, aita bizi zan, eta zea ezta zeon republikano zea zeken emen pulbo hemen hor goian zeken, zea republikanoua, klaro republikako eguna zan bueno, ta danok gure amak jantzi zigun, gure bi ahizpai, buruan zinta nazionalista jarr lazuak i ta kalea, ta goatze naiz, hor aurrian eon ginala beira, handikan ertetzen zuen neska gaztiak, bandera handiakin ta zea pasakallian republikako zeakin ta zuek guk moinua nazionalistakin.

Ikurriñan kolorea.

Bai, txuria gorri ta berdia.

Orduan garaian Zumaian zer zeon, nazionalistak, karlistak o sozialistak o zer?

Republikarrak bazian ee gutxi, ee errepublikanuak bazian, nazionalistak gehio.

Asko izango zian.

Bai kantitate gehio.

Karlistak re bazian ee, bazian ono, gero etorri zianian ze pasakalle ze soinu ibili zian.

BATZOKIA, KARLISTEN LOKALA ETA ERREPUBLIKAZALEEN LOKALA

Eta lolakik eta?

Bai, bagendun, earra gainea batzokia, teatros re itezian.

Nun zena?

Hor txirula badao, ba hortxe.

Ta noizkua zan aurrekua zan batzokia?

Bai, aurrekua zan, bai.

Eta ederra.

Bai, handia, teatrua ta re itezian antzoki handia zan, lokal handia zan, gero zeak eukizun batzokia zeatu zaniaan zentro parrokialak.

orr.

Gerrako zeon.

Luisetakuak zentro parrokialak

Errekisatuak edo?

No, no, ke ba.

Errepublikanuk re esandezu lokala zekela.

Bai, bai, beti eukizuen lokala, goian oaindikan etxea re badao, eskailera batzuk igo ta hortxe oain etxiak daude hor. ba hori hor zan.

Hori republikanua ta gero sozialistana?

Ez, errepublikanuana bakarrik. Sozialistaik hemen ez zeon. Nik ustet biak bat in ziala.

Eta karlistenak?

Karlistena zeon, hotel zeon, or nola, oain errota dao, calle ribera bukatu ta aldapan goitik beran, zeon zeako iskinen, siete mares bakizu nun daon? Ba ixkina hori hor zan ortxe zeon, hotel Zumaia zan or leno hotel Zumaia zan, hor leno hotel bat zeon, ta ortxe zeken lokal bat karlistek.

ta esan dezu zumaian danetik zeola Zumaian ez?

bai hemen danetik zeon emen hiru klase zeuden.

ta ondo konpontzen zianeo

ba etzazu pentsau ee, karlistakin gaixkinakin gehiena, tirabira asko karlistekin.

AITA NAZIONALISTA PORROKATUA

Zea gure, zea egun batian tetrua zan zeon karlisten lokalan, ta ahizpa ta ni, umiak ta jun ginan, jun gea ikusi behar deula, ta gure aita nonbait gure aita bizi zan, bueno ta nola.... ortxe lagako ixkizut nere bi alabak, gora jun ta atera, ta gure aizpa zaharrenak zoez ze esan ba ango zeai, an zeuden zeai.... ni baino bi urte terdi zaharrago da ahizpa, gure aita gogoraa zan ee pufff, numero primera filan, gure aitaik oseake zeatuzun, ee zeatuzun, iriki zuen batzokia gure aita re lehenbizatukua zan, fundadoria.

Ta noiz gutxigorabeheara?

Ba, hori eztakit, puff.

Zu jaio baino lehen.

Bai, ni jaio aurretik porke nere ahizpa jaio zanian, tallerrakin bateatzu eo.

1915 eo?

Bai.

Eta fundadorian artian zeon orduan.

Eta behara Usurbildik, familia re nazionalista.

Ez etzian, holako zeak baino beti tira, zea gehio bai.

Baino bera bai.

Bera bai, eske bea zan no 1, baino beste anaiak zian zeagok.

Izena emangozu.

Jexux, Yeregi Manterola.

Eta esan dezu No1, parte hartze zun.

Bai, batzokin ta ibiltze zan, ta gero tolosan eon ta kito, bestela gu zenbat aldiz esate giñun, gure aita bizi bazan gure aurre jungo ginan, zeak gerrako zeakaitak iresi berko zun ta.

IRRATI ERREKISATU ZIETEN

-Eta bestela ayuntamientuan ibili zan?.

Gero kendu zizkigun zeak ee, hemen sartu zianen karlistak, radiua kendu ziguten, guk radiua bagendun, ordun radiua gauza zea zan, ta goian zeon beste osab a bat ta hari re kendu zioen, hura re andria zan angua, nere izeba zan,... nere aitakin motozale ibiltze zan, hatsebera izena zun, guri radiua kendu ta guria eonzan gure aldamenian, pa... etxe eder bat bilboko batzuk inda, ta hor zea handi bat zeken sala handi bat ta hori errekisatu zuten, falangistak ta horrea eman zuten gure radiua guk etxetik

ikuste genun radiua guria, ta goikua eman zuten zea beheko plaza, oaindikan bizi da, zea batzokia nola eonda ba etxe hori, hori rebisatu zuen karlistak, ta horre heman zuten goiko radiua ta han eontzan.

-Ta zuek amorruz.

Hoiba guk ikusi itegenun ba.

-Gerran ta olako asko izate zian rekisatzea ta.

Guria etzan etorri rekisatzea ta, ta hori rekisatu ziguen radiua, ze ba jende gutxi eukitzen zuten radiua garai artan.

-Ta bestela etxiak ta kendu ta?

Ez, ez, baino muebliak ta zeoze bai. gero rekisapen handia in zuena zan, oain nola dao ba talasoterabia, oi zan zea, esto nola dia hoiek, hor itezan txalet bat zeon, bueno oaindik exixtitze du, saloterapia hori zea etxia bera da, edifizio bera da, ba hor beraneatzea azkoitiarrak eo zian ta hura dana rekisatu zuen ontziak, kuadrok, dana dana dana, eraman zuten karlistek etxe hura.

-Orduan gerran bai izan zan.

Bai.

TROPAK GOIKO PLAZAN; KAPITAINA IZEBAREN ETXEAN

Bestela gerran eta, tropak ta sartu zianian.

Bueno bai, ze zea eontzan, han sartu zian goiko plazan dank sartu zian gero andremaitik juntzian, ni akordatze naiz goiko izebak gizona aldein intziopn porsiakaso, baserri bate juntzan nbakizu momentuan, bazpare jun intzan ze osaba ta izeba, ta gero esan zuen han baten bat hartzeko, kapitanak eo jaostzeko eo lotatzeko eo, izeba guk ezgenun ekarri gure amak etzun hartu zeba eztakit, ta goiko izebak bat hartu zun kapitan bat ta han eontzan ta egun batian norbait jarri afaitan eo bazkaitan, batzuri sopa ta hainbeste gustatu zitzaion esate zion jateko, ta nere izeko horrek esatezian etzeola olioikan ta beak ez prekupatzeko, eta ni jute nintzan zeara, eskola zean dao ba obillos.

Kuartela.

Ta hara jute nintzan ni kapitanaki olio billa ta gero izebak esate zion baratxuri sopa gustatu.

Eta denbora asko pasatu zuen?

Ez, emen gutxi eon zian, gero herrikuak eonzian falangistak re eonzian emen, triopak ya jun inzian, kapitanak re jun inzian, hor goran eonzianak ta plazan eonzianak, bi eguneta o hiruta jun intzian andra maritik gora, baino geatu zian karlistak herrikuak, jaun da jabe, nahi zuena in, ta bestia falangistak geau zian toki hartan falangistak, hoiek naparrukok o eztakit nungok zian, baino etzian asko geatu ee batzuek hor geau zian.

Nun geau zian?

Hor esan dizut, goiko plazako zea ortan, ta hantxe euki zuen, baino beko plazakok herrikuak zian.

BONBATIK BABESTEKO SESTEROANEKO SOTORA

Bueno, bai, bazeon hor ni akordatze naiz.... zeara jute ginan, hara jun o ez jun igual igual izango zan, bonba handia etzun botako ta, bestela kito, esandizun ba sestuaneko denak, han beran zoen bodegaba zeken, refugio motako hara juteginan kanparia entzute zianian, o jote zuenian. Bonbardeoko zeak bai.

Baino egon zan bonbardeorik, eo jauzi zan?

Botazituen emen zean mollan, or zeon kaseta bat karabineron kaseta bat, zeon ba nola esangoizut, nola pulpoko pixkat onuntzo eo kaseta bat zeon karabinerona, gure ama josita eontzan tiroz...

Zendoia Uranga, KARMELO



Denbora gutxiko kontua. Sartu hittuan eta gu mutil koxkorrak hortxe. Soldauak alde batian eta soldauak bestian eta gu hantxe bueltaka. Gainuntzian gauza gutxikin akordatzen nauk. Akordatu... Akordatu... gosia zeola galanta. Alpiste falta. 1940-41-ean, hura gosia! Baina 36-an... Akordatzen nauk... Zubi Txikixan guardiak zibitien. Artian gorrixak deitzen zianak eta haietako bat gurena etorri huan, ez zekiat zein zan, Ardantza bidian tailerra zeukan bat-edo, gure etxea etorri zikun eta etxetik irteteko esan ziun, zubixa bota behar zuela-eta. Halaxe, etxetik aldegin ginien eta Alvarez praktikantiaren etxe azpira, bodega, jun gittuan. 70 metrora. Etxe hark gure itxiak baino gutxixo behar zian eroitzeko, baina... Bota zien zubi hori eta guk pentsatu ginien: Aibadio!, gure itxia eroita eongo dek. Jun gitxuan eta, keba, oso-osorik, lehen bezela ziuan.



Iturriak eta Bibliografia

Fuentes y Bibliografía

7



Orr.

ARTXIBATEGIAK / ARCHIVOS

- Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibo Orokorra / Archivo General de la Sociedad de Ciencias Aranzadi
- Archivo General Militar de Guadalajara.
- Archivo Militar de El Ferrol (AIRMN)
- Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala (BAHP) / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia (AHPB)
- Erkibe kultur elkarteko agiritregia / Archivo de Erkibe kultur elkarte
- Estatuko Boletín Ofiziala / Boletín Oficial del Estado.
- Euskadiko Artxibo Historikoa (EAH) / Archivo Histórico de Euskadi (AHE)
- Fundación Popular de Estudios Vascos.
- Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (GAHP) / Archivo Histórico de Provincial de Gipuzkoa (AHPG)
- Sabino Arana Fundazioa / Fundación Sabino Arana
- Zumaia Udalaren Artxibo Historikoa / Archivo Histórico del Ayuntamiento de Zumaia

EGUNKARIAK / PERIODICOS

ABC; El Día; El Diario Vasco; Euzkadi; El Imperio; Frente Popular; La Voz de España; La Vanguardia; Unidad, Gipuzkoarra, El Día, Diario de Navarra

AHOZKO ITURRIAK / FUENTES ORALES

José María Setién Donostiako Gotzaiaren hitzak, 1988an "Catolicismo vasco..." bere liburuaren aurkezpenean esandakoak. Palabras del obispo de Donostia, José María Setién, en la presentación pública del libro "Catolicismo vasco...", 1988.

ELKARRIZKETATUAK / ENTREVISTADOS

- Aizpurua, EDURNE
- Albizu, MARGARI
- Albizu Irigoien, LORE
- Aristondo Aizpurua, ANA
- Azpeitia Egaña, MIREN
- Arozena Larrañaga, ANGELES
- Beobide Arburua, JOSEBA
- Bidasoro Blasco, TRINI
- Egaña Etxabe, JUAN JONTXU
- Etxabe Oliden, BARTOLO
- Etxabe Udabe, JOXE
- Elosua Zubimendi, Akelino
- Gorostola Iribar, MARIA LUISA eta VITTORI
- Illaramendi, KARMEN
- Linazisoro Azkue, ABELIN
- Garate Elosua, ANAMARI
- Manterola Amas, MARIA JESUS "BIXI"
- Manterola Galdona, ERRAMUN
- Osa Arrizabalaga, ADORA
- Osa Arrizabalaga, ANGEL eta XANTI
- Osa Elosua, AKELINO eta Osa Arrizabalaga, XANTI
- Porta Gonzalez, MIREN KRISTIN
- Sasiain, JOSUNE
- Uranga Linazisoro, ALBERTO
- Urbietta Albizu, CLARA
- Urbietta Zinkunegi, FAUSTINO
- Yeregui Salegui, IRENE
- Zendoia Uranga, KARMELO

BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA

- Aguirre y Lecumbe, J.A., 1936. Entre la libertad y la revolución, 1930-1935. Talleres Gráficos E. Verdes Achirica, Bilbao.
- Aguirre y Lecumbe, J.A., 2007. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo. Fundación Sabino Arana, Bilbao.
- Aizpuru Murua, M.X., 2000. El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): Orígenes, organización y actuación política. Universidad del País Vasco, Bilbao.
- Aizpuru, M. (Dir.), 2007. 1936ko udazkena Gipuzkoan: Hernaniko Fusilatzeak. Alberdania, Irún.
- Barruso, P., 2002. Verano y revolución. La Guerra Civil en Guipúzcoa. En: Gipuzkoa 1936. Disponible en: <http://www.gipuzkoa1936.com/verano3.php>.
- Barruso, P., 2005. Violencia política y represión en Guipuzcoa durante la guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945). Hiria, Alegia.
- Buces Cabello, J., 2014. Leioa 1936-1945. Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.
- Chiapuso, M., 1977. Los anarquistas y la Guerra de Euzkadi. La Comuna de San Sebastián. Txertoa, Donostia.
- De la Granja Sainz, J.L., 2007. El oasis vasco: el nacimiento de Euzkadi en la República y la Guerra civil. Tecnos, Madrid.
- Egaña, I. (Dir.), 2000. 1936, Guerra Civil en Euskal Herria. 8 v. Aralar Libururuak, Andoain.
- Egaña, I., 2011. 75 años de la barbarie franquista. Gara 2011-11-11. Disponible en: <https://gara.naiz.eus/papezkoa/20110911/290086/es/75-Anos-barbarie-franquista>
- Egaña, I., 2012. Ondarreta: Gezalaren kartzela = La cárcel del salitre. Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.
- Errazkin Agirrezabala, M. et al., 2009. 1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Errazkin, M., 2013. Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945. Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia. (Tolosaldea historia bilduma, ISSN 1579-6299; 17).
- García Santos, J.F., 1980. Léxico y política de la Segunda República. Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Irigoyen Artetxe, A., Álvarez Gila, O., 2004. De la influencia de la diáspora nacionalista en un requeté navarro o la historia de un bertsolari que le cantaba a sus vacas (1909- 1997). Litterae vasconicae: euskararen lker atalak 9, 155-186
- Iturain Azpiroz, I., 2014. 1936ko gerraren ubera Orion: "Gerra bat barruan degula". Orioko Udala, Kultura batzordea, Orio.
- Moreno Seco, M., 2003. La política religiosa y la educación laica en la Segunda República. Pasado y memoria 2, 83-106.
- Rodríguez de Coro, F., 1988. Catolicismo vasco. Entre el furor y la furia (1931-1936). Cuadernos de Sección, Historia 9. Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Sabin Rodríguez, J.M., 1997. La dictadura franquista (1936-1975): textos y documentos. Akal, Madrid.
- Sánchez Erauskin, J., 1998. El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945). Vasconia 27, 235-244.
- Urgoitia, J.A., 2002. Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular. Sendoa. Oiartzun.
- Vargas Alonso, F.M., 2002. Guipuzcoanos en las milicias de ANV durante la Guerra Civil (1936-1037). Bilduma 11, 81-108.
- Vargas Alonso, F.M., 2002. Los Batallones de los Nacionalismos Minoritarios en Euzkadi: ANV, EMB, STV (1936-1937). Vasconia 32, 517-547.



Zumaia Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



aranzadi
zientzia elkartea

SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES